



**Photomiradas argazki lehiaketa antolatu du Arizmendik** | 31

**Pazkoak gaurtik martitzenera Bergaran**

ORRIALDE BEREZIAK BARRUAN | 35



Karmele Igartuaren 'Itsaso kontra bat' liburua kalean dago | 33



Gabez Takarraran probaren lehen edizioa bihar | 28



30 upategi eta 20 gaztagile bihar Arrasaten Gazta eta Ardo Egunean | 12

## Euskal Herriko artistek osatuko dute Errekan Gora egitaraua

Eskoriatzan izango da uztailaren 3tik 23ra | 24



## "Bakea lortzeko urrats handiak egin ditugu agintaldian"

**Rafaela Romero** | Gipuzkoako Batzar Nagusietako jarduneko presidentea | 8



## Bihar hartuko dute kargua zinegotzi eta alkate berriek

Salbuespen moduan, Eskoriatzan 13an hartuko dute

BEGIRATU HERRIKA



## HIRUATX: 20 URTE POBRETUTAKO HERRIEI LAGUNTZEN

Aretxabaletako Hiruatx gobernuz kanpoko erakundea zorioneko dago. Pobretutako eta garapen bidean dauden herriei laguntzea helburu duen erakundeak 20 urte bete ditu, eta hori ospatu, orain arte egindakoa gogoratu eta Brasilen abian jarritako proiektuaren berri emateko ospakizun handia antolatu dute gaurko (19:00). | 22

Ibon Antero, Iñigo Trueba, Oier Sarasua, Oihana Arietaleanizbeaskoa eta Aiora Padilla –Hiruatxeko kideak– ospakizun jaialdiaren kartela eskuetan dutela. | MIRARI ALTUBE

### SINADURAK

|  |  |
|--|--|
|  | Duintasun bidea   6<br>IÑAKI PEÑA            |
|  | 6   #Pintxotuit' 2.0<br>MAIDER ARREGI        |
|  | Beharko lukeenak izan<br>NEREA MAKAZAGA      |
|  | 24   Negua joan da ta...<br>DORLETA KORTAZAR |
|  | Bakearen ataria   25<br>FERNANDO LETE        |
|  | 26   Ez al gara arabarrak?<br>XABIER AGIRRE  |
|  | Zerua eta infernua   40<br>IDOIA ETXEBERRIA  |



**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

[www.mondragon.edu/gep](http://www.mondragon.edu/gep)

Oñati gestio heziketa

[www.mondragon.edu/enpresagintza](http://www.mondragon.edu/enpresagintza)



**GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012**  
Informazio jardunaldiak

| MGEP  |   | OÑATI Gestio Heziketa   |  |
|---|---|---|--|
| <b>ekainak 14 (asteartea)</b><br><b>18:00</b><br><b>5001 Gela</b>                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak</li> <li>Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.</li> <li>Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa.</li> <li>Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.</li> <li>Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa</li> <li>Industri Ekiparen Mantenimendua.</li> </ul> | <b>ekainak 16 (osteguna)</b><br><b>18:00</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazioa eta Finantzak</li> <li>Idazkaritza</li> <li>Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a</li> </ul> |
| <b>Kontsulta pertsonalak:</b>   |   |   |  |
| 943 71 21 91<br>E-posta: <a href="mailto:aarriaran@eps.mondragon.edu">aarriaran@eps.mondragon.edu</a> |   | 943 71 80 09<br>E-posta: <a href="mailto:enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu">enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu</a> |  |

# Inoiz ahaztuko ez duten garai baten bukaera

- ▶ Debagoieneko alkate gehienek bihar, zapatua, utziko dute kargua
- ▶ Egindakoarekin, oro har, gustura eta une goxoekin akordatuta doaz
- ▶ Goiena telebistan bakoitzari egindako elkarrizketak emango dituzte



Agurne Barruso. | ARRITXU BARRUSO

**AGURNE BARRUSO**  
BERGARA

## "Gaztetxoekin egin dugun lanarekin gustura noa"

"Agur esateko unean, senti-  
mentu asko nahasten dira:  
betiko martxan lan egin dugu  
azken astean; aldi berean,  
bukatu egin behar da; alde  
batetik, pena ematen du joa-  
teak, beste batetik deskantsua  
hartuko dut... Lan gogorra  
baina oso polita da norbere  
herrian alkate izatea.

Arantza moduan eraman-  
go ditut mozio etikoaren ple-  
no hura eta eskolen afera.

### Bidea, hasi-berria

Bukatu obrak egiten dira, ez  
proiektuak. Baina oso sentsa-  
zio ona daukat gaztetxoekin  
egindako lanarekin. Gaztele-  
kua bukatuta lagatzeak eta  
Bergarako Plan Estrategikoak  
sentimendu gozoak laga diz-  
kirate.

Bide bat hasi egin dugu,  
eta bide hori garatzeko gera-  
tzen da: herritarren parte-har-  
tzeari begira lehengo haziak  
bota ditugu, baina kontsolida-  
tu egin behar da; irisgarri-  
tasunean, traba arkitektoniko  
batzuk kendu ditugu; gaztee-  
kin lanean hasi gara...

Alkate izateak herria eta  
herritarrak ondo ezagutzeko  
aukera eman dit. Deskubritu  
dut zenbat jende eta zenbat  
talde dagoen lanean. Talde  
batzuek lortu dute nik euren  
jarduera maitatzea, eta lehen  
niretako ia ez zen existitzen.  
Pertsona gisa asko ikasi dit.

Ikasi dut norberak gai bat  
menderatzen ez duenean zein  
garrantzitsua den laguntza  
eskatzea, eta Bergarak ze ondo  
erantzuten duen laguntza  
eskatzen diogunean. Beraz,  
governu talde berrikoek lagun-  
tza eskatzeko beldurrik ez  
dezatela izan.

Guretako ohore bat izan  
da Bergara gobernatzea. Bada-  
kigu ez dugula denean asma-  
tu, baina erratzeko eskubidea  
aitortu genion geure buruari,  
eta pozik goaz egindako lana-  
rekin".

**INO GALPARSORO**  
ARRASATE

## "Agintaldi intentsua izan da eta lasai noa, baina triste ere bai"

"Une latz asko izan ditu agintal-  
diak. Zalantza barik, latzena Isaias  
Carrasco hil zutenekoa, edo ospita-  
lera joan eta familiak bota gin-  
tuenekoa; baina komunikabideen  
jomugan egon zenean Arrasate  
eta guk izan genuen lintxamendu  
mediatikoa ere; mozio etikoa,  
governua apurtu izana, nire per-  
sonaren gainean esan ziren per-  
gezurak, kartzela... eta udal  
honen martxa oztopatzeko egon  
diren saiakerak.

Une goxo asko ere izan ditut:  
alkate izendatu ninduten egunean  
*Txiron*-engandik jaso nuen zorio-  
na; kartzelatik bueltan bailaran  
jaso nuen ongietorria; eta une  
hunkigarri-hunkigarrienak: San  
Juan bezperan, hiru urtez nire  
dantza saiakerak txalo beroekin  
eskertu dizkidatenean.

### Denetarikoz ikuspuntuak

Udaleko atek irekitzea lortu dugu.  
Nahiz eta gutxiengoan izan, era-  
bakiak ia aho batez hartu dira,  
eta modu normalizatuan lan egin  
dugu beste alderdiekin ere.

Aldiz, ez dugu lortu erlojuaren  
eraikinean musika etxea bidera-  
tzea, ezta erdiguneko zirkulazioa  
ordenatzea ere.

Poz handiz hartu nuen alkate  
kargua, lau urtean ezker abertza-  
lea legez kanporatuta egon zelako,  
nahiz eta beste zerrenda bat hala-  
xe geratu zen.

Orain, lasaitasuna sentitzen  
dut, lau urte oso intentsuak izan  
direlako; baina tristezia apur bat  
ere bai. Hala ere, pozik noa, Bil-  
du koalizioak erreleboa hartuko  
duelako eta aukera ona delako.  
Sortu ilegalak izateak kezka sortzen  
dit, hala ere.

Urte askoan ibili naiz Udalean,  
eta beti gutxiengoan, eta alde  
horretatik orain erosoago ibili-  
ko dira. Baina Bilduk sentsibili-  
tate bat baino gehiago batzen  
ditu; bestalde, ziur nago beste  
alderdi batzuen eta herritarren  
ikuspuntuak ere batuko dituzte-  
la.

Arrasate gauza batzuetan  
hobeto dago, baina kontuan izan-  
nik egoera ekonomikoak hemen  
ere eragina duela eta langabezia  
%12an dagoela, ez nuke esango  
orain lau urte baino hobeto bizi  
garenik.

### Lehenengo inertzia

Ziur nago ez naizela Arrasateko  
azkeneko emakumezko alkatea  
izango. Ni emakume izaera horre-  
kin gobernatzen saiatu naiz; bai-  
na aginte esparruetan, gu aile-  
gatu orduko, urte askoan gizonak  
ibili izan dira, eta horrek sortu  
dituen inertzia batzuk oraindik  
hor daude, eta eragina dute gure-  
gan".

**PEDRO ITURBE**  
ANTZUOLA

## "Jendearekin oso sorpresa atseginak izan ditut"

"Erronken alde lan egitea eta  
erronkak egia bihurtu izana,  
horiek izan dira nire une  
goxoak. Baita ere egin ditu-  
dan harreman pertsonalak:  
ezagutu dudun jendea eta  
bidelagun izan ditudan guz-  
tiak. Egunerokotasunean  
ezagutuko ez nituzkeen herra-  
tar asko ezagutu ditut, eta  
sorpresa atseginak izan ditut;  
beste ikuspuntu batzuk uler-  
tzeko aukera eman dit.

Alkate izateak alde gogo-  
rrak izan ditu, bai, baina  
esperientzia polita izan da,  
eta gustura nago bere garaian  
hartutako erabakiekin.

### Aterpea eta atez atekoa

Kirol azpiegiturak oso inpor-  
tanteak izan dira; aterpea ere  
bai. Baina nabarmenduko nuke  
atez ateko zabor bilketa martxan  
jarri izana. Antzuolan iragan  
bat eta etorkizun bat markatu  
du, eta balore berriak ekarri  
ditu herrira.

Datozeneri esango nieke  
diren bezalakoak izateko, zin-  
tzoak izateko, eta une bakoit-  
zean egokien ikusten duten  
erabakia hartzeko".

**EUSEBIO VILLAR**  
LEINTZ GATZAGA

## "Garrantzitsua izan da baserrietako sarrerak egitea"

"Alkate izango nintzela jakitea  
oso gogorra izan zen niretako,  
eta lasaitasun handiz noa.

Herritarrei, batzuetan,  
ezezkoa eman behar izana da  
agintaldiko gauzarik txarrena.  
Lorpen aldetik, baserrietako  
sarrerekin gustura geratu  
nintzen.

### Erabakiaz kezkatuta

"Arau subsidiarioetan, 1986tik  
hona ez da ezer egin; herria  
fisikoki jaisten doa, eta hori  
konpontzea oso garrantzitsua  
da. Horrez gain, beste gauza  
asko geratzen da egiteko;  
larregi.

Geratu zait kezka bat: era-  
baki behar genuen urak gora  
eramatea edo herriko lanen  
3. fasea egitea. Erabaki genuen  
urak gora eramatea, eta ez  
dakit ondo erabaki genuen.

Bestalde, guk pentsatzen  
genuen harreman handiagoak  
izatea herriko taldeekin, denon  
arte Gatzaga bide bateratu  
batetik eramateko, eta ez dugu  
lortu.

Hala ere, orain herria,  
taldeak, herritarrak... oso  
ondo ezagutzen ditut".

## Goiena telebistan

Orri hauetan agertzen  
diren zazpi alkate ohiekin  
elkarrizketak eman ditu  
Goiena telebistak joan  
diren egunotan —azkena  
gaur, egubakoitza,  
emango du, Ino  
Galparsorori—, baina  
elkarrizketa guztiak  
jarraian emitituko ditu  
berri, honako orduetan:  
bihar, zapatua, 17:15ean,  
21:05ean eta 23:20ean;  
eta etzi, domeka,  
14:45ean, 18:30ean  
eta 23:35ean.

## Eskoriatzan, astelehenean

Zapatuan ez, astelehenean  
osatuko da Eskoriatzako  
udalbatza berria. Kargua  
hartu behar duten lau  
lagunek ezin dute  
ekitaldian egon bihar,  
zapatua, eta horregatik  
bigarren deialdirako utzi  
behar izan dute  
kargu-hartzea. Bigarren  
deialdia astelehenean  
izango da, 19:00etan.  
Orduan hartuko dute  
kargua zinegotzi guztiak,  
eta udalbatza osatuko  
dute.



Ino Galparsoro. | LEIRE KORTABARRIA



Eusebio Villar, Leintz Gatzagako udaletxean. | AR



Lourdes Idoiaga, Oñatiko udaletxeko alkatetzan. | LEIRE KORTABARRIA



Pedro Iturbe. | ARRITXU BARRUSO



Inaxio Garro, Aretxabaletako osoko bilkuren aretoan. | ARRITXU BARRUSO

### LOURDES IDOIAGA OÑATI

## "Ohore handia izan da lehen emakume alkatea izatea"

"Lortu ditugunetik, azpimarratuko nituzke bidegorriak aurrera eramatea eta bizikleta Oñatin txertatzea; Gizarte Zerbitzuetan jendeak asko baloratzen dituen gauzak: pobrezia-aren inguruko laguntzak, su-detektagailuak... Gauza asko egon dira. Egiteko ere asko geratu zaigu: nagusien bizitza aktiborako programa, haur parkeak kubritzea, bidegorriekin jarraitzea eta herriko bizitzari beste goxotasun bat ematea.

### Deberek eginda

Alkate izendatzeak hasieran txundidura sortzen du, baina gero konturatzen zara ohore bat dela eta herriari zor diozula. Zama bat hartzen duzu, baina segituan ahazten zaizu, asko dagoelako egiteko. Oso sentsazio handia izan zen.

Orain, egi-egia esanda, ika-ragarriko lasaitasuna hartzen dut: zortzi urte izan dira, bost oso intentsoak, eta orain, deberek eginda noa, eskerrak emanda nire lantaldeari eta herritarroi, hartzen nabilen maitasunarengatik.

### Besteei ere entzun

Gobernu talde berriari esaten diot lan gogor egin dezala, herriak asko espero duela udal gobernutik, eta esandakoak egiten saiatu daitezela, herriak merezi duelako. Esan eta egin ditzatela gauzak.

Bestalde, erabateko gehien-goia dute. Mankomunitateko esperientzia niri ez zait gustatu; zapalgailu bat izan da. Baina Oñatiko herrian hori ez da gertatuko; nik uste dut bideak ipiniko dituztela besteei ere entzuteko.

### Eli Galdos, gogoan

Oñati lehendik ere ezagutzen nuen, baina orain sakontzeko aukera izan dut eta sorpresa oso onak hartu ditut. Oñatiko jendea oso intelijentea da, arazoak bere dimentsio onean planteatzen dizkizu, eta hori izan da niretako positiboena. Izan ere, Oñatiko jendea ika-ragarria da.

Lehenengo emakumezko alkatea izango nintzela aurrean zuten 1979ko egun baten Eli Galdosek, eta kargua hartu nuen momentuan berarekin akordatu nintzen. Emakumeok daukagu entzuteko gaitasun berezia, ondokoaren lekuan jartzeko aukera, eta herritar askori horrek konfiantza edo goxotasun berezia eman dio; nik, behintzat, horrela jokatu dut. Ohore handia izan da niretako".

### ASIER AGIRRE ARAMAIO

## "Baserri Barri eta biomasaren proiektua irtengo dira aurrera"

"Une goxo asko egon dira, batez ere, jendearekin egoterakoan. Une zailak ere bai: errepidea itxita egoteak ekarri zituen kaltea eta tentsioak; bestetik, jasan nuen epaiketa, epaiketa politiko bat, eta herriko alderdiek guri babesik eman ez izana, nahiz eta zinegotziek pertsonalki akaso bai.

Lau urtean askorik egiteko astirik ez dago: adibidez, Baserri Barri egitasmoa edo biomasaren egitasmoa. Baina konfiantza guztia daukat hurrengo agintaldian irtengo direla aurrera.

### Errespetua

Alkate izendatu nindutenean Aramaioko jendearenganako errespetu handia sentitu nuen; azkenean, baliogarriena hori da, jendeari errespetua ematea eta eurek norberari diotena.

Sentsazio gazi-gozoa daukat orain. Ilegalizazioaren kontua dago, eta jarraitzeko izan ditugun zailtasunak eta presio politikoak. Hori da gatza. Goxoa da proiektu berri bat, Bildu, sortu dela, eta Aramaion bultzada handia izan duela, eta guk hasitako proiektuak aurrera jarraitzen duela".

### INAXIO GARRO ARETXABALETA

## "Urkulu eta kirolegi berria izan dira gure lorpen nagusiak"

"Bilbide oso polita eta eman-korra izan da, baina bide guztiek dute bere bukaera.

Une gozoenak dira, denboran zehar proiektu bat lantzen ibili eta gero, ikustea proiektu hori egia bihurtu dela, eta herritarrek eskertu egiten dituztela edo zoriondu egiten zaituztela.

Une txarrena izan zen Aralarren eta EAren arteko gobernua apurtu egin zenean. Horren eraginez, gure ardura eta lan-karga dezente areagotu ziren.

### Urkuluko plan integrala

Hiru lorpen nabarmenduko nituzke: Urkuluko plan integrala egin izana eta oso Urkulu ederra eta erakargarria utzi

izana; bestetik, kiroldegi berria, azaro aldera amaituko dena; eta hirugarrenik, Mondragon Unibertsitatea herrira ekartzea, eta horrekin batera Goiena.

Hirigintzako Plan Nagusia onartzea, berriz, hauteskunde osterako geratu da.

### Eginez ikasi behar izana

Niretako pertsonalki, oso esperientzia aberasgarria izan da. Alkate izan arte inoiz ez nuen izan inongo loturarik alderdi politikoekin ez Udalarekin. Eginez ikasi behar izan dut.

Gaur esan dezaket benetan ezagutzen dudala herriak zelan funtzionatzen duen; eta, bestetik, herritarren gabeziak, premiak, eskaerak... zeintzuk diren.

Alkate berriari zerbait aholkatzekotan, esango nioke jokatzeko beti irizpide berberekin; gaurko balio duen irizpidea izan dadila biharko balio duena".



Asier Agirre, Aramaioko bandera ondoan. | LEIRE KORTABARRIA



ULMA Taldea Koop. E.

Oñati

### OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIA

**Eguna:** 2011ko ekainaren 17a

**Ordua:** 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena

**Tokia:** Santa Ana antzokia - Oñati

#### GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2010eko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea.
3. 2010eko ekitaldiko kontuak onartzea.
4. Emaizak banatzeko proposamena.
5. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaien buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea.
6. POGU III eta ULMA Taldeko kooperatibetako Barne Araudi Kooperatiboko 42. eta 82. artikulua aldatzea onartzearen berrespena, hala badagokio.
7. Kontseilu Errektoreko lehendakaria berritzea.
8. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
9. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
10. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
11. Galderak eta eskaerak.

**OHARRAK:** Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak egindako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura ditzutela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

Era berean, bazkide guztien jakinarean gainean zera jartzen da, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIren aldaketan testuak ULMA Taldeko egoitza sozialean aztertzeo eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA  
Oñati, 2011ko ekainaren 3a



Jaiotzen liburu zaharrak erabiltzeari utziko diote bake epaitegiatako langileek. | MIRIAN BITERI

## Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz inskriba daitezke

Eskoriatza eta Oñatiko bake epaitegiatan asteen jarri dute martxan sistema berria

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Bergaran izan ezik, orain arte ezinezkoa izan da ume baten jaiotza, bikote baten ezkontza edo lagun baten heriotza euskaraz inskribatzea. Hori aldatzera doa orain, Debagoieneko udalek egingo eskaerari esker. Bailarako

bake epaitegiatan jakinarazi digute orain arte papereko liburu "ofizialekin" egin dutela lan, eta haiek ez zutela erregistroa euskaraz egiteko aukerarik eskaintzen, legeak aurreikusten bazuen ere.

Liburu "potolo" horiek desagertzear daude; ordenagailuak

**Aretxabaletan martxoa ezker eskaintzen dute zerbitzu hori**

erabiliko dituzte aurrerantzean horretarako, eta Jaurlaritzak horietan jarritako programak herrialdeko bi hizkuntza koofizialetan egiteko aukera eskaintzen du; hain justu ere, euskaraz eta gaztelaniaz.

### Arrasaten, datorren astean

Dena dela, bailarako hainbat herritan oraindik ez dago gertu hori. Aramaion, Antzuolan, Elgetan eta Arrasaten lanean dihardutela eta datozen asteotan egin ahal izango dela diote. Azken herri horretako bake epaitegiari baiezta digute hilaren 17an edo 18an jarriko dutela martxan; Eskoriatza eta Oñatin, ostera, aste honetan bertan hasi dira sistema berria erabiltzen, eta hortaz, aukera dago inskripzioa euskaraz egiteko.

Leintz Gatzagan eskaera egin da badute ere, oraindik ez dakite noiz izango duten gertu. Bestalde, Bergaran bi urte daramatza funtzionamenduan sistema horrek, eta Aretxabaletan aurtengo martxoaren 2an inskribatu zuten euskaraz lehen umea.

Espainiako Estatuako Erregistroen Legeak 2005ean aitortu zuen haurrak bake epaitegiari euskaraz erregistratzeko eskubidea. Kontua da gero praktikan ez dela horrela izan. Uemarekin eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin batera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek urteak daramatzate jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz erregistratu ahal izateko duten oztopo zerrenda luzea salatzen.

## Hilaren 26an egingo dute Intxortako ibilbide tematikoa

M.B. | ELGETA

Udan ere Intxortako ibilbide tematikoa bisitatu ahal izango da. Ekainaren 26an egingo dute lehena, elebiduna. Horrez gain, uztailaren 3an (euskara) eta 31n (elebiduna) eta abuztuaren 7an (euskara) eta 28an (elebiduna) ere egingo dituzte.

Mankomunitatetik gogoraz dute aurrez eman behar dela ibilbiderako izena 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakian edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbide elektronikoan. Elgetako Espaloian du abiapuntu hiru orduko irteerak.

## Arantzazutik Biozorniara arteko ibilaldia dago etzi

Etzi, domeka, Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatzen duen egitasmoaren seigarren hitzordua izango da. Santutegitik Biozorniara joango dira oinez; antolatzaileek nabarmendu dute irteera irekia dela; 09:00etarako egin dute hitzordua Arantzazuko Santutegia hotelean.



**PROIEKTUA ETA AURREKONTUA DOAN**

**Behar duzun OBRA EDO ERREFORMA DENBORA ERREKORREAN egingo dizugu.**

**ZELAIA**  
ONATI  
[www.zelaia.net](http://www.zelaia.net)

**41**  
urte  
elkarrekin  
1970-2011

**SUKALDE ETA BAINUAK**  
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

**ALTZARIAK**  
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

# AHT "gelditzeko" manifestazio nazionala egingo dute Arrasaten

Bihar 18:00etan egingo dute, Herriko Plazatik irtenda

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

AHT Gelditu Elkarlanak manifestazio nazionala deitu du bihar. Arrasaten egingo dute, 18:00etan Herriko Plazatik irtenda. Egingo duen ibilbidea izango da: Herriko Plaza, Maalako Errabala, Amaia antzokiko biribilgunea, Otalora Lizentziaduna kalea, Udala plaza, San Andres auzoa, Biteri plaza. *Tenemos argumentos para parar un tren. AHT gelditzera goaz!* lelopean egingo dute manifestazioa, eta deialdi zabala egin dute. Hain justu ere, Euskal Herriko hainbat plataforma deitu dituzte biharko manifestazio nazionalerako.

## "Aurrekontu jasangaitza"

Antolatzaileen esanetan, manifestazioaren helburuak dira: obrak gelditzea, gizarteari erabakitze eskubidea itzultzea eta egungo garraio eta lurralde antolaketa ereduaren inguruan eztabaida soziala irekitzea.

"Abiadura Handiko Trena gelditu daiteke eta geldituko dugu", esan zuten manifestazioko antolatzaileek. "Lemoiz gelditu zuten, Nafarroako goi tentsioko linea elektrikoa birplanteatu egin dute, Pasaiaiko super-portuak inoiz

baino zailtasun gehiago ditu...", esan zuten astelehenean agerraldian.

AHT Gelditu Elkarlaneko kideek gaineratu zuten bailarako gune askotan obrak hasita daudela, baina proiektu erraldoiaren zati txiki bat besterik ez dela: "Hiriburuetako sarrerak ez daude zehaztuta. Obrak ofizialki inauguratu dituzten toki batzuetan ez dituzte lanak hasi, duten aurrekontua jasangaitza delako. Gainera, lanak hasita dauden tokietan oso motel dabiltza". Bes-

talde, esan zuten AHT ingurumenaren kontrako eraso bat baino "askoz gehiago" dela: "Krisian gaude, eta ulertezina egiten zaigu diru publikoa halako proiektuekin xahutzea. Behar-beharrezkoak diren zerbitzu publikoek geroz eta baliabide ekonomiko txikiagoak dituzte, baina guk behar ez dugun proiektu bat erakitzen gastatzen dugu dirua. Onartezina da!".

Horregatik guztiagatik, "gure lurraldea defendatzeko" dei egin zieten herritar guztiei.



AHT Gelditu Elkarlaneko kideak, manifestaziorako dei egiten. | MIREIA BIKUÑA



TXOMIN MADINA

## Afrikako V. astea Arantzazun

Afrikako V. astea egiten dihardute eguaztena ezker Arantzazun, Baketik-ek eta TAU Fundazioak antolatuta. *Demokratizazioa, etnizitatea eta itzaropena Afrikan: Bubi herriaren kasua Ekuatore Ginean* gaiaren gainean hausnarketa saioak egin dituzte egunero. Bihar, Afrikako V. astearen azken ekitaldiak egingo dituzte: alde batetik, Mbuy Kabundaren hitzaldia entzuteko aukera egongo da (11:30), eta, beste alde batetik, Oskar Epeldek egindako dokumentala estreinatuko dute (12:30).

## Euskadiko 176 establezimenduren energia gastua aztertuko dute, gero neurriak hartzeko

M.B. | ARRASATE

Euskadiko Komertzianten, Ostalari eta Enpresaburuen Elkarrekin Konfederazioak, Euskal dendak, hainbat establezimenduk duten energia gastua ikertuko du. Alegia, eraginkortasun energetikoaren gaineko ikerketak egingo ditu. Guztira, 176 komertzio ikertuko dituzte;

eta Arrasate, Bergara eta Oñatikoak ere badaude.

### %20 aurreztu

Ekimenaren helburua da elektrizitate fakturan %20 aurrezteko har daitezkeen neurriak zehaztu, eta komertzioetan nola aplikatu daitezkeen ikustea.

**Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa**

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

www.debagolena.net

ESKAINNTZA

- Mekanizatuko Langilea
- Sukalde eta Zerbitzuko Langilea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira. Horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

PRAKTIKAK

2. mailan 300 ordu baino gehiagoko praktikak enpresetan.

TITULAZIOA

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak izenpetutako ikasketa ziurtagiria.
- DBHko Graduatuaren Titulua eskuratzeko aukera.

S  
U  
K  
A  
L  
D  
A  
R  
I  
T  
Z  
A

M  
E  
K  
A  
N  
I  
K  
A

MATRIKULAZIOA

Ekainaren 27tik uztailaren 8ra, 09:00etatik 12:30tara.

LANBIDE (INEM) PAREAN DAGOEN ERAIKUNTZAN

FONDO SOCIAL EUROPEO

Arizmendi ikastola

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA
Nafarroa etorbidea, 21
20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)
Tfnoa. 943792890

## ZABALIK

IÑAKI PEÑA

'http://goiena.net/iritzia/'



## Duintasun bidea

Errespetua. Horixe da Kepa Elortza paziente oñatiarrak jaso ez dauana. Dakizuenez, hizkuntza eskubideak gogor defendatzen dabil Osakidetzan baita eta bere kasutik abiatuta Behatokiak dokumental ederra prestatu dau, *Duintasun bidea* izenburukoa hain zuzen be. Berton, Juanjo Sagartzazu neure lankideak modu ausartean parte hartzen dau, eta berak legez neuk be neure burua *busti* nahi dot gai honetan.

Dokumentalean agertzen diran datuen artean, Debagoieneko ospitalearen zuzendaritzak Elortza jaunari emondako erantzun lotsagarria dago. Buruzagi (erdaldun) asko oraindino ez dira konturatzen euskarazko asistentzia eskaintzea,

batez be eremu geografiko batzuetan eta batik bat adin tarte konkretu batzuen pazienteei, kalitatezko asistentzia emotea dala, eta kontrakoa geure gizarteko zati ez hain txiki bateri huts eta iruzur egitea dala. Izan be, harrigarria da erdaldun batzuen erradikaltasuna ikustea, gitxieneko errespetua eta gizalegearen ganetik dagoana. Neure esperientzia pertsonalean behin Polizia Nazionaleko bulego batean (!) hango funtzionario batek barkamena eskatu eustan gazteleraz atenditzearren eta euskaraz zekian bere lankide baten zerbitzua eskaini eustan. Adibide isolatua izango da noski, baina tristea da osasun sistema publikoan horiek bezalako erantzunak askoz sarriagotan ez izatea.

Halaber, ume euskaldunak ditugun guraso euskaldunok Pediatria kontsultetan oso nekez lortzen dogu mediku edo erizainek euskarazko berbak erabiltzea euren paziente txikiekin. Eta adineko jenteagaz bardin.

Beste sasoi batzuetan gizarteak orokorrean gehiago errespetatzen zituan agure-atsoak, baina norabide bietan gertatzen zan begirune hura: *"Sendagileei berorika egiten genien, baina hori sendagileek euskaraz egiten zuten garaian gelditu zen"* (3 *Mariak*, Arantxa Urretabizkaia).

**"Harrigarria da erdaldun batzuen erradikaltasuna ikustea"**

## USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | 'marregi@goiena.com'

## '#Pintxotuit' 2.0

O hiko pintxo poteo tradizionalak ezin izan die ukorik egin teknologia berriei; sare sozialetan murgilduta, hilaren 16rako *#pintxotuit* txiokatu dute Twitterren.

Debagoieneko *twiteroak* eta euskal komunitateko zenbait *twitero* dagoeneko animatu dira *#pintxotuit #e16* deialdira! Eta, nola ez, Facebook sare sozial arrakastatsuan ere baduzue deialdia iragarrita: *I. Pintxopote twitteroa Arrasaten*. Tartetxo hau irakurtzen ari bazara eta sare sozialetan murgildu nahi baduzu, animatu eta zatoz! Lehenengo deialdia 18:30ean Monte tabernan; bigarrena, berriz, 19:30ean Mondragon Hotelean.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Angiozarren, Darwinekin

Joxe Aranzabal

'http://goiena.net/blogak/farao/'

Atzo Angiozarren izan nintzen, Bergaran, bertan lurperatu zuten eta Rufina Zubierrementeria, Zabaleta baserrikoa, emakume berezia inondik ere: irekia, alaia, eskuzabala...

Laurogeita hamalau urterekin hil zen, eta, albistea jakin bezain laster, erabaki nuen hara joan behar nintzela, Rufinari agur esatera.

Elizara iritsitakoan, bertan sartu nintzen, meza hasita zegoen eta.

Eliza barruan, gogoak ekarri zidan bezperan ikusitako filma, *Creation*.

Bertan ikusten zen zelako drama bizi izan zuen Charles Darwin-ek eboluzioaren teoriar barneratu ahala, teoria hark albo batera uzten baitzuen Jainkoa, ezinbestekoa, bestalde, bere emaztearen bizitzan.

Bitxia izan zen, zeren abadeak ere gogoan izan zuen Darwin, birritan aldarrikatu baitzuen Jainkoaren egitekoa mundua sortzerakoan, eta

birritan baztertu eboluzioaren egitekoa.

Elizkizuna amaituta, autorantz nindoala euripean, Rufina zenaren erretratoa ikusi nuen eskela batean, horman, eta haren irribarrearekin itzuli nintzen etxera, Darwini erakusten nizkion bitartean gure arbasoen parajeak.

## Abangoardia zementuan

Iker Blas

'http://argia.com/iparra-hegoan/'

Zementu eta adreiluan oinarritutako modernitateak giro berezia ematen diote Medellini.

Kolonbiako metro-sare bakarra hemen aurkitzen da.

Bidea lur azaletik egiten duten bagoiak landaredi berde trinkoaren eta hiriaren arteko bategitea aztertzeo tresna ezin hobea dira.

Dagoeneko jakin banekien *paisak* (horrela esaten diete Antioquia eskualdekoei) Kolonbian harrotasun handiena dutenak direla.

Horregatik, nirekin autobusean zetorren

gizonari, Medellin bidean bota diodan galdera tranpatia izan da: nolakoak dira Medellingo pertsonak? bota diot eta berak "gu pertsona oso harroak eta langileak gara, Espainiako katalanak bezalakoak" erantzun du.

Hori gehitxo esatea ez ote den pentsatu eta konparazioa positiboa ote den hausnartu dut segundo batez.

Bestalde, eta egia bada ere, Medellinek Bilbo bezalako metamorfosia jasan duela esan daiteke.

Medellinek Bilbo bezala industria transformatu behar izan zuen hiriari irudi berri bat emateko.

Hemengo industria ordea, narkotrafikoan oinarritzen zen.

Hori bai, Bilbo bezala, irudi berriaren eraikuntzan, metroa ezarri zuten *paisen* hiriburuan.

Hiri metamorfosi horrekin zerikusirik handiegirik topatzen ez diodan zerbait da hiriko txoko guztietan ikusi daitekeena: azal iluneko polizia gazteak eta prostituta gazte eta lirainak.

Baliteke horrek klima tropikalarekin zerikusia izatea, nork daki.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Eredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziertra Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
**ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:** Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com


**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 1577-1210  
**Tirada:** 20.100 ale.  
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Bergarako zinegotziek alkate andreari

**German Muruamendiaraz, Juanjo Arrieta, Arantzazu Amasorrain, Rafa Amasorrain, Maite Barrena**  
(Bergarako EAJko zinegotziak) Bergara

Joan den astelehenean, maiatzaren 30ean, ospatu genuen legealdi honetako azken osoko bilkura Bergaran.

Guk ezer jakin gabe, inork ez baitzigen ezertxo ere jakinarazi, azken osoko bilkura agurtzeko zenbait ekintza artistiko antolatu zituen Udal Gobernuak.

Jakin izan bagenu, modu berean agurtzeko aukera izango genukeen eta benetan sentitzen dugu horrela ez izana.

Besteekin ezertarako kontatu gabe joko eta eremua aukeratzeak zenbait abantaila ematen ditu, eta halaxe ikusteko aukera izan genuen joan den astelehenean.

Harrituta gelditu ginen alkate andreak egin zuen legealdiaren balorazioarekin: partziala, kritikoa, zeharkakoa eta erabat politizatua.

Bere ustezko lorpenak azpimarratu zituen beste ezer eta inor kontuan hartu gabe.

Ez zituen aintzat hartu, ezta ere, legealdi honetan izan diren baldintza bereziak eta historia.

Osoko bilkura aretora gerturatutako jendearen gureganako erreakzio gogorak ere harritu egin gintuen eta guk kanpainan zehar banatutako propagandaren gaitzespena ere jaso genuen.

Guk banatutako komikiak, umore klabeen idatzitakoa edozein kasutan, ez genuen uste hainbeste jenderen sentimenduak kaltetuko zituenik.

Bada, hala izan bada, berriro ere barkamena eskatu nahi diegu kaltetutakoei.

Aldi berean, alkatesa andreak guri barkamena eskatu beharko ligukeela pentsatzen dugu, azken osoko bilkura horretan bota zizkigun irainak bota eta gero.

Behin eta berriz gezurtiak garelara esateaz gain, legealdian zehar geuk egindako lanari buruzko txantxak egin baitzituen.

Idea desberdinak izan ditzakegu eta hala ditugu.

Gure ideiak aurrera eramateko lana gogor egin dugu, baina, alkatesa andrea, ez ezazu mespretxurik erabili zuregandik desberdin pentsatzen dugunon aurka.

Hori ez da joko, ezta jokamoldea ere...

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bame) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## Zorionak!

**Inma Beristain**  
(Antzuolako Bildu) Antzuola

Idatzi honen bitartez Antzuolako Bilduk zorionak eman nahi dizkizue joan den igandean Bilduk lortutako emaitza ikaragarrien parte izan zareten guztioi!

Maiatzaren 22an asko zegoen jokoan, bai Antzuolan eta baita Euskal Herrian ere.

Ezkertiar eta abertzaleon elkarlanerako apustuak, Bilduren eskutik, ilusioa piztu du.

Eta guztion artean aurrera begirako oinarri sendoa jarri dugu.

Antzuolako hautetsioak oso kontziente gara eskaini diguzuen konfiantzaz eta ondorioz dagokigun arduraz.

Udaleko lantaldeak ahalik eta anitzenak izaten saiatuko gara, lortutako helburu edo emaitzak askoz ere aberatsagoak izan daitezen.

Antzuola herriari aurreranzko beste bultzakada bat emateko, guztioak parte hartzeko garaia da.

Gerturatu eta parte hartu!

Hobetu dezagun Antzuola!

## Eskerrik asko, Elgeta

**Janire Lazkano**  
(Elgetako Bilduren izenean) Arrasate

Mezu honen bidez Elgetako Bildu osatzen dugunok eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen konfiantza eta babesa eskaini diguzuen herritar guztioi, zuei denoi esker iritsi baikara horren emaitza ikusgarriak lortzera, herri zein nazio mailan; zorionak, denoi!

Era berean, lau urte hauetan (udaletxe nahiz kalean), gure programa aurrera eraman ahal izateko lan egiteko hartu genuen konpromisoa berresten dugu.

Orain arte gure alkategai izan den Koldo Goenagari gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu egin duen lanagatik, eta hauteskundearen ostean kargua uzteko hartu duen erabakia

errespetu osoz onartzen dugu.

Hasiera batetik esan genuen bezala, talde lana izango da gure jarduteko modua; horregatik, gure animo eta babes guztia eskaintzen diogu zinegotzi kargua hartuko duen Eneko Aranzetari.

Herriarentzat eta herriarekin lan egin gura dugun lantaldea gara; lau urte hauetarako gure helburu nagusia udaletxeko ateak herritar guztiei era garden batean zabaltzea izango da.

Gure herriaren egoera hobetu nahian elgetar guztioi auzolanera biltzeko deia luzatzen dizuegu, denon artean Elgeta berri eta burujabe bat lortuko dugulako.

Eskerrik asko, Elgeta!

## Ohorea izan da, Arrasate

**Izadi Mondragon, Juan Mari Sanpedro, Yolanda Perez de Arenaza, Arkaitz Biain, Oihana Aranburu, Patxi Arburua eta Ino Galparsoro**  
Arrasate

Azken lau urteotan, idatzi honen atzean gauden zazpi pertsonon testu eta mezuak oro har politikaz edo herrigintzaz mintzatu dira, Arrasate, Euskal Herria, gatazkak, proiektuak, asmoak, lana...

Bidaia luze baina aldi berean motza izan da; abentura oro lez, emozioz betea, sarritan malkartsua gutxitan eroso, paisaia eder nahiz idorrek ikusgai, nekea eta ilusioa hurrenez hurren.

Bidelagun eta ez horren lagunak ere alboan izan dira ibilbide guzti honetan zehar, eta lehenengo horiei zuzenduta doa honako eskutitz hau.

Herritarrak izan dira Gobernu Talde honen bidelagun eta konplize nagusi legealdi honetan, proiektuak errealitate bihurtzeko orduan, momentu zailenetan babes, eta momentu zorionsuenetan irribarre.

Honegatik guztiagatik, beraien pazientzia, errespetu eta sostenguagatik, mila esker, gaizki egindakoak barkatu, eta ondo egindakoak kontuan hartu.

Baina bereziki lerro hauek, bidelagunetik haratago, bidaia honetan momentu oro, erregai, helduleku, noizean behineko GPS, eta gure buruhauste, ezinegon, atsekabe eta haserrean aurrean, aterpe izan zareten seme-alaba, bikotekide, familia eta lagunei eskaini nahi dizkiegu, mila esker bihotzez.

Aurreko hauen artean bada aipamen berezia merezi duen pertsona bat, Xabier Zubizarreta, *Txiron*.

Koloretako koadroak maite dituen edukien artista ez margolaria, hitzen sukaldaria, arbigaren militantea, Arrasate eta Euskal Herriaren maitale sutua, eta aurretik ere nahikoa izan ez badu, azken lau urteotan, beste pasio batzuk alde batera uzteko inolako arazorik gabe, edozein momentutan edozertan laguntzeko prest egon den ezinbesteko laguna.

*Txiron*, balio dezala honek ere, "puntu eta komarik" gabe eta zutabe bakarrean, gure esker ona zuri adierazteko.

Garai ilusionagarriak bizi ditugu, baina ez da inondik inora erosotasunean erortzeko momentua.

Euskal Herrian apustu garrantzitsuak daude mahai gainean, ez zaigu lanik falta izango.

Azken lau urteetako Ezker Abertzalearen hautetsioi dagokigunez, zoritxarrez baino gehiago, erabaki politikoz amaitu da Arrasateko Udaleko gure ibilbidea.

Beste herritar askori bezala hauteskundeetan aurkezteko ateak itxi zizkiguten, eta hau ere ez da albo batera uzteko kontua.

Edozelan ere, bizitzak bezala Arrasateko Udalak aurrera egingo du, eta gidaritzarik ez zaio falta izango.

Bilduren olatua ere iritsi da gurera, eta hemendik gure animoak bidaltzen dizkiegu Arrasate eta Euskal Herriaren alde lan egiteko hautua egin duten hautetsi berriei.

"Boliek" aurrera jarraituko duen zalantzarik gabe, agurtzen gara, mila esker berriz ere guztioi, eta gogoratu guztion esku dagoela ametsak errealitate bihurtzen jarraitzea.

## Eskerrik asko, bergarrei

**Agurne Barruso**

(Aralarko eta Ezker Abertzaleko Gobernu Taldeko zinegotzien izenean) Bergara

Gutun hau argitaratzen denerako legegintzaldia bere azken txanpan egongo da.

Lau urte hauetan Gobernu Taldea osatu dugun zinegotziok kargua utziko dugu larunbatean.

Batzuk, guk hala erabakita. Zortzi urteko ibilbidea egin dugu Udalean Aralarko zinegotziok eta gure fasea bukatu dela erabaki dugu.

Ezker Abertzalekook Euskal Herrian bizi dugun eskubide zibil eta politikorik ezak behartuta utziko dugu kargua. Bergararrek jarri gintuzuen gobernuan eta errespasioak kendu gaitu kargutik. Ez zuek eta ez guk erabakitze eskubiderik izan gabe.

Batera ala bestera kargua utzita ere, lau urte hauetan jaso dugun babesa eskertu nahiko genizueke bergarrei.

Ohorea izan da guretzat Bergararentzat zuekin batera lan egitea.

Zuekin lan egin dugula esan dugu, hala sentitu dugulako. Bergarar asko izan zarete zuen iritziekin, ekarpenekin, kritikekin, lanarekin eta parte hartzearekin gurekin batera jardun duzuenak herriko gobernantzan.

Egin dugun lana ez dugu guk bakarrik egin. Benetako auzolana egon da legegintzaldi honetan Bergaran.

Laguntza dezente eskatu dugu legegintzaldi honetan. Garbi geneukan Bergararen alde lan egiteko proiektu politiko bat eta programa bat bagenituela; baina aldi berean gauza guztietan aditu ez ginela ere bagenekien. Horrelakoetan, zuengana jo dugu eta beti aurkitu zaituztegu zuen onena emateko prest zeundeten bergararrak.

Polita izan da Bergararen alde lan egiteko izan dugun aukera. Gogorra batzuetan, liskartsua beste batzuetan, baina aberasgarria eta ederra denetan.

Ohorea, azken finean.

Gu herrigintzako beste arlo batzuetara joango gara lanera orain. Seguru gaude langintza berrian zuek askorekin egingo dugula topo berriz, eta hala nahiko genuke, gainera.

Bukatzeke, zorte on, korporazio berria osatuko duzuen zinegotziei, eta eskerrik asko, bihotz-bihotzez, zuen laguntza eman diguzuen bergarar guztiei.

Biba zuek!

**Rafaela Romero** | Gipuzkoako Batzar Nagusietako jarduneko presidentea (PSE-EE)

# "Bakea eta normalizazio politikoa lortzeko urrats handiak egin ditugu agintaldi honetan"

- Isaias Carrascoren erailketa bere "bizitzako unerik gogorrena" izan dela dio Romerok
- "Arrasaten sozialista izatea ez da samurra; espero dut hori ere normalizatzen joatea"

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Rafaela Romero (1972) Badajozko Quintana de la Serenakoa da jaiotzez, baina urtebeteko umea zela etorri zen Arrasatera eta han bizi izan da 24 urterekin ezkondu zen arte. Zuzenbide ikasketak ditu eginak, zinegotzi izana da Mondragoen eta baita Pasaian ere. Azken agintaldian Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea izan da. Jesus Egiguren euskal sozialisten presidentea du senar.

**Lau urte eman dituzu Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente moduan. Ze balantze egiten duzu?**

Gipuzkoaren errealitate politiko eta soziala ezagutzen lagundu dit. Hobeto ezagutzen dut orain lurraldea. Askoz ere tolerantetagoa eta adeitsuagoa izaten ikasi dut; egia ez dagoela alde batean edo bestean, baizik eta, gehienguan, erdian; albokoa entzuteko eta enpatiarekin begiratzeko gaitasuna areagotu egin dut... Eta, ezeren gainetik, nabarmendu gura dut talde guztiok bat etorri garela giza eskubideak defendatzerakoan, edo giza eskubideen urraketa salatzerakoan, batik bat terrorismoak sortutakoa. Baita bestelako biolentzien, guztien, salaketa egiterakoan ere.

**Une gazirik?**

Agintaldi honetako ETaren erailketak. Bereziki, Isaias Carrasco lagunarena. Ezin ahaztu, era berean, Inaxio Uriaren erailketa ezta gainerako biktimak ere. Biolentzia matxista sufritu dutenak... Halere, hori esanda, nabarmendu gura dut bakea lortzeko aurrerapauso handiak eman ditugula agintaldi honetan. Gaur egun, gutxiagok justifikatzen dute biolentzia.

**Isaias Carrascoren laguna zinen. Gogorra izan zen hura...**

Bai, 16 urterekin sartu nintzen sozialista gazteen erakundean eta 18 urterekin PSE-EEen. Arrasaten sozialista izatea ez da samurra... Espero dut hori ere normalizatzen joatea eta ideologia guztiak errespetatu daitezela, ez bakarrik alderdien estatutuetan, baizik eta baita kalean, praktika politikoan... 1993an-eta, Isaias Carrascok asko lagundu zidan.

**Carrascoren azkeneko uneak hurbil-hurbiletik ezagutu zenituen...**

Bai, hauteskunde kanpaina zen eta arrosak banatzen ibiliak ginen merkatu txikian. Halako batean, alderdikide batek abisatu zigun: "bi tiro eman dizkiote Isaiasi".

Bertara hurbildu eta han ziren senideak. Nire bizitzako unerik gogorrena izan da.

**Itzultzen zara Mondragoera?**

Bai, bi anaia ditut: bata, Aramaion bizi da; bestea, Eskoriatzan. Baina bietako batek etxea du Arrasaten eta sarri joaten gara. Alain eta Irene lobak bisitatzen, nire herriaz gozatzen...

**Duela lau urte sozialistok izan zineten nagusi Gipuzkoan. Oraingoan, Bildu. Ustekabea izan da?**

Nire herriaren errealitate soziologiko eta politikoa nahiko ondo ezagutzen dudala uste dut. Bilduk horrenbeste igo duela? Bai, baina besteok galdu egin dugu. Denborarekin, dena bere onera etorriko da eta egoera normalago batera itzuliko gara.

**Sozialisten porrota?**

Politika, jeneralean, herritarrengandik urruntzen doala iruditzen zait. Desenkantu bat dago. Horregatik, jende asko etxean geratu da, bozkatzera joan barik. Bestetik, 15-M mugimenduak edo haserretuenak ere izan du eraginik, hemen txikiagoa izan bada ere. Eta krisiaren eta beroni aurre egiteko Espainiako gobernuak hartutako neurrien faktura ordaindu dugu. Azken-azkenik, nire iritzi pertsonala da: euskal jendarteak zigortu egin gaitu interpretatu duelako bakearen alde ahal dugun guztia egin beharrean, trabak jarri ditugula. Aurreko hauteskundeetan bakearen alde eginagatik saritu gintuzten moduan, oraingoan, kontrako geratu zaigu.

**Eusko Jaurlaritzan gobernatzen egoteak eta PPrekin ituna egin izanak zerikusirik izan du sozialisten boto galeran?**

Kontu bat da alderdia bera, eta beste bat jendarteak ikusarazi izana PPrekin daukagun ituna Jaurlaritzan, bakearen aldeko traba moduan. Edozelan ere, uste dut ona dela euskal sozialistok eta popularrek Eusko Jaurlaritzan sinatutako ituna: askatasunaren aldeko ituna. Sozialistok Euskadirendako geneukan proiektua gidatzeko beste babesik ez genuen izan popularrena baizik. Aukera bakarra izan zen. Askatasunaren aldeko ituna ona izan da egoera normalizatzen laguntzeko. Nahiz eta, berez, politikoki, oso itun logikoa edo naturala ez izan.

**Bilduk gobernatuko du Gipuzkoan eta Donostian?**

Bozketek hori erakutsi dute eta bozketen osteko harremanek ere bai. Politika egiteko ikuspegi bi daukagu: Bildurena eta bestena. Bilduk irabazi du hainbat



Rafaela Romero mondragoetarra. | RAFAELA ROMERO

**"Talde guztiok bat etorri gara giza eskubideak defendatzerakoan"**

**"Jendarteak interpretatu du trabak jarri ditugula bakea lortzeko"**

**"Euskal sozialista naiz, 'vasquista' deitzen den horietakoa"**

proiektu estrategikori ezetz esan ostean. Baina irabazi egin du. Herritarrek eman diote babes handiagoa besteoi baino. Bestalde, EAJk, bigarren indarra izanik, erabaki du Bilduren alde egitea eta besteokin akordio globalik ez egitea. Ondorioz, Bilduren herri ereduaren eta eredu ekonomiko eta sozialaren alde egin du.

**Harena da erantzukizuna?**

Bai. Ezin daiteke arrautzak bi otarretan aldi berean jarri, botereari eusteko. Akordio globalak behar dira, hasi udaletatik eta goraino, foru aldundietaraino. EAJk ez ditu irabazi hauteskundeak; hortaz, ez dauka besteok baino legitimitate handiagorik bere hautagaiak aurkezteko. **Zer iruditzen zaizu Odon Elorzaren amaiera eta amaitzeko modua?** Gaur egungo politikari falta zaizkio lehengo hausnarketa, moderazioa, lasaitasuna... Guk ere autokritika egin beharko genu-

ke, hobe egin genezake, Elortzaren amaiera eta irteera beste modu batera egiteko. Hura izan baita Donostiako alkaterik onena... Hori esanda, ezin dezakegu ahaztu EAJk eta PPK Elortzaren burua eskatu zutela, ezertan hasteko. Ez dut uste hori denik modurik onena aitortzeko Donostiako alkaterik onena izan denaren lana. Eta, bestalde, alde aurretik ez dugu jakin izan zein den gure aurkari politikoa; gure inkestek, gure soziologoen, ez dute hori aurreikusi.

**Alderdiek eskatu diote ETari desagertzeko, baina gainerako agenteek, alderdi politikoek mugitu beharrik ez dute?**

Ordua da bakoitzari erantzukizunak eskatzeko. Euskal jendarteak ere eskatuko digu. Baina denoi ez dagokigu modu berean; ez daukagu erantzukizun bera. Ezker abertzaleak eskatu behar dio ETari desagertzeko. Ezker abertzaleak, biolentzia errefusatzearaino, bere oinarri ideologikoan sozializatu behar du mezua. Errespetu handiagok bizi gaitzen denok. Ezker abertzaleak biolentzia errefusatu, alboratu eta soilik bide politikoan alde egin izana lortu dugu denon artean. Jendarteak lortu du, biolentzia deslegitimatuzko politikek lortu dute... Adiskidetzen eta bata besteri entzuten jakin behar dugu. Ezin dira biolentzia mota guztiak parekatu, baina denok sufritu dugu biolentzia. Beharrezkoak dira memoria plurala eta egiazkoa eraikitzea, mahaia-aren inguruan eseri eta ezberdinen artean berba egitea...

**Ezker abertzalearekin akordiotara hel zaitezke aurrerantzean?**

Etorkezinean bai. Aurretik esandako guztiak egin ostean, berba egingo dugu politikaz, akordio globalak, itunez... Bitartean, akordio puntualetara heltzea normal moduan ikusi beharko genuke. Ezkerreko bi alderdi gara.

**Egiguren edo Ares. Estrategia politikoari dagokionez, zeinengandik zaude gertuago?**

Euskal sozialista naiz. *Vasquista* deitzen den horietakoa. Gipuzkoako sozialisten espirituko. Hauteskundeetako azkeneko porrotaren ostean, agian, alderdiaren sentsibilitate ezberdinei entzun eta aldatu beharko genituzke...

**Ulertu behar dugu euskal sozialisten presidentearen tesietatik gertuago zaudela.**

Sozialismo gipuzkoarretik bereziki.



Nabarmendu egiten zara, erakargarria zara, gustagarria zara. Denek zuzan jartzen dituzte begiak, estilo guztia eta ausardia-puntu bat duzulako. Urrats bat aurretik zabilta beti. Nola egiten duzu? **Zuk egiten duzu Kibuc.**

# ZU zara sedukzioa



gutxieneko prezioa bermatuta



## 1.583 €

131,92 € x 12 hilabete interesik gabe\*



3D proiektuak doan

## KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 [gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com)



Proiektu eta eraberritze integralak

## KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

**Trazos programa** Linea estilizatu apainak dituen proposamena, zure nahi eta gozoetara egokitzen den diseinu eksklusiboarekin. Akaberrak: zerbino, lakatu mate gorria eta kristal zuri serigrafiatua. Neurria: L 393 zm.

Adierazitako akabera eta neurrirako balio duen prezioa. BEZ barne. \*Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

## DUELA 10 URTE

2001-06-07

## Udalak erasoak gaitzetsi zituen

Ekainaren 3ko goizaldean gertatu ziren erasoak, eta hilaren 7an Udalak gaitzetsi egin zituen erasoak, mozioa onartuta.

EAJ-EA, PSE-EE eta PP alderdien oniritziarekin onartu zen mozioa, non "biolentziarik gabeko etorkizuna" aldarrikatzen baitzen. EH abstenitu egin zen.

Erasoen harira, kaltetuen 20 salaketa egon ziren: 15 auto, hiru banketxe, postetxea eta optika bat.



BCHko kutzazaina erre zuten orduan. | GOIENA

2001-06-14

## Zazpi atxilotu Debagoiengan

Espainiako Poliziak zazpi lagun atxilotu zituen Debagoiengan, goizaldean, ETAko kide izatea leporatuta.

Arrasaten, Aramaion eta Gasteizen egin ziren atxiloketak. Atxilotuen etxebizitzak arakatu zituen poliziak. Donostia komandoko kide izatea leporatu zieten. Mariano Raxoik, Barne ministroak, esan zuen miaketetan 35 kilo dinamita eta detonagailuak aurkitu zituztela.

## DUELA 5 URTE

2006-06-09

## AHT egiteko desjabetzeak

Abiadura Handiko Trena egiteko desjabetzeak martxan jarri ziren, eta, horren ondorioz, lurjabeak AHT auziaren protagonista bilakatu ziren.

Kaltetuek eta Udalak salatu zuten Espainiako Gobernuak ez ziela informaziorik ematen. Informazioa "tantaka" jasotzen zutela esan zuten.

## BERGARA

**Ana Orgaz** Hasierako urteetan Bergarako gizarte mugimenduen sortzaileetariko bat izan zen Orgaz, hark nahi barik; gaur egun, ostera, arlo kulturalean gehiago mugitzen dela dio. | ASIER ALKORTA

# "Bergararrek nire herria zein zen konturatzen lagundu didate"

**D**uela 50 urte heldu zen Bergarara. Eta urte hauetan guztietan ez da geldu egon. Batean eta bestean, gizarte arloan zein arlo kulturalean, beti izan du zer egin Ana Orgazek (Salamanca, 1945). Bizi osoa Bergaran daramala badirudi ere, ez da horrela. Hala ere, kanpotik etorri bazen ere, di-da batean egin zen herrira. Egindako guztiarekin harro dago eta 50 urteotako ibilbidea elkarrizketa honetan laburbiltzen saiatu da.

**Bergarara heldu eta zein izan zen herriari buruz izan zenuen lehenengo iritzia?**

15 urterekin etorri nintzen, eta, autobusetik jaitsi nintzen momentuan, hizkuntzak, euskarak erakarri zuen nire arreta. Ez nuen ulertzen jendeak ze hizkuntzatan hitz egiten zuen. Nik uste nuen Espainiara nentorrela eta bat-batean ez nekien non nengoen ere. Sorpresa hartu nuen.

**Baina herrira segituan egin zinen, ezta?**

Hasieran kostatu egin zitzaidan. Izan ere, nik Salamancan kalean egiten nuen bizitza gehiena eta hemen etxe baten sartu nintzen, umeak zaintzen, 18 urte bete arte. Behin adinez nagusi nintzela, lantegian hasi nintzen lanean.

**Herrira eginaz batera elkarrekin parte hartzen hasi zinen?**

Hasieran JOC (Juventud Obrera Catolica) elkarrekin sartu nintzen.

Elkarte honen helburua meategian lan egiten zuten gazteei kultura maila bat ematea zen. Formakuntza sistema bikaina zuen: ikusi, epaitu eta ekin egiten zen. Lanerako eta gizarterako kultura ematen genien elkarreko kideei. Astero elkartzen ginen eta bileran bakoitzak arazo bat mahairatzen genuen. Gero, arazo horren aurrean irtenbideak bilatzen saiatzen ginen. Interesgarria zen.

**Nolako zen hain gogorra zen garai hartan gizarte gaiak jorratzen ibiltzea?**

Denaren gainetik, arriskutsua zen. Edozergatik kartzela zigorra ezartzen zen eta kontuz ibiltzen ginen. Niri, kasu askotan, nire karnetak askotarako balio izan zidan. Salamancan jaiotakoa nintzela ikusten zutenean ez nintzela arriskutsua uste zuten.

**Salamancatik etorri eta Bergarako gizarte eta politika gaiak lantzen hasi zinen?**

Bai; dena kasualitatez izan zen. Kasualitatez etorri nintzen eta hortik aurrerako guztiak gertararak izan dira. Sindikatuen sorrera, kooperatibena,...

**Eskerrak zure karnetari.**

Egia da, horrek askotarako balio izan dit. Dena delitua zen-eta. Egia esan, gaur egun ere, duela gutxira arte, egoera antzekoa izan da hemen, zoritxarrez. Erregimenaren jazarpena askok sufri-

## HERRITARRAK



Ana Orgaz, Bergarako Simon Arrieta parkean. | ASIER ALKORTA

**"Herriaren eta, oro har, herrien askatasunean sinisten dut"**

**"Arteak sormena lantzeko balio izan dit eta hori irakasten saiatzen naiz orain"**

tu dute bertan. Hori penagarria izan da.

**Eta gutxinaka-gutxinaka joan zinen gizarte gaietan gehiago sakontzen?**

Gero, kooperatiben sorrera etorri zen. Hasiera baten ez nuen argi ikusten kooperatiben gaia, baina azkenean barruan amaitu nuen. Klandestinitatean lan egiten jarraitu nuen.

**Zergatik parte hartu zenuen mugimendu haietan? Zer lortu nahi zenuen?**

Bergararrek Euskal Herria, hots, nire herria, zein den konturatzen lagundu didate. Eta adierazpen askatasuna bermatuz, nire herria defendatzea eduki dut helburu. Herriaren eta, oro har, herrien askatasunean sinesten dut. Etxean ere errepublikaren aldekoak ziren, eta odolean daramat.

**Eta bide horretatik, beti interesatu zaizkizu gizarte gaiak?**

## NIRE HERRIAN

## ELKARLANERAKO SENTIMENDUA

Bergaratik gehien gustatzen zaidana da elkarlanerako dagoen jarrera. Elkarlanean gauza asko lortzen dira eta herri honek ezaugarri hori dauka. Kultura arloko elkarteak eta bestelakoak sortu egin behar dira eta herri honetan lan hori ondo egin da. Bergararrek beti erakutsi didate aurrera egiteko daukaten grin hori.

## JARRERA ITXIA IZATEA

Askotan, bertokoa onena dela pentsatzea arriskutsua izan daiteke. Bergararrek kanpotik datozen ideiei irekita egon behar dute. Azken finean, kultura guztiak gauza onak ere badituzte eta horiei guztiak zabalik egon behar dugu. Izan ere, jarrera itxia izateak askotan ezjakintasunera eraman gaitzake.

Beti. Gizarte gaiak jorratu diren bakoitzean han egon naiz beti. Kooperatibak ere gogotik bultzatu ditut. Gaur egun kooperatiben alde gehiago egin behar dela uste dut. Sistema hori bultzatu behar da eta oraindik alor horretan egiteko asko dago.

**Nahaspila horretan sartuta, zein izan da zure ihesbidea?**

Artea. Gutxinaka hasi nintzen artean interesatzen eta asko gustatzen zait. Behin umea eduki nuenean, ez zidaten lanean jarraitzen utzi, orduan etxean lan egitera joan behar genuen emakumeok, derrigorrez. Orduan hasi nintzen artean sakontzen. Denetik pixka bat eginda, nire formakuntza betetzen saiatu naiz.

**Eta gaur egun zer egiten duzu?**

Niri arteak sormena lantzeko balio izan dit eta gainerakoei ere hori erakusten saiatzen naiz. Horregatik antolatzen ditut tailerrak eta bide horretatik jarraituko dut.

# HERRIAK



Herritar bat, AEDk askatutako liburu bat jasotzen. | IMANOL GALLEGU

## ARRASATE

# "Bookcrossing'-a baino gehiago, irakurketa zabaldu nahi izan dugu"

- ▶ Euskal argitaletxeek bidalitako liburuak toki publikoetan askatu dituzte
- ▶ "Irakurlea ustekabeen harrapatu nahi izan dugu sorpresa areagotzeko"

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

*Bookcrossing* hitza arrotza egiten bazaigu ere, askotan egin dugun gauza bat da. Zenbat aldiz elkartrukatu dugu liburu bat? Edo zenbat aldiz gomendatu diogu lagun bati holako edo bestelako idazle baten azken eleberria? Ziur askotan egin dugun zerbait dela hori, eta funtsean *bookcrossing*-a hori da. Kasu honetan, ezagun bati beharrean ezezagun bati emango diogu gure eleberri gustukoena ezagutzeko gonbit ezkutua. AEDk, baina, gonbita kolektibo bilakatu du bere azken ekimena. 50 liburu askatu ditu herriko kaleetan eta liburuak ondo islatzen duen leiho ireki eta berri hori herrian zabaldu nahi izan du.

"Ez da *bookcrossing*-ek erabiltzen duen sistema bera, baina hori aintzat hartuta egin dugu gurea", zioen Itxaro Artola AEDko dinamizatzailea. Izan ere, ez da horren ekintza kontrolatua izango. AEDk, hainbat euskal argitaletzek oparitutako liburuak era ezkutuan askatu ostean, jaso dituenaren gozame-na dauka helburu. "*Bookcrossing*-ean, liburuak egiten duen ibilbidea garrantzitsua da. Liburuak

jaso duen pertsonak hura irakurtzean lortuko duen plazerean zentratu gara". Horregatik, liburuak askatu aurretik ez dute ekimenaren berri eman: "Sorpresarekin jolastu nahi izan dugu", zioen Artolak.

Eta sorpresa handia izan da. Nik neronek horrela, nahi gabe,

bila joan gabe aurkitu bainuen Kamele Igartuaren poesia bilduma bat. Askotan gertatzen den moduan, kasu batzuetan ekimena ez da ondo ulertua izan. Beste liburu baten kasuan, kalean aurkitu zuenak lagun bati eman zion norbaitek galdu zuelakoan. Horrelako hamaika istorio liburu

ru baten izaera irekia areagotzen dute, eta, gainera, AEDk duen euskal literatura zabaltzearen helburua oso-osorik betetzen jarraitzen du.

### Iritzia emateko aukera

Testu honen hasieran botatako galdera baten *gomendio* hitza

agertzen zen eta eleberria hurrengo nork irakurriko duen jakin gabe gomendio bat egiteko aukera ere badago. Ez da zuzenean liburuan agertuko, baina AEDk bere Facebook eta posta elektronikokoan, herriko topatzaile suertatu garenok gure iritzia emateko aukera izango dugu. Artolak puntu hau argitu nahi izan du: "Ez gara sekulako kritika literario baten zain egongo, guk herrian askatu ditugu eta herri-tarren erreakzioak ezagutu nahi ditugu". Edozein detaile edo istorio-kontu daukate garrantzia. Izan ere, bakoitzak liburuarekin izan duen harremanak orriek gordetzen duten istorioa aberasten du. Ea guztion artean AEDk askatu dituen 50 istorio hauek era kolektiboan aberasteko gai garen; hor dago aske izateak dakartzen betebeharteko bat.

Adi ibili, guztiok, banku, terraza, kutzazain... edozein lekutan ager baitaitezke AEDk askatutako liburuak. Guztiek, baina, ekimena azaltzen duen pegatina bat daukate. Beraz, hemendik aurrera gogoan izan, kalean topatzen dituzuen liburuak galduak izan beharrean askeak izan daitezke.

ITXARO ARTOLA | AED-KO DINAMIZATZAILEA

## "Liburuaren ibilbidea jakin aurretik, aurkitu duenak gozatu duela jakin nahi dugu"

Artolaren begiek bere karguak eskatzen duen dinamismoa daukate. Zabaldu egiten ditu, irakurketak eta horrelako ekimenek kulturarentzat duten garrantzia azpimarratuta. Ziur begi horiekin berak askatu duen liburu bat baino gehiago irakurri duela.

### Noiz sortu zen ekimen hau?

Literatur Astea bukatzean sortu genuen. Irakurketa herriko kaleetan zabaldu nahi genuen eta ideia polita iruditu zitzaigun.

### Ekimenak arrakasta izan duela esan dezakegu?

Goiz da hori esateko. Oraingoan, e-mailen bat jaso dugu, eta beste batek kalean ikusi eta liburuak etxean duela ere esan digu, baina goiz da. Honelako ekintzek debora luzeagoa behar izaten dute.

### Behin irakurri ostean non askatu behar dira liburuak?

Guk ez ditugu toki jakin baten utzi. Jendeak askatutako liburuak gozatzea nahi dugu, eta ondoren, apalean utzi beharrean, lagun bati ematen badio... orduan eta hobeto, baina jendeak ez dauka zertan liburu hori berriro kalean



IMANOL GALLEGU

askatu. Hori bakoitzak erabaki dezala.

### Zeren arabera aukeratu dituzue liburuak askatzeko tokiak?

Bada, ez dugu irizpide jakinik erabili horretarako. Toki publikoetan egin dugu, eta listo. Edozelan ere, ez da lan erraza izan, jenderik ez zegoen momentuetan egin baitugu lan hau.

## Kasualitate kontua

Ekimen horren puntu garrantzitsuenak kasualitatea eta sorpresa izan dira, eta Aitor Izagirri hori gertatu zitzaion.

Kutzazain baten gainean *Hamazazpikotan* liburuak aurkitu zuen. Hasieran, norbaitek deskuiduz lagatutako liburu bat zelakoan hartu zuen, eta hor bere lehen sorpresa. AEDk jarritako pegatina irakurri ostean, irribarre egin eta etxera eramane zuen. Aitorrek aitortu digu liburuak gainbegiratu besterik ez duela egin, baina osorik irakurtzeko asmoa daukela. Ondoren, baina, ez daki nonbaiten askatuko duen edo ezkutuan lagun bati emango dion.

DATUA

# 50

LIBURU

AEDk 50 liburu askatu ditu herrian; horrelako batekin topo eginez gero, zuen buru eta irudimenak ere askatu eta irakurketaz gozatu.

# Azkarraga-Urizar lehen bozketan alkate izendatzea espero da bihar

Udal eraketarako bilkura egingo da bihar udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 12:00etan hasita

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bihar izango da inbestidura edo udal eraketarako eguna. Korporazio eta alkate berria eratzeko bilkura da, hain justu. Gero, 30 eguneko epean beste bilkura bat egin beharra dago, udal batzorde bakoitzeko burua aukeratzeko. Udaletxeko osoko bilkura aretoan da hitzordua, 12:00etan.

*Adineko mahaia* delakoak gidatuko du eraketa prozesua. Hau da, egun horretan Udalak bururik ez duenez, adina izango

da prozesua gidatzeko irizpidea. Zinegotzi zaharrenak eta gazteenak hartuko dute ardura hori; zaharrena da Itziar Lamarain eta gazteena Ander Rodriguez.

## Zin egitea, banan-banan

Hasteko eta behin, bihar aurkezteko diren hautagaiak hauteskundeetan herritarrek aukeratzeko hautagaiak direla ziurtatu beharko dute, aurrez aurkeztutako egiaztagiriekin. Zinegotzi bakoitzak kargua har-

tzen duenean zin egin beharko du legeak agintzen duen formula estandar bat irakurrita. Hau da, Arrasateko 21 zinegotziek banan-banan eman beharko dute hitza. Une horretan eratuta gertatu da korporazioa.

Eguneko bigarren puntua da alkatearen aukeraketa. Hautagaiak izango dira korporazio berrian sartu diren alderdien zerrendaburuak. Isilpeko bozketak bidez-zinegotzi bakoitzak balio bera duen boto bat- aukeratu da

alkatea. Lehen txanda horretan norbaitek gehiengo absolutua lortzen badu, hura izango da alkate. Eta Arrasaten hala izatea espero da; hau da, Bilduk gehiengo osoa lortu zuenez, Inazio Azkarraga-Urizar aukeratu izatea espero da. Azkenik, *Adineko mahaia* alkatea izendatuko du eta hor amaituko da inbestidura bilkura. Ohikoena da alkate berriak adierazpen batzuk egitea, Arrasateko alkate moduan egingo dituen lehen hitzak, hain zuzen.

## 30 upategi eta 20 gaztagile Ardo eta Gazta Egunean

Seigarren edizioa da biharkoa; plazan izango da

J.B. | ARRASATE

Udalak eta Mondra futbol taldeak antolatuta eta Ibai-Arte merkataritza elkartearen laguntzarekin, Ardo eta Gazta Eguna ospatuko da bihar Herriko Plazan. Ekimenaren seigarren edizioa da aurten goa eta egun osoan ardo eta gazta ona dastatzeko aukera egongo da -bazkalorduan etenaldia egingo dute.

Aurten 30 upategitako ardoak eta 20 gaztagile ezberdinen gaztak egongo dira salgai eta antolatzaileek azokako kitak banatuko

dituzte sei euroren truke. Kitak honakoa izango du: ardo kopa bat Mondrako armariarekin eta poltsa. Poltsan 0,50 euroko lau txartel egongo dira. Eta azokako dirua txartelak izango direnez, ardo kopa edo pintxo bategatik trukatu ahalko dira.

Goizean zehar baserritarren produktuak ere erosi ahalko dira. Horrez gain, gazta onenak aukeratzeko lehiaketa egongo da eta txistorra pintxoak -goizean zehar- eta sahieski jana -19:00etatik aurrera- egingo dituzte.



Denetario ardo eta gaztak izango dira aurten ere. | ARTXIBOA

## Debagoieneko pintxo lehiaketa

Aurten nobedade nagusia da Debagoieneko I. Pintxo Txapelketa ospatuko dela plazan aldi berean; MUren baitan sortutako

Jump In eta EGO kooperatibek antolatu dute. Lehiaketa 12:30ean hasiko da eta irabazleak 15:00etan jakinaraziko dira. Sariak: diploma, garaikurra eta afaria.

## Abaroak badu ereserkia

J.B. | ARRASATE

Antton Errartek (San Andres auzoko Miraballes baserria, 1940) egin du Abaroaren ereserkia, eta, hasierako asmoa San Juan eguneko 80 urtetik gorakoei egiten den omenaldian taldean abestea bazen ere, oraindik doinua eta hitzak erretiratuen artean hedatzen dabilta. Hau da, ez dute egun berezi horretarako saiorik pres-

tatu. Hala ere, autobusean edo bazkalostean abesteko modukoa dela dio Errartek. Koruan abesteko ohitura izan du txikitatik, baina hitzak baino musika egitea du gustukoago: "Musikarako sena dudala esan izan didate".

Hala, sanjuanetako omenaldian parte hartu gura dutenek ekainaren 16a baino lehen eman behar dute izena, BAZen.

## Himnoaren hitzak

*Gu gera Arrasateko  
Abaroako taldea, taldea!  
adinez helduak baina  
bihotzez gazte-gazteak, gazteak!  
alaitasuna delako  
gaitz guztiak sendatzeko, sendatzeko!  
umore onaz beterik  
gaude gu beti gerturik  
biziari eusteko, eusteko! (bis)*

*Bidean alde batera  
tristura denak utzirik, utzirik!  
bihotzak alaitu gabe  
ez badago bizitzerik, bizitzerik!  
irrintzi ta abestiek (irrintzi bat)  
nahigabetik irtetzeko, irtetzeko!  
eskuak luzatzen dizu (luzatu eskuak)  
Abaroako taldeak  
laguntza eskaintzeko  
Abaroako taldea  
ez dago lagun hobea  
aurrera jarraitzeko, jarraitzeko!*

## NIRE USTEZ



NEREA  
MAKAZAGA

## Beharko lukeenak izan

**B**enetan garena eta ustez izan beharko genukeen urrutieratzen direnean, ezinbestez eutsi behar izaten diogu norabide bakar bati.

Izan beharko genukeenak badu inplizituki, nire ustez, onartua izateko premia; badi-tu oraindik behar ezkutuak, estructures ez garatuak, lan-tzeke, jorratzeke.

Hau esan ostean, besteek gugandik espero duten bidea hautatzea erabakitzen badugu, ordainean espero dugu gure erabakiak begi onez jasoak izango direla.

Aurreikus liteke, kanpo trabak ez zaizkigula horren arin azalduko, eta suposa dezakegu ere gure inguruarrekin harmonia mantenduko dugula, bakearen antzeko zerbait bermatuko dugula.

Garena eta izan beharko genukeenak bat egiten ez dutenetan, ordea, gure beharrak alboratzen ditugu, gure benetako izaera bakarrari uko eginez. Gure esentzia gaitzesteak, barne eta kanpo deskonexioa dakar, hutsegite sentsazioa eta iruzur egitearena.

Garenari eustekak gaitasuna ere eskatzen du bestalde, eta garrantzitsua da ere onartzen jakitea, beti ez gaudela gertu zenbait zaurirekin konektatzeko.

Erabaki erraza dirudiena, antza ez da horren arrazionala suertatzen giza-komplexutasuna tarteko. Ibilbideak sinpleak balira, ez ginateke bidegurutzetan galduko.

**"Ibilbideak sinpleak balira, ez ginateke galduko bidegurutzetan"**

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

*MONTE TABERNA*  
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante  
**UGARAN**  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**BASATI**  
TABERNA

943 71 17 68



Uztailean herrian geratzen diren gaztetxoei plan paregabea eskaintzen die Udaixe programak. | TXATXILIPURDI

## Ondo pasatzeaz gain, etxe berria antolatzeko erronka uztaileko

12 eta 17 urte artekoek gaztegunea bisitatuko dute, Udaixe programa barruan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Arrasateko Udalak apustu bat egin du, asteburuan eta erdiguneko gaztetxoendako hutsune bat atzeman zuelako. Ofizialki ez dakigu noiz zabalduko den, dakiguna da Udaixe barruan zenbait ekintza puntual bertan egiteko aukera izango dugula", adierazi du Lander Juaristi Txatxilipurdiko dinamizatzaileak Udaixe eta amaitzean dagoen gaztegunearen gainean galdetu ostean.

Pozik dago 12 eta 17 urte arteko gaztetxoek ekainaren 27an hasi eta uztailearen 20an amaitzen den Udaixe programaren barruan erdiguneko gaztegunea ezagutzeko aukera izango dutelako. Orduetik aurrera hasiko dira pentsatzen nolako erabilera eman gura dioten. Ekainaren 29an da hitzordua, 18:00etan. Hala ere, Juaristik argi dauka gaztegunea ohiko funtzionamenduan jartzeko prozesua

"luzea" izango dela: "Egoitzaren erabilera gazteek diseinatzea gura dugu baina era berean jende askorekin egon behar gara ireki aurretik: Udalarekin, bizilagunekin... Alde guztiak batera joatea "oso garrantzitsua" dela deritzo Txatxilipurdiko arduradunak.

Horrez gain, dio Juaristik, ez da egoitza bakarria moduan planteatzen: "Gazte txokoetan egindako lanari jarraikortasuna ematera

dator, hango filosofia berarekin egingo dugu lan eta auzoetako ekintzak eta erdigunekoak bateratu egingo ditugu". Printzipioz, beraz, udazkenara arte gaztegunek ez du eman gura zaion izaera hartuko.

### Udaixen, ura protagonista

Udalak eta Txatxilipurdik joan den astean aurkeztu zuten Udaixe programa. Ekainaren 27an Biteri plazan egingo den tropikajaiarekin hasiko da egitaraua eta uztailearen 21etik 24rako kostaldera egingo duten irteera batekin amaituko da.

Ekintza gehienak kalean egingo dira; hori da helburuetako bat, Juaristiren arabera. Eta noski, udako ekintzak direnez, urak protagonismo berezia izango du. Zenbait ekintzetan matrikula ordaindu beharko da; argibide gehiago gazte txokoetan edo Gazte bulegoan.

### ESANAK

**"Gazteekin eta jende askorekin egon behar dugu ireki aurretik"**

LANDER JUARISTI | TXATXILIPURDI

## Gaztetxeak baditu udako kamisetendako diseinuak

Neska zein mutilendako dira, eta tirantedunak



Neskendako diseinuetako bat. | AGAKO



Mutilendako beste diseinua. | AGAKO

J.B. | ARRASATE

Maiatzean abiarazi zuen AGAKOK -Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua- udako kamiseten diseinu lehiaketa. Bada, euren webgunean -arrasateko-gaztetxea.com- jakinarazi dituzte diseinu irabazleak. Ondoko irudietan dituzte diseinuak: sorretatik AGAKOK irudi izan duen armiarma erakutsi dute Antton Zabaleta eta Iraia San Miguelek. Diseinu politena aukeratzeko bozketan jende ugari hartu du parte; zabaletak 42 boto izan ditu eta San Miguelek, berriz, 35.

Udarako direnez, tirantedun kamisetak dira, neska zein mutilendako. Gaztetxeako serigrafia tailerlean egin behar dira eta beraz, pare bat aste barru izango dira salgai Iluntz eta Irati tabernetan eta gaztetxean bertan. Zortzi eurotan jarriko dute.

## San Juan bezperako koadrilen bazkarirako txartelak salgai daude Iluntz, Basati eta Irati tabernetan

Atzo jarri ziren salgai sanjuanetako koadrilen bazkarirako txartelak. Iluntz, Basati eta Irati tabernetan eros daitezke, 16 eurotan. Azken urteetan egin den moduan, txartelarekin batera kamiseta banatuko da. Txartela erosteko azken eguna ekainaren 19a da. Bestalde, txosnetan txandak egiteko taulak tabernetan jarriko dituzte; parte hartzeko dei egin dute.

## Emakume Txokoaren kafe tertulia eta mural kolektiboa atzeratu egin dute; urrian egingo da

Emakume Txokoak eta Udaleko Berdintasun Sailak ekimen berezia antolatu zuten ekainaren 10erako: feminismoaren egungo erronkak gaitzat zuen kafe tertulia -world kafe metodologia erabiliz- eta Biteri plazan mural kolektiboa margotzea. Bada, azken orduan ekitaldira agertu zirenetako batzuk huts egin dutenez, ekimena uda osterara arte atzeratzea erabaki dute antolatzaileek.

## Ludoteketako ikasturte amaierako ekintzak: gaur merienda Usaetxen eta hilaren 17an festa handia

Ludotekak ikasturtea agurtzeko ekintzekin dabilta egunotan. Gaur, esaterako, afari merienda egingo dute Usaetxeko ludotekan. Gainera, hilaren 15ean ur jolasak egingo dituzte Erguingo plazan. Azkenik, hiru ludoteken eskutik, ekainaren 17an azken festa handia egingo dute Biteri plazan. Haurrendako jolasak, balance bike eta karaokea izango dira, besteak beste.

## 'El conquistador del fin del mundo' saioko aurkezle Julian Iantzi Arrasatera dator gaur

*El conquistador del fin del mundo* telebista saio arrakastatsua aurkezten duen Julian Iantzi aurkezle lesakarra Arrasaten egongo da gaur. Arbolapetan dagoen -Olarre 17- Errekamendi denda egongo da, 18:00etatik 20:00etara.

Publizitatea egiteaz gain, Iantzik naturarekin izandako esperientziak kontatuko ditu.



**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

[www.mondragon.edu/gep](http://www.mondragon.edu/gep)

[www.mondragon.edu/enpresagintza](http://www.mondragon.edu/enpresagintza)

**GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012**

Izenematea  
**Ekainaren 1etik 10arte**

Matrikulazioa  
**Uztailearen 4tik aurrera**

| MGEP   | OÑATI Gestio Heziketa  |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak</li> <li>Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.</li> <li>Sareko Informatika Sistemen Administrazioa.</li> <li>Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.</li> <li>Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa</li> <li>Industri Ekipoaren Mantenimendua.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazioa eta Finantzak</li> <li>Idazkaritza</li> <li>Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a</li> </ul> |
| <b>Kontsulta pertsonalak:</b>  |  |
| 943 71 21 91<br>E-posta: <a href="mailto:aarriaran@eps.mondragon.edu">aarriaran@eps.mondragon.edu</a>  | 943 71 80 09<br>E-posta: <a href="mailto:enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu">enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu</a>                    |



## Pertika eta luzera jauzien probak gure atletendako

J.B. | ARRASATE

Atletismo hitzorduekin dator oraingo aste bukaera ere. Arrasaten ez dago zitarik baina zenbait atleta arrasatearrek proba garrantzitsuak izango dituzte.

### Valladolid eta Anoeta

Valladoliden jokatu diren kadete mailako pertika jauzian Ispaster Dapena bere marka pertsonala gainditzen saiatuko da. Hau da, 3,65 metroen langa gainditzea du helburu, izan ere, joan den asteburuko Ordiziako proban 3,70 metroko langa gainditzear egon zen. Beraz, Jonathan Perezi esker Arrasatek aspalditik duen pertika jauzilarien emaitza onek etorkizun oparoa izan dezaketela pentsatzera ematen dute.

Bestalde, domekan, Lehen Mailako klubaren arteko Espainiako txapelketa jokatu da. Bidasoako taldearekin hiru arrasatearrek hartuko dute parte: Iñigo Uribarrenek jauzi

hirukoitzean, Chen Jian luzera jauzian –irudian, Mojategin– eta Markel Blanco abiadura lasterketan –800 metro eta 100 metro lau errelebutara–.

### Eta datorrenean, Mojategin

Gainera, datorren astebururako hitzordu baten berri eman du atletismo taldeak. Egubakoitzean, ekainak 17, pertika eta luzera jauzien probak ospatuko dira. Alebin mailatik gorako mailetan izango dira probak, neska zein mutiletan. Parte hartze libreko probak dira.

Azkenik, Ordizia eta Anoetan egin ziren Kantaurialdeko jokoetan –Asturias, Galizia, Kantabria eta Euskadik hartzen dute parte– ere gure atletak ere protagonista izan ziren. Adibidez, Iñigo Uribarrenek 14,46–15 metroetara heltzeko gero eta gutxiago falta zaio– metroetara heltzea lortu zuen jauzi hirukoitzean. Hala ere, jauziak balio gabetu egin zizkioten; hasiera hobetu beharko du.



Chen Jianek luzera jauzia egingo du Valladoliden. | ARTXIBOA

Mauri Zubillaga | Dorletako Ama pilota txapelketaren antolatzailea

## "Jaietako diruarekin gureekin txapelketa polita egin daiteke"

- ▶ Martxoaren 7an abiatu zen eta irailaren 9an eta 10ean izango dira finalak
- ▶ Leintz bailarako pilotariekin bederatzi maila egin dira, beteranoena tartean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ez dago ulertzerik Arrasate eta inguruko pilota Mauri Zubillaga barik. Hona hemen beste adibide bat: Dorletako Ama txapelketa.

### Nondik sortu zen Dorletako Ama pilota txapelketa?

Gatzagako jaietan Udalak dirua ematen zidan pilota partiduak antolatzeko. Eta pilotari onak ekarriz gero diruak ez zuen ematen. Bada, duela bi urte pentsatu nuen bailaran diru horrekin txapelketa polit bat egin zitekeela.

Aurten lehenengoz egingo da ofizialki txapelketa, Leintz bailarako pilotari eta Dorleta Ama txapelketa izenarekin. Izen hori jarri diot, izan ere, partidu guztiak Gatzagako pilotalekuan ari dira jokatzeko; finalak ere hor jokatu dira.

### Zenbat maila dira guztira?

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriaza eta Gatzagako pilotariak ari dira parte hartzen. Eta Aramaio-ko hiru bikote ere badaude, eurekin harreman estua dugulako. Pilotari askok eman zuten izena; pentsa, epea amaitu ostean hiru bikote etorri zitzaizkidan parte hartu gura zutela esanez.

Bederatzi maila izango ditu: pre-benjaminetatik hasi eta beteranoetara arte. Azken horietan bi maila egin dira: pilotan jokatu izan duten hainbatek eman dute izena eta nik partidu batzuk prestatu nituen. Izenekin bakarrik banekien zein zen bakoitzaren maila eta batzar bat egin ondoren bi mailak bereiztu genituen.

### Nola doa oraingoz?

Martxoaren 7tik domekero jokatzen dira partiduak. Hainbat partidu jokatu dira dagoeneko eta maila handia dagoela esan



Mauri Zubillagak ez du atsedunik hartzen pilota badu aitzakia. | ARTXIBOA

**"Bertakoendako eskaintza polita da; diru apur batekin oso gustura datoz"**

daiteke. Bide batez, ohartxo bat: datorren uztailaren 3an ez da partidurik egongo, Dorleta Amako bizikleta proba dagoelako. **Zer du berezia txapelketak?** Bertako pilotariendako eskaintza polita dela. Gainera, klubetan

**"Hainbat partidu jokatu dira eta maila handia dagoela esan daiteke"**

pilotariei ez zaie dirurik ematen eta gazteei hamar euro eta senior mailakoei 20 euro emanez gero deseatzeko egoten dira jokatzeko. Ni pilotaria nintzenez ere oso gustura joaten nintzen diru apur bat ematen zuten lekuetara.

## Besaidek ezohiko batzarra egin zuen, legera egokitzeke

J.B. | ARRASATE

Martitzenean ezohiko batzar orokorra egin zuen Besaide elkarteak. Batzarra deitzearen arrazoi nagusia izan da, Roman Martinez presidentearen esanetan, kirol lege berria Besaideko estatutueta egokitzea: "Formalismo hutsa da, baina gure estatutueta jasotzen da zerbait aldatu behar bada ezohiko batzarra deitu behar dela".

Bestalde, Besaideren ekintzek ez dute etenik. Aste bukaera honetan, bi mendi irteera: Pirinioetara (Iparla) eta Panticosa aldera.

## Lagunarteko topaketarekin pozik daude antolatzaileak

Joan den asteburuan AKE-Squash taldearen lagunarteko bigarren topaketan 13 lagun batu ziren. Emaitza gutxienezkoa izan zen: gehien zekienak irakasle lanak egin zituen eta antzeko maila zegoen partiduetan lehia bizia izan zen nagusi. Kirol horren zaleei dei egin zieten uztailaren 16ko bailarako txapelketan izena emateko.



AKE-SQUASH

## Gitarra kontzertua gaur 18:00etan Kulturaten

Arrasate Musikaleko gitarra ikasleek ikasitakoa Kulturateko areto nagusian erakutsiko dute. 15 ikaslek Donostian arrakastatsuen ostean, etxekoan aurrean joko dute. Kontzertua askotarikoa izango da eta ikasleek euskal musika nahiz klasikoa tartekatuko dute. Muskarientzat ez da erronka erraza izango, gehienetan bakarka joko baitute ezagunen aurrean. Baina urte osoan emandako aurrerapausoak erakusteko duten gogoak kontzertu bikain bat eskaintzera eramango ditu.

## Goikobaluren ikasturte amaierako emanaldia Kulturaten

19:30ean hasita, ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute Goikobaluko txikiek Kulturaten. Bertan, haur kantuak, euskal kantu herrikoien moldaketak eta *Los chicos del coro* filmeko kantuak eskainiko dituzte. Goikobaluko gazteek, gainera, Euskal Herriatik kanpo bi kontzertu eskainiko dituzte. Bartzelona aldera joango dira hilaren 17tik 20ra. Kataluniako hiriburuko euskal etxean eta Can Castello kultura etxean izango dira saioak. Kantariak, gainera, Bartzelona ezagutze-ko aukera izango dute.

## 'La revoltosa' zarzuelaren lehen entsegu astelehenean

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak astelehenean ekingo dio lehen entsegu orokorrari. Bertan, lehen aldiz, musikari, aktore eta eszenarako beharrezkoak diren elementu guztiekin lehen ekinaldia entseगतuko dute. Aurtengoa, gainera, ez da erronka txikia izango; izan ere, *La revoltosa* zarzuelakoak ez diren sei abesti tartekatuko dituzte. Berrikuntzek zarzuelan izango duten efektua ikusteko, baina, azaroan izango den estreinaldira arte itxaron beharko dugu.

# Txorbela eta Ragnarök otxoteak elkarrekin

Gaur, egubakoitza, San Frantzisko elizan eta bihar Donostian abestuko dute

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Arrasateko Txorbela otxoteak gonbidatuta, Suediako Ragnarök otxoteak kontzertua eskainiko du gaur San Frantzisko elizan, 20:00etan. Otxote bakoitzak bere kantu sorta abestuko du eta ondoren elkarrekin hiruzpalau abesti kantatuko dituzte. Tomas Axpe Txorbelako kideak dioenez: "Suediako kantu ezagun batzuk ikasi ditugu eta eurek gureak".

Elkartrukeak duen izaera musikalaz gainera, Ragnarökoek inguruak ezagutuko dituzte. Turismoaz gainera, San Frantziskon eskainiko duten kontzertuak esangura berezia izango du. Suediarrak abeslari profesionalak diren arren, arrasatearrek bultzatuta otxotea sortu zuten eta.

Gurean ibili ostean, zapatuan Donostiara joango dira eta bertan, beste kontzertu bat eskainiko dute gizonezkoen bi taldeek.

### Elkartruke sinfonikoa

Lehen bisita hori ez da norantza bakarrean egingo. Donostiako Orfeoia eskaintzen dituen kon-



Arrasateko Txorbela otxotea, Bilbon. | GOIENA



Ragnarök, Suediako otxotea. | GOIENA

tzertuetako batetik jaiotako erlazio horrek uzta oparoa emango du. Ragnarök otxotea izan da bidaia egitera animatu den lehenena, baina hurrengo udan Txorbelakoek bisita bueltatuko dute.

Data zehazteko goiz den arren, Jose Luis Azkarate abeslaria data hurbiltzen saiatu da: "Udako solstizioaren inguruan joango gara eta gauerdiko eguzkia ikusteko aukera izango dugu". Hortaz, hurrengo urteko gauerdiko eguzkiak euskal doinua izango du. San Juan festak huts egin arren, Suediako bazterrak berotzen lana izango dute Txorbelakoek.

### ESANAK

**"Suediako kantu ezagun batzuk ikasi ditugu, eta haiek gureak"**

TOMAS AXPE | TXORBELAKO KIDEA

**"Bi taldeok suediar eta euskal kanturen bat abestuko dugu"**

TOMAS AXPE | TXORBELAKO KIDEA

## Homosexualitateari buruzko poesia irakurraldia

'Desira desordenatuak' liburua izango da ardatza



Desira desordenatuak liburua. | IMANOL GALLEGO

I. GALLEGO | ARRASATE

Poesia irakurketak ez dira oso ohikoak izaten, eta are gutxiago homosexualitatearekin elkartzen ditugunean. Homosexualitatea ez da euskal literaturak gehien landu duen gaia, baina zenbait eleberririk eta poesiak jorratu dute.

Iaz, *Desira desordenatuak* liburua argitaratu zen, non homosexualitatea ardatz erabilia euskal literaturan murgiltzen den. Bertan, besteak beste, Ibon Egaña eta Mikel Ayerbe idazleen lanak topatuko ditugu. Ez da ohiko eleberririk, sexualitatea jorratzen duten hainbat zati batzen direla konturatuko da irakurlea. Eleberririk, gainera, homosexualitatea oso era naturalean jorratzen du, honelako gai baten aurrean naturaltasunez hitz eginez, boz-

gorailu batek sortzen duen zatarazaztertuz.

Kulturateko erreztaldian, herritarrez gainera, liburua sortzen parte hartu duten idazleak ere egongo dira. Hori ez da talde horrek egiten duen lehen poesia irakurketa; orain arte tabernetan egin dituzten arren, antolatzaileek poesia irakurketa hori oso ekimen positibo eta irekitzaile moduan ekarri dute gurera.

Bukatzeaz dauden literatura solasaldiei amaiera emateko ere balioko du. Erreztaldia solasaldi batek duen izpiritu askearen jabe da. Izan ere, badago solasaldi bat, poesia bat edo sexualitatea bera baino gauza askeagorik? Hori frogatu nahi dutenek ekainaren 16an Kulturateko areto nagusian hitzordu garrantzitsua dute, 19:00etan.

S  
SABURDI

harategia • urdaitegia  
gourmet

LEKUZ ALDATU GARA!

HARATEGIA

URDAITEGIA

Eta orain baita ere  
AURREZ PRESTATUTAKO  
JANARIAK



Otalora Lizentziatua (UARKAPE ONDOAN)  
Tel.: 943 79 86 15

# Dena prest Bitorianatxoren jaitzierarako: gaur 20:00etan

Egitaraua bete-bete badator ere, han jaso bako ezusteak ere izango dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Mendekoste jaiak eta martitzenera bitartean askotariko ekitaldiak egongo dira. Batzuk urteroko hitzorduak izango dira, baina beste hainbat lehenengoz egingo dira.

Iaz ekin zioten, esaterako, jaien hasiera iragarriko duen txupinazoa herritar batek botatzeari, eta aurten ere halaxe izango da. Honorio Agirregabiriaren omenez egiten den San Antonioko txirindulari lasterketak 75 urte beteko ditu aurten, eta, hori aintzat hartuta, Agirregabiria zenaren alaba Sorkundek jaurtiko du. Ohi bezala, 20:00etan izango da, Bitorianatxoren jaitzierarekin batera.

Ondoren, Udal Musika Bandak hartuko du protagonismoa. Jantzi berria estreinatuko dute bandako

kideek egun horretan eta plazatik abiatuta egingo duten ohiko kalejiran erakutsiko dute herritarren aurrean.

Beltz kolorekoa da traje berria –orain artekoa urdina zen–, eta gaur egungo lineaduna. Enara Minguez Kultura zinegotziaren esanetan, orain artekoak 40 urteko gora zituen, eta, oso erabilia egoteaz gain, zaharkitua ere bazegoen. Hori horrela, berriak egitea erabaki dute. Bandako emakumezkoek dagokionez, praka edo gonadun trajea egitea erabakitze bozketa egin zuten eta alde handiarekin gonaren alde egin dute. Hala, gonadun trajea izango dute aurrerantzean ere.

#### Jaietako zapia salgai

Azken urteetan egin duen moduan, Jardun elkarteak jaietako zapia kaleratu du. Gaur, egubakoitza,

DATUA

# 800

UNITATEA

la 800 txartel saldu dira asteleheneko herri bazkarirako.

eta bihar, zapatua, jarriko dituzte salgai, San Martin plazan, 3 eurotan.

#### Bazkarirako txartelak

Herri bazkariari dagokionez, erabateko arrakasta izan du. Egun gutxitan saldu ziren salgai jarritako 700 txartelak eta atzo, eguna, beste 76 salgai jartzeak ziren kultura etxean.

Bazkaria astelehenean izango da, San Martin plazan, baina, eguraldi txarra egiten badu, Labe-garaietako kiroldegian egingo dute. Hara joateko autobus zerbitzua egongo da Oxirondo plazatik abiatuta.

#### 25 bat goitibehera

Iaz hasitako goitibehera lehiaketa sendotu egingo da aurten. 25 bat goitibeherak hartuko dute parte: 7 herri mailako txapelketan arituko dira; gainerakoak Euskal Ligan lehiatuko dira.

#### Oharrak

Jai batzordeak dei egiten die koardilei blusa edo kamisetekin kaleira irteteko. Bestalde, 16 urtetik beherakoek debekatuta dute, errektadore eskola ibiltarian izan ezik, gainerako zezen ikuskizunetan parte hartzea.



Bandako hiru kide, entsegu gelan, traje berria soinean dutela. | M.B.

## Traje beltza estreinatuko du gaur bandak

Orain arteko urdinak urte asko zituen, oso erabilia zegoen eta zaharkitua ere bazegoen. Hori horrela, berriak egitea erabaki du Udalak. Beltz kolorekoa eta dotorea da bandaren jantzi berria. Gizonezkoek ohiko traje beltza, alkandora zuria eta gorbata beltza dute. Emakumezkoena belainerainoko gonadun –eurek ala erabakita– traje beltza da eta alkandora entailatu zuria du. Alkandorak mao-lepoa du eta jakak ere mao antzekoa du.

## Gaztetxoengan pentsatutako barraka

Barraketan gazteendako eskaintza handiagoa egon dadin, barraka berria ekarri dute aurten. Haren tamaina eta segurtasun neurriak direla eta, Martinez de Irala ikastetxeko patioan jarri dute eta probatu dutenek demasa dela diote. Gainerakoak, ohi bezala, hilerri ondoko orubean jarri dituzte. Prezioari dagokionez, 1,60 euro izango da itzuli bakoitza; 2,50 euro, barraka berriaren kasuan. Astelehenean, euro bat balioko dute ohiko barrakek.



Erabiltzailea buruz bera geratzen da barraka berrian une batez. | M.B.

## Xabier Etxanizek eta Itziar Lopezek eroan dute Miguel Altunako ordenagailua

M.B. | BERGARA

Bi urtean barrera Heziketa Zikloan egindako lan eta esfortzua saritzeko asmoz, Miguel Altuna institutuan ordenagailu eramangarriak zozketatu dituzte erdi eta goi mailetako ikasle onenen artean.

Saridunak izan dira Xabier Etxaniz –Instalazio Elektriko eta Automatikoaren erdi mailako zikloa

egin du– eta Itziar Lopez –Administrazio eta Finantza ikaslea–. Bi ikasleek ordenagailu eramangarri bana jaso zuten sari moduan.

Sari ematea aurreko egubakoitzean egin zuten, praktiken amaierako ekitaldiaren barruan. Ekitaldian, zuzendaritzako kideek eta ikastetxeko ikasleek hartu zuten parte.



Etxaniz eta Lopez, institutuko ordezkariekin. | MIGUEL ALTUNA

## Bihar, zapatua, egingo du karguaren zina Jesus Elortzak

M.B. | BERGARA

Udalbatza osatuko duten 17 ordezkariak bihar, zapatua, 12:30ean dute hitzordua, oso bilkuren aretoan. Izan ere, datozen lau urteetarako kargua hartuko dute bihar; zinegotziek zein alkateak.

Prozedura honakoa izango da. Lehenengo, udal eraketa mahaia osatuko dute hautagai gazteenak –Maren Belastegi– eta nagusienak –Maite Barrena–. Hala, mahai horri aurkeztu beharko dizkiote zinegotzi izango diren kredentzialak. Eta gero, karguak hartzeko, zin egin beharko dute.

#### Alkatea bozkatuko dute

Zinegotziek kargua hartu eta gero, alkatea aukeratzeko bozketa egingo dute. Gogoratu behar da Bilduk 9 zinegotzi lortu zituela hauteskundeetan; EAJk, 5; Aralarrek, 2; eta PSE-EEk, bat. Hortaz, Bilduk daukan erabateko gehiengoarekin, eta ezusteko handirik ezean, Bilduko ordezkari Jesus Elortza aukeratu dute alkate. Bozketaren ostean, hark ere zin egin beharko du kargua.

## Emakumea eta txirindularitza berbagai hilaren 17an

Lokatza Ziklismo Eskolak eta Udalak mahai-ingurua antolatu dute emakumeen goi mailako kirolaren eta txirindularitzaren bueltan. Ekainaren 17an izango da, 19:00etan, oso bilkuren aretoan. Parte hartuko dute Eneritz Iturriaga eta Ana Usuabiaga txirindulariek, Arritxu Iribar kazetariak eta Ainhoa Azurmendi kirol aholkulari eta berdintasunean adituak.

Bestalde, hilaren 18an, errepideko ziklismoko emakumeen txapelketa egingo da Osintxun. Han irabazten duena Gipuzkoako txapelduna izango da.

## OHARRAK

#### IPINTZAKO ZENBAKI SARITUAK ATERA DIRA

Zapatuan zozketatu zituzten DBHko 4. mailako ikasleek ikas bidaiarako saskiak. Saskietako batzuk dagoeneko banatu diren arren, ondorengo zenbakiei dagozkienak banatu barik geratu ziren: 117, 489, 546, 802 eta 968. Saskiok jasotzeko Ipintza institutura jo (943 76 31 42) ekainaren 17a baino lehen.





Langileak, Mayceko biribilgunean lanean. | ASIER ALKORTA

# Jaurlaritza Mayc inguruak urbanizatzen hasi da

Hodiek urbanizazio zerbitzuak emango dizkiote Migel Altuna berriari

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Mayc lantegiaren ondoan dagoen zelaia urbanizazio publikoaren zati bat egiten hasi dira. Horretarako, duela egun batzuk, zelaia azpian dagoen biribilgunean hodiak bideratzeko lanei ekin zieten. Gaur egun, gas, ur eta ur zikin hodiak eta telekomunikazio sarea puntu horretan amaitzen dira. Horregatik, inguru horretan egingo den eskola eta auzoari begira, hodiak goiko kanparaino igotzeko lanei ekin die Eusko Jaurlaritzak.

Hasi berri dituzten lanak LKS enpresari dagozkio eta bertako arduradun Arkaitz Aranak esan

digunez, "urbanizazio lan partziala" egiten ari dira. Arduradunak adierazi digunez, lehen lan honetan, ur hodiak, ur zikinak batzekoak, gasa eta telekomunikazio sareak igoko dituzte. Lanak amaitzeko ez dago data zehatzik, baina LKStik diote urri erdialderako amaitu nahi dituztela: "Lanak horrela jarraituz gero, urri erdialderako amaituko digutu, baina bi aste atzeratzea ere ez da arraroa izango".

## Urbanizazio partziala

Gauzak horrela, urbanizazio sare guztia igo arren, ez da lursail osoarentzako izango, orain egiten

ari diren lanak Migel Altuna institutu berriari zerbitzua emateko soilik izango dira. Lanen arduradunek diotenez, ez da lursail osoa urbanizatuko, oraindik bertan egingo diren eraikin guztiak zehaztu gabe daude-eta. Eusko Jaurlaritzak ez du bertan egin nahi dituen lanak egiteko eperik jarri, baina LKSk ez du lursail osoa urbanizatuko.

Hala, aurrerago bertan eraikitzeak diren eraikinak defitu ostean, errazago urbanizatuko dute inguruak. Horretarako, baina, ez dago data jakinik, institutu berriaren proiektua bukatu gabe dago-eta.

# Udalak etxebizitza bihurtzeko lau lokal zozketatu ditu

Lokalek gutxienez 100 metro koadroko azalera dute eta erdigunean eta auzoetan daude

I. GALLEGU | BERGARA

Erabilera komertzialik ez duten lokalek etxebizitza bihurtzea izan daiteke etxebizitzaren arazoari aurre egiteko modu bat, eta azken urteotan bat baino gehiago izan dira horretara animatu direnak. Bergaran, etxebizitzak egiteko lau lokal zozketatu dituzte eskaria egingako 50 pertsonen artean.

Lokal gehienak behin baino gehiagotan zozketatu dira; dena den, Udalak duen zerrenda luzea ikusita, akaso, oraingo honetan guztiak salduko diren ustea azaldu du.

Udalak egingako zozketan parte hartzeko baldintzak Jaurlaritzak babes ofizialeko etxe bat jasotzeko jartzen dituen plegu berak dira. Onartua izan ostean, zozketan egokitutako lokala onartzeko edo baztertze-ko aukera dago. Zerrendako

lehenak egokitu zaion lokala baztertzen badu, bigarrenari egingo dio salto zerrenda osoa amaitu arte. Prezioa, gainera, oso erakargarria da: erosleek 750 euro ordaindu beharko dituzte metro koadroko.

## Jabeek 15 egun

Zozketa eguaztenean egin zen arren, ez da datarik aurreratu, jabeek oraindik ez dute-eta zozketaren emaitzarik jaso. Hala ere, zortedunek ez dute pentsatzeko tarte handirik izango, Udalak jakinarazten dien momentutik 15 egun besterik ez dute izango-eta.

Argitu beharra dago zozketa horretako lokal guztiak etxabeak direla, eta haiek etxebizitza modura egokitzeko egin beharreko lanak etxebizitza onartzen dutenek egin beharko dituztela.



Alkatea, udal teknikaria eta notarioa zozketa egiten. | IMANOL GALLEGU



MIREN ERRASTI

## Osintxun gazte eta helduek patinatzen dute

Osintxuko Herri Batzarrak, Bergarako Udalak eta Bizikasik antolatuta, 35 osintxuarrek oinetakoak etxean utzi eta patinatzeari ekin zioten apiril hasieran. Heldu eta gaztetxoek Soraluze enpresaren aurrealdean patinatzeari ekin zioten, Gurutz Linazisoro bergararra buru zutela. Batzuek ikastea zuten helburu; beste batzuek, berriz, estiloa hobetzeko asmoarekin ekin zioten patinatzeari. Hilabete hauetan maila ederra hartu ostean, orain patinak jantzi eta bidegorrian patinatzen dute askok.

# Astelehenean inauguratuko dute San Antonioko kaperera berria

I.G | BERGARA

Badago zer ospatu aurtengo San Antonio jaietan! Urtetan kaperera gabe egon ostean, aurtengo jaien barruan auzoak kaperera berria estreinatuko du. Auzoa jaietan murgilduta dagoenez, inaugurazioa jaien barruan egingo da. Irekiera astelehenean izango da, 12:00etan, eta bertan, auzotar eta gainontzeko herritarrez gainera, Alai taldea eta txistulariak egongo dira. Bada, asteleheneko hitzordu horrek auzotar askorentzat xamar berezia izango du.

Dena den, hori ez da kaperaren kontuarekin egingo duten hitzordu bakarra. Domeka arra-

tsaldean, 20:00etan, lehen kaperera zegoen toki berean kanpandorre zaharrarekin egingako monumentu berria ere inauguratuko dute.

Baina horiek ez dira hitzordu garrantzitsu bakarrak izango. Zapatutik astelehena bitartean kalean giro onean egoteko hamaika arrazoi izango ditugu. Lehenengo egunean txirrindulari lasterketa egongo da, 16:00etan. Nahi dutenek 20:30ean sardina-jana izango dute plazuelan. Astelehenean berriz, erraldoi eta kiliekiek alaituko dute auzoa. Aurtengo egitaraua aste bukaera kalean emateko eginga dago.



Mikel Aristi, joan den domekan, Anoetako helmugan besoak jasotzen. | ARGAZKIAK: TXIRRINDULARI.NET

## Ibarreko ziklistak Anoetako lasterketaren jabe egin ziren

Zapatuan, berriz, San Antonio lasterketak 75 urte beteko ditu, Bergaran

XABIER URTZELAI | BERGARA

Ekaina ziklismoz beteta dator, eta Lokatzako ordezkariak denera iritsi nahian, herrian hainbat lasterketa dituzte-eta jarraian. Joan den asteko hitzordu bikoitzaren ostean –Euskal Herriko erlojupekoa, eta Pentekoste saria– oraingo asteburuan Bergarako proba beteranoetako baten txanda izango da, San Antonio Sariak 75 urte beteko ditu-eta bihar, 16:00etan hasiko duten lasterketan. Proba kadete mailakoa izan-



Ibarreko ziklistak (Sumofic eta Mugarri Jay) Anoetan protagonista. | TXIRRINDULARI

go da, eta ziklistek 60 kilometroko ibilbidea bete beharko dute. Lehenengo kilometroak Bergara eta San Prudentzio artean egingo dituzte, eta lasterketako bigarren zatia aldapsua izango da, Oñatitik Legazpira, eta handik Bergarara; 17:30 inguruan amaituko dute proba.

### Anoetan, protagonista

Joan den domekan, berriz, golkoa bete sari itzuli ziren ibarreko ziklistak etxera. Anoetan korritu zuten gazte mailako lasterketa, eta Sumofic taldeko ziklistak protagonista izan ziren.

Lasterketaren hasieran egin zen ihesaldian Bergarako lau txirrindulari sartu ziren: Aristi, Etxabe, Lizarralde eta Orobengoa. Eta eurekin zen, baita ere, Mugarri-Jay taldeko Iker Eskibel eta Jon Ander Kortabarria. Azken kilometroetan bi mendate igo behar zituzten eta lehenengoan taldea murriztu zen; Etxabek (Sumofic) ezin izan zuen Iker Eskibel (Mugarri-Jay) ziklistak ipinitako erritmoa jarraitu. Ondorengo mendatean, berriz, Eskibekek zulatua izan zuen, eta taldetxoan Aristik eraso jo zuen eta helmugarako azken 15 kilometroak bakarrik egin zituen, Anoetako helmugaraino. Hodei Orobengoa podiumera igo zen, eta lasterketa borobiltzeko, Sumofic-ek, talde onenaren saria jaso zuen. Aipatzekoa, baita ere, Iker Eskibel eskoriatzarrak eskuratutako mendiko saria. Domekan Seguran izango dute hitzordua.

## Bergara Hiria torneoko finalistak, etxekoak

X.U. | BERGARA

Datorren astelehenean jokatuko dituzte, 19:30ean hasita, Bergara Hiria txapelketako finalak. Lehenago, 18:30ean hasita, emakumezkoek paleta erakustaldia egingo dute. Eta Bergara Hirian ibarreko ordezkariak izango dira, bai 22 urtez azpikoekin finalean, baita nagusietan ere.

22 urtez azpikoetan Beñat Rezusta bergararra finalerako sailkatu zen martitzenean jokatutako finalerdian, Victor errioxarrekin batera 22-21 irabazi zieten Jakari eta Irustari. Rezusta eta Victor erraz aurreratu ziren (17-10), baina izugarri kosta zitzaien partidua irabaztea, kontrarioak aurretik ere egon ziren-eta markagailuan (18-19).

### Mendizabal, nagusietan

Nagusiek 20:30 inguruan hasiko dute finala, eta Mendizabal badabil poliki-poliki Bergarako pilotalekuari gustua hartzen. Duela hilabete gutxi lau terdikoa irabazi zuen Bergaran, eta astelehenean ere txapela jantzen ahaleginduko da, Irureta bikotekidearekin batera; finalean Untoria (Errioxa) eta Larrañaga (Azpeitia) izango dituzte aurrean.

Martitzeneko finalerdian antzuolarrak eta Iruretak txarto hasi zuten partidua; 6-7 tanto atzetik joan ziren, baina garaiz eman zioten buelta partiduari.

### Ekainaren 25ean eta 26an, hiruko saskibalo txapelketa

Azken urteotan izan duen arrakastaren ondotik antolatuko du Bergara Kirol Elkarteak, hilaren 25 eta 26rako, hiruko saskibalo txapelketa. Elkarteko ordezkariak buru-belarri dabilta txapelketa antolatzeko lanean, eta aurki egingo dute aurkezpena.

## Pol-Polekoak ez ziren Moncayorekin konformatu

Joan den zapatuan egon ziren Pol-Pol mendi taldekoak Moncayon. Sei orduko ibilalditik errekupeatzeko domekan atseden hartu beharrean, Errioxa aldera egin zuten, Peña Isasa mendira igotzeko. Hurrengo irteera Iparraldera egingo dute, uztailaren 10ean, Baigura mendira, Osses herritik iritenda.



J.M. SASIGAIN

### ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

### CAMACHO

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

### BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

### disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

### GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

# Bergarar bat Azpeitiko tuba jaialdian izango da

Andoni Moñux 13 urteko tuba ikasleak Azpeitiko tuba jaialdian hartuko du parte datozen egunotan

JAIONE CARPINTERO | BERGARA

Datozen egunotan Azpeitian egingo den tuba jaialdian bergarar batek hartuko du parte. Festa giroan, tubistak direla adierazi nahi dute aurten ere. Joan den urteko arrakasta ikusirik, aurten tuba jaialdiaren bigarren deialdia antolatzea erabaki dute.

Hainbat maisu joango dira ekitaldira tubaren doinu ikusgarrienak entzuteko; besteak beste, Oscar Abella, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko tuba bakarlaria; Kenny Rith, Bilbao Orkestra Sinfonikoko tuba bakarlaria; Juan Carlos Ribelles, Donostiako Kontserbatorioko maisua; eta beste hainbat musikagile.

Adin askotariko musikariak izango dira datozen bi egunetako protagonistak, 9 urteko gaztetxo batetik hasita, erretiratu dauden zenbait bandatako musikagileetaraino. Haien artean Andoni Moñux bergararra izango da. Gaztetxoak 6 urte darama tuba jotzen eta Azpeitiko tuba jaialdia egin den azken bi urteetan hartu du parte.

Gaur 19:30ean San Agustin kulturagunean eskainiko den *tuba ensemble* kontzertuak emango dio hasiera bi egun iraungo duen ekitaldiari. Jarraian, 23:00etan hain zuzen, Iraurgi tabernan *jam session* bat izango da.

Biharko egun osoa, 09:30ean hasi eta 20:30ak arte iraungo duena, bigarren tuba jaialdia egiteko erabiliko dute. Egun osoan, musikarientzako ekintza desberdinak antolatuko dira. 19:30ean, bestetik, San Agustin kulturagunean Jaialdia deituriko kontzertua eskainiko dute.

## Organo entzunaldia Azpeitian

Eta bihar, 11:30ean, Azpeitiko Esklabetako elizan organo entzunaldia izango da. Bertan, Azpeitiko eta Bergarako musika eskoletako organo ikasleek ikasturte osoan landutako obrak entzuteko aukera egongo da.



Andoni Moñux tuba ikaslea. | BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Ikasturte amaiera dela eta antolatu dute ekitaldi hori. Bertan, zazpi lan joko dituzte ikasleek, Aitor Olea Juaristi irakasleak bideratuta.

## Musika eskolak helduen matrikulazio epea zabaldu du

Bestalde, Bergarako musika eskolak bidea erraztu nahi die musi-

ka ikasi nahi duten nagusiei. Hizkuntza musikala, organoa, kantu bakarlaria, instrumentu sinfonikoak, polifonikoak eta herrikoiak ikasteko aukera zabaldu izango dute izena ematen duten nagusiek. Gogoratu behar da matrikulazio epea zabaldu berri dela eta egun gutxi batzuk daukela izena emateko.

Juanjo Lopez Azurmendi | Argazkilaria

## "Betidanik egin ditut argazkiak, baina lehen, nire kasa egiten nituen"

'Bikotea' lanarekin Bergara Hiria 27. argazki lehiaketan arrakasta lortu du Juanjo Lopezek

J.C. | BERGARA

**Juanjo Lopez Azurmendi Bergara Hiria argazki lehiaketako koloretako herriko irabazlea. Zorionak, lehenik eta behin.**

Eskerrik asko.

**Bikotea izeneko lanarekin irabazi duzu. Badu argazki honek istorioen bat?**

Bai; argazki hau Pushkarren dago aterata, Indian. Bikotea autobus geltokian zegoen, autobusa irteteko zain, leihatilatik begira. Gu ere itxaroten geunden eta bitartean elkarri argazkiak ateratzen ibili ginen.

**Zenbat denbora daramazu argazkilaritzan?**

Betidanik egin ditut argazkiak, baina nire kasa.

**Eta zelan hasi zinen talde honekin lanean?**

Duela urte batzuk, lagun bat taldean sartu zen. Garai hartan diapositibetatik digitalera pasatzeko eskaner bat nahi nuen nik eta lagun horrek bertan gailu hori erosi nahi zutela esan zidan. Haiekin harremanetan jarri nintzen erosketa horretan parte hartu nahi nuelako, eta harrezkero bertako partaide naiz.

**Eta orain, taldekoak askotan elkaritzen zarete?**

Bai; astelehenero 19:30ean elkaritzen gara gauzak antolatzeko eta argazkiak ikusteko. Horre-



Juanjo Lopez. | JAIONE CARPINTERO

lako lehiaketak prestatzeko lan handia egin behar da.

**Sari gehiago irabazi dituzu?**

Bueno, gutxi batzuk bai. Bergaran, iaz hirugarren saria lortu nuen zuri-beltzeko argazkietan. Pare bat sari lokal ere badituzte, Zumarragako beste bat, eta badituzte Gasteizko batzuk ere.

**Argazkiak ateratzeko orduan gai konkreturen batek gehiago erakarriko zaitu, ez?**

Bai, noski. Natura, giroa, mendia... normalean, mendira joaten gara eta zerbait polita ikusten badugu argazkiak ateratzen dizkiogu.

**Beraz, kamera beti soinean eramaten duzu.**

Bai, beti.

## Herriko bi artelanen dohaintza proposamena onartu du udalbatzak

J.C. | BERGARA

Udalbatzak aho batez bi pintura lanen dohaintza onartu zuen.

Hilaren 30ean eginiko bilkuran, alde batetik, Simon Arrieta bergararrak bergararra eta pintorea ere bazen Nikolas Muxikari egin zion erretratua- ren dohaintza onartu zen.

Bestetik, Marga Garcia Martinezek, Gijonen bizi den margolariak, Bergarako Udalari *Rutas* izeneko pintura lana dohaintzeko proposamena ere onartu zuten.

Bi proposamenak aho batez onartu ziren, eta adierazi zuten dohaintza egin dituztenei gutunez eskerrak emango dizkietela.

**GOIERRI**  
Autogidarien Eskola



Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu  
Informa zaitetz

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

*Mujika*  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artakalea 3 **BERGARA**  
943 76 10 34

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe  
943 76 59 54 BERGARA



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

Amaia Goitia, Zalaa Uribe eta Olaia Albizu | Bubulum GKEko kideak

## "Bazkideak egiteko dei egin dugu: 90 bat beharko ditugu"

- ▶ Bubulum GKEk bazkideak egiteko kanpaina abiarazi du
- ▶ Nikaraguako Jinotega zonako haurrendako dirua batu gura dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Amaia Goitia oñatiarrak eta Zalaa Uribe eta Olaia Albizu durangarrek Bubulum GKE sortu berri dute. Lanean 2003an hasi ziren, baina GKE moduan orain eratu dira. Nikaraguan proiektu baten dihardute lanean. Orain, bazkideak egiteko deialdia egin dute. Taldeko kide Amaia Goitiarekin egin dugu berba.

### Zer da Bubulum GKE?

Zalaa, Olaia eta hirurok 2003an hasi ginen lanean Guatemalan, eta 2006an Nikaraguan. Dena den, orain arte, etxekoek eta lagunek emandako dirulaguntzarekin egin dugu lan. Hori horrela, erakundeek eta udalek ematen duten laguntzak lortu ahal izateko, GKE moduan eratzea erabaki genuen. Elgetako Mundumiran lehen aldiz parte hartu dugu erakunde moduan.

### Egun, Nikaraguan diharduzue lanean. Hain zuzen ere, Jinotega-ko eremuan.

Kasualitatez heldu ginen Nikaraguara eta ikusi genuen egoera kezagarrian bizi zirela. Premia bereziak dituzten haur asko dago. Zailtasun fisikoak, intelektualak eta sentzorialak dituzten ikasleak daude. Hori horrela, hango umeek arreta berezia behar dute: fisioterapia, hizkuntza-terapia, hezkuntza-terapia, terapia okupazionala...

Kokapenaren arabera hiru zonatan egiten dugu lan, eta bakoitzean terapia jasotzeko gela bat egokitu dugu. Egun, 55 neska-mutikok hartzen dute terapia, baina askoz gehiago dira laguntza jasotzen ez dutenak. Horiendako baliabideak topatu beharko ditugu.



Goitia, Lesterren ama, Lester, Olaia eta Zalaa. | BUBULUM

### "Nikaraguako umeek harreta berezia behar dute aurrera egiteko"

#### Bazkideak lortzeko dei egin duzue.

Bai, hala da. Bazkide egiten direnek 52 euro ordaindu beharko dituzte urtero. Gure helburua da 90 bat egitea. Bazkideekin jasotako diruarekin eta beste erakunde batzuen laguntzarekin aurrera egiteko moduan egongo gara. 6.027 euroko aurrekontua dugu urte osorako. Informazioa: [bubulum3@hotmail.com](mailto:bubulum3@hotmail.com).

#### Diru horrekin hango langileen nominak ordaintzen dituzue.

Jinotegan ditugu hiru langile-zona bakoitzean bat-, astean behin joaten den hezkuntza bereziko irakasle bat eta koordinatzaile bat. Azken horren lana oso inportantea da. Hura arduratzen da guztiaz. Koordinatzailea edukitzea ezinbestekoa da hango lana nola doan jakiteko.

#### Noiz arte bideratuko duzue dirua Nikaraguara?

Eurek badakite, apurka-apurka, laguntza txikitzen joango gara. Lortu behar dute gure laguntza barik aurrera egitea. Adibidez, lortu dute hango elkarte baten laguntzarekin eskola bat eraikitzeko dirua batzea.

## Udalbatza berria eratzeko osokoa egingo dute bihar, 12:00etan

M.B. | OÑATI

Maiatzaren 22ko udal hauteskundeetako emaitzak eskuetan, udalbatza berriak osatzeko garaia heldu da. Oñatin ere bihar, 12:00etan, egingo dute osoko bilkura berezia alkate berria aukeratzeko.

Hauteskundeetako emaitzen arabera, Bilduk 11 zinegotzi izango ditu eta EAJk sei. Hori horrela, kargua hartuko duten 17 zinegotzi horiekin udalbatza eratu ahal izateko mahaia sortu beharko dute: zinegotzi gazteena eta zaharrena aukeratuko dituzte.

Mahaia eratu ondoren, kreditzialak banatuko dizkie udal idazkariak, eta zinegotzi kargua

hartuko dute guztiek. Ondoren, bozkatzeko uena helduko da. Ezustekorik ez badago Mikel Biain aukeratuko dute alkate. Orain arte alkate izan den Lourdes Idoiak makila emango dio, eta alkate gisa lehen diskurtsoa egingo du. "Astea ondo pasa dut, baina ordua heldu orduko urduri jarriko naiz. Hunkigarria izango da", esan digu Mikel Biainek.

#### Bildukoendako txostena

Bost urte alkate lanak bete ondoren, kargua utzi eta zinegotzi lanari ekingo dio Idoiak. "Lasai nago. Ondo. Bilduko kideei emateko txostena presatzen dihardugu", esan digu.

## Bihar eta etzi Arrikruz ikusteko sarrerak merkeago oñatiarrentzat

M.B. | OÑATI

Oñatiarrek aukera berezia izango dute Arrikruz bisitatzeko aste bukaeran. Bihar eta etzi (ekainak 11 eta 12), sarrerak erdi prezioan salduko dituzte. Hori horrela, hiru euro kobratuko dituzte txartelak -10 urte-ik beherakoak doan sartu ahal izango dira-. Bi egunetan goizez eta arratsalde zabalduko dute koba; hain justu ere, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Aste bukaeran koba ezagutu gura dutenek alde zurretik 943 08 20 00 telefonora deitu beharko dute derrigorrez.

#### Arrikruz barne-barnetik

Bestalde, Arrikruzen beste ikuspegi bat ikusi gura dutenek *Arrikruz barne-barnetik* delako ibilaldia egiteko aukera izango dute hilaren 18an. Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe multzo karsitikoa gertutik ikusi gura dutenek 943 08 20 00 telefonora deitu beharko dute. Hiru-lau orduko ibilbidea izango da, eta, besteak beste, Arrikruzeko eszentrika ikusteko aukera izango dute bisitariak.

Ibilbidea urrira arte egingo dute: uztailearen 9an eta 23an, abuztuaren 6an eta 20an, irailaren 17an eta urriaren 15ean.

## Ate irekiak egiten dihardute Txaloka ludotekan: hilaren 13an eta 15ean dira azken bi egunak

Txaloka ludoteka barrutik ezagutu gura dutenendako ate irekien egunak egiten dihardute zerbitzuaren arduradunek. Hilaren 13an, astelehena, eta 15ean, eguaztena, izango dira azken bi egunak (16:45-19:45). 2002tik 2009ra arteko umeek eta euren gurasoek izango dute aukera ludoteka nolakoa den ikusteko eta zein zerbitzu ematen duen ezagutzeko. Informazio gehiago: 943 25 07 15.

## Corpusetarako ekitaldietarako sarrerak salgai ipini dituzte kultura etxean, astelehenetik zapatara arte

Corpus jaien aitzakian, hilaren 24an eta 25ean antzerkia eta pailazo ikuskizuna egingo dituzte. Bada, horietarako sarrerak alde zurretik eros daitezke kultura etxeko sarreran, astelehenetik egubakoitzera 16:30etik 20:30era eta zapatuetan 10:00etatik 13:30era. Hilaren 24an Flipy eta Pepon Fuentesek *Dos con gafas* antzezlan egingo dute (Santa Ana, 22:30) eta 25ean Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoaren txanda izango da (Santa Ana, 17:00).

## Ulma Fundazioak hilaren 17rako antolatu duen bizikleta martxarako izenematea zabalik dago

Ulma taldearen 50. urteurreneko ospakizunen baitan, bizikleta martxa egingo dute hilaren 17an, Asier Maeztuarekin eta Leire Olaberriarekin. 9-14 urte arteko neska-mutikoendako martxa da, eta dagoeneko zabalik dute izenemate epea: 943 25 03 00 telefonon edo [fundacion@ulma.com](mailto:fundacion@ulma.com) helbidean. Adinaren arabera hiru talde eta hiru ibilbide egingo dituzte. Parte-hartzaile guztiek kaskoa erabili beharko dute.

## Umeak eta helduak elkartu ziren Asentzioko jaietan

Aste bukaeran ospatu zituzten Asentzio jaiak Murgia auzoan. Askotariko ekitaldiak egin zituzten, eta ume eta heldu asko batu ziren jaien usainera. Auzotarrek "eskerrik beroenak" eman gura dizkiete jaien antolatzaileei aste bukaeran egindako lanarengatik.



MARITERE GALDOS

# Infantil mailako eskubaloi jokalaririk onenak batuko dira bihar Oñatin

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako taldeek parte hartuko dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Orain dela bost urte hasitakoarekin jarraituz, Aloña Mendiko eskubaloi sailak V. Corpus txapelketa antolatu du biharko. Infantil mailako jokalaririk indartsuenak, etorkizunean punta-puntan lehiatuko diren harrobiko jokalaririk batuko dira Oñatin.

Zortzi talde izango dira nor baino nor gehiago: Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako infantil mailako mutilen eta nesken selekzioak.

## Sei jokalaririk onenak

Txapelketa 09:30ean hasiko da. Gipuzkoako eta Arabako mutilak lehiatuko dira. Ondoren, 10:20an, nesken txanda izango da. Eta lehia horretan ikusi ahal izango dira herriko ordezkariak, bai jokoan eta baita aulkitxoan ere. Gipuzkoako nesken hautatzailea eta entrenatzailea Iñaki Cantero oñatiarra da eta laguntzaile izango ditu Mikel Mantxola eta Irene Anduaga oñatiarrak.

Bestalde, jokalaririk onenak sei Aloña Mendiko ordezkariak dira: Uxue Agirre, Irene Gartzia, Leire Zelaia, Amaia Trojaola, Ainhoa Mantxola eta Ibis Ines Ugarte.



Agirre, Gartzia, Zelaia, Trojaola eta Mantxola. | MIKEL MANTXOLA

Hirugarren partidua 11:10ean jokatuko dute Bizkaiko eta Nafarroako mutilak. Goizeko azkena neskek jokatuko dute 12:00etan.

Txapelketako parte-hartzaileek eta antolatzaileek Pago Uso elkartean bazkalduko dute bi txanda-

tan. 15:30ean hasiko dituzte azken partidua. 17:10ean jokatuko dute finala mutilak eta 18:10ean neskek.

Sari banaketa ekitaldia 19:30ean egingo dute Zubikoa kiroldegiko kantxan.

## OHARRAK

### DEIALDIA

Egubakoitzean egingo dute oporren aurreko azken odol-ateratzea, Txantxiku ikastolako aretoan (18:00-20:00).

### ERREKALDEKO ZOZKETA

Errekaldeko jaietan saritutako zenbakiak dira: lehenengo saria, 4.526; bigarren saria, 4.651; eta hirugarren sariak, 2.206 eta 2.625. Txartelen jabeek jai

batzordeko antolatzaileekin jarri beharko dute hartu-emanetan.

### DEIALDIA

Irailaren 3an Oñatz eguna ospatuko dute. Taldearen 40. urterrena ospatzeko herri-bazkaria egingo dute. Txartelak salgai daude uztailearen 15era arte kultura etxean, Anton, Aloña eta Izarraitz tabernetan.

## Musika eskolakoentzako ikasturte bukaerako kontzertua gaur

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute gaur, 19:00etan. Ekitaldia hasi aurretik, Lengoia Musikaleko 4. mailako eta perkusio ikasleek batukada egingo dute; eta bukaeran, play-dance egingo dute Rioren *Like I love you* kantua erekin.

Kontzertuari dagokionean 10 talde eta 250 bat ikasleek parte hartuko dute. Euskal kantua *-Triste bizi naiz eta-*, modan dauden hainbat kantu *-Bad Romance-*, eta klasikoak *-The Beatlesen Yesterday* eta Mecanoren *Hijo de la Luna* eskainiko dituzte.

## Juan Plazaola eta Isabel Zubia omenduko dituzte

Erretiratuen Astea bukatzeko bazkaria egingo dute domekan kiroldegian, 14:30ean. Bazkaldu aurretik, Juan Plazaola (93 urte) eta Isabel Zubia (90 urte) omenduko dituzte. Hurrenez hurrez, ohorezko txapela eta zapia jasoko dituzte opari gisa. Erretiratuen omenaldian parte hartuko dute Udal Musika Bandak eta Oñatz dantza taldeak. Ekitaldi bana egingo dute. Bazkaldu ondoren, dantzaldia egingo dute eta sariak zozketatuko dituzte parte-hartzaileen artean.

Domekako ospakizunak mezarekin hasiko dituzte: parrokiaren, 12:00etan.

# BEZEROAREN EGUNA

## OSTEGUNERO 19:00etatik aurrera KALE ZAHARREAN

TABERNAK:

AKER, TXAKETUA, PUB ITURRI, IZARRAITZ, ONA, XAGUXAR, ONGI ETORRI eta HARRIPE.

# 20 urte bete ditu Hiruatxek pobretutako herriei laguntzen

Orain arte egindakoa gogoratu eta Brasilen abiarazi duen azken proiektuaren berri emateko ospakizun ekitaldia dute gaur iluntzean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Pobretutako eta garapen bidean diren herrialdeei laguntzea helburu duen Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeak 20 urte bete ditu. Hori ospatu, orain arte egindakoa gogoratu eta Brasilen abian jarri duen proiektuaren berri emateko ospakizun handia antolatu dute gaurko (19:00).

"Hiruatxekook aretxabaletarrakin elkarlanean mundua hobetzeko gure ekarpena egin dugu, apala baina beharrezkoa. Egindako 12 proiektuekin hiru kontinentetara iritsi da herritarren laguntzarekin eta gizaki asko baldintza hobetan bizi dira horri esker", jakinarazi diete Hiruatxeko kideek kolaboratzaileei. Izan ere, 20 urtean aretxabaletar askoren laguntza jaso dute.

## Proiektu berria Brasilen

20 urte bete eta lasaitu beharrean proiektu berriari ekin diote. Brasilgo ipar-ekialdean kokatu dute, Sergipe estatuan (Alto-Sertão eskualdea), MST (Movimiento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra) elkartarekin batera. Brasilgo estatu pobreenen artean dago hain zuzen, Sergipe. "Bertako gizon-emakumeen bizi baldintzak hobetzea da helburua, horretarako ekimen ekonomiko eta produktiboen sustapena bultzatuz, hain zuzen, esne kooperatiba", jakina-



Ekuatore Ginean egindako oilaskoak hazteko eraikina. | HIRUATX

razi dute Hiruatxekoek. Garatu gura dutenen artean bi proiektu daude: esne ekoizpen katearen azterketa sakona; eta esnea ekoizten duen taldearen formazioa, antolakuntzara begira.

DATUA

# 345

KOLABORATZAILE

Herritar askok lagundu dituzte proiektuak 20 urtetan, 345 bat lagunek.

## Proiektu berri jai giroan

Horren guztiaren berri eman, laguntza eskatu herritarrei eta 20 urteotako ibilbidea ospatzeko jaialdia egingo dute gaur Aretxabaletako hainbat talderen laguntzarekin. Mitarte kalean hasi (19:00) eta antolatutako bost gunetatik pasatuta, Arkuperaino joango dira jai giroan, baina egindako guztiaren berri emanaz. Gune bakoitzean proiektu ezberdinen argibideak izango dituzte.

Eta jaialdiari bukaera Arkupeko bigarren solairuan emango diote, Brasilgo proiektuaren berri eman eta Hiruatx 20 urteko ibilbidea jaso duen ikus-entzuzko eskainita.

## OSPAKIZUNA GUNERIK GUNE

### 1. GUNEA

**Non:** Mitarte kalea.

**Zer:** Indian egindako proiektuen berri.

**Zeintzuk:** Txalapartariak eta trikitilariak.

### 2. GUNEA

**Non:** Durana kalea.

**Zer:** Erdialdeko Amerikako proiektuak: Kolonbia, Nikaragua, Ekuador...

**Zeintzuk:** Bertsolariak.

### 3. GUNEA

**Non:** Durana, plaza barrena.

**Zer:** Afrikako proiektuak: Kongo, Mozambique, Ekuatore Ginea...

**Zeintzuk:** Jaiki elkarteak.

### 4. GUNEA

**Non:** Herriko Plaza.

**Zer:** Brasilgo proiektua.

**Zeintzuk:** Brasilen oinarritutako ekitaldia.

### 5. GUNEA

**Non:** Arkupe kultura etxe 2. solairua.

**Zer:** Azken proiektua (Brasil) eta Hiruatx 20 urteko ibilbidea.

**Zeintzuk:** Hiruatxeko kideak.



Amaia Irure, sariarekin. | M.A.

## Amaia Irure

Bertsopaperetan txapelduna

"Gaia zen 'Lore sorta egiten ari naiz', eta nik amari eskaini nion"

M.A. | ARETXABALETA

Gipuzkoako eskolarteko bertso paper lehiaketa jokatu zuten maiatzean eta Kurtzebarri eskolako Amaia Irure aretxabaletarra izan da 8 eta 10 urte artekoen artean txapelduna. Astelehenean jaso zituen irabazlearen txapela eta oroigarria Aitor Mendiluze bertsolariaren eskutik.

10 eta 12 urtekoen artean, ostera, Arizmendi ikastolako Ixak Sarasua aretxabaletarrak aipamen berezia jaso du.

## Saririk jasotzeko itxaropenik bazuen?

Ez, asko joan ginen eta txapelketara. Eta lehenengo saria jasotzea, ezta inondik ere.

## Oñatin izan zen, ezta? Zenbat joan zineten?

Bai, gura genuenok joan gitezkeen eta Kurtzebarri eskolakoak 30 inguru izan ginen. Baina beste ikastetxe askotakoak ere bazeuden.

## Zein lan egin behar izan zenuen?

Kopla bi edo bertso bat egin behar genuen gure adinekoek, gaia emanda, eta nik koplak egin nituen *Ama begira zazu* doinuarekin abesteko.

## Eta zein izan zen gaia?

*Lore sorta egiten ari naiz.* Amarendako egiten nebilela lore sorta hori jarri nuen, haren urtebetetze egunean opari egiteko.

## Samur egin zenituen?

Ez pentsa: hasieran, kosta egin zitzaidan errimarekin asmatzea, hori delako niretako zailena, baina gero, nahiko samur bukatu nituen.

## Gustuko duzu bertsolaritza?

Bai. Eskolan tailerrak egiten ditugu eta nik ikasturteko lehenengo lauhilekoan jardun nuen; oso gustura, gainera. Erpurutzoren gaineko bertso-antzerkia eginda bukatu genuen orduko proiektua, eta oso polita izan zen.

## Eta jarraitzeko asmorik?

Bai, bertsolaritza tailerretan jarraituko dut orain arte moduan.

## Ana Bolinaga alkate izendatuko dute bihar

Udalbatza eratu eta zinegotzi karguak hartuko dituzte bihar egingo duten eraketa bilkuran

M.A. | ARETXABALETA

Ezuste handirik ez bada, behintzat, Bilduko zerrendaburu Ana Bolinaga izendatuko dute bihar alkate. Udal eraketa bilkura egingo dute (12:00), gainerako herrietan legez, udalbatza eratu eta datozen lau urteotarako zinegotzi karguak hartzeko. 13 kidek osatzen dute udalbatza gurean, baina azken agintaldian 10 bakarrik izan dira -ANVkoak legez kanpo utzi zituzten-, oraingoan, guztiak dute kargua hartzeko asmoa.

## Bilduko eskuetan

Bildu nagusitu zen maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan eta zazpi zinegotzik hartuko dute kargua bihar: Ana Bolinaga, Lore Martinez, Zigor Quintanilla, Maider Aizkorbe, Edorta

Mendieta, Tomas Fernandez eta Jose Luis Martinek. Horietatik bi azken lau urteotan ere zinegotzi izan dira: Lore Martinez eta Edorta Mendieta, biak EAKoak.

Aralar izan zen bigarren indarra, eta, orain legez, hiru zinegotzi izango ditu: Inaxio Garro, Olaia Sagredo eta Joxe Anjel Antxia. EAJk bi zinegotzirekin jarraituko du: Mikel Uribebarria eta Mari Karmen Astigarraga. Eta Alderdi Sozialistak bakarrik izango du; azken lau urteotan ere zinegotzi izan den Ainhoa Sagarriribai.

Behin karguak hartuta Udal Gobernu batzordea osatuko dute datozen egunetan, eta ardurak banatu. Bilduk gehiago osoa dauka; hortaz, hark erabakiko du zelan egin gura duen lan.



## Bikain Aratzeko igerilariak!

Euskadiko igeriketa txapelketa jokatu dute adimen ezintasuna dutenek eta bikain jardun zuten Juan Carlos Barkero eta Alex Elortondo Aratzeko kideek -Iker Arexolaleiba eta Iñaki Iturbe ez ziren joan-. 25 metro crawl eran urrezko domina bana eskuratu zuten, bular-igeriketan zilarrezkoa Barkerok eta txandakako saioan -azpeitiarrek batera- brontzezkoa. Sagardotegian bazkalduta ospatu zuten gero igerilariak, eta animatzen jardun zuten senideek.

## Gaueko aisia antolatzenko batzarra dute gaztetxoek

Loramendik eta Udalak deituta afora eta batzarra dute bihar, gaztelekuan, 13 eta 18 urte artekoek

M.A. | ARETXABALETA

Aste bukaeratako gauetarako aisialdi programa antolatzea erabaki zuen Udalak gaztetxoendako orain hilabete batzuk. 13 eta 18 urte artekoek zuzenduta dago eta horien iritzia, asmoak eta nahiak ezagutzeko afora eta batzarra egingo dute bihar, zapa-tua, gaztelekuan.

### Gustuko ekintzak zehaztu

Gazteendako aisialdi programa hori bideratzeko ardura Loramendi Elkarteak hartu du eta hark bideratuko ditu biharko afora eta batzarra.

Hitzordua Atxagazte gaztelekuko atean -Arkupeko atzeko partean- egin dute (20:00) erostekak egiten joateko. Ondoren

afora gertatuko dute gaztelekuko sukaldean eta afalostean batzarra izango dute: "Guztia antolatuta eman behar euren gogo eta gustuen arabera programa egitea da asmoa", diote Loramendiko kideek. Hala, 13 eta 18 urte arteko herriko gazte guztiei egin diete dei eta batzarrean agertutako ideiekin datozen hilabeteetako ekintzak zehaztu dituztela iragarri.

Gauetako aisialdi programa abian jarri zutenean hilabetean behin ekintzen bat egiteko asmoa agertu zuen Udalak, "tabernetan egon behar beste aukera batzuk eskaintzeko". Eta lehenengo ekintza maiatzean egin zuten, disko festa hain zuzen, Euskerian Egunean.



Urrutia (Loramendi), Berridi (Gazte Ekimena) eta Xati (Murruxiko). | B. ZAMALLOA

## Ekimen bat jarri dute abian aisialdia eta euskara bat eginda

Loramendi, Murruxiko eta Gazte Ekimena daude ekimenaren atzean eta lehen ekintzak gertu dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Loramendi Elkarteak, Gazte Ekimenak eta Murruxiko Mendizale Elkarteak bat egin eta aisialdia eta euskara bateratuko dituen ekimena dute eskuarte. Lehen ekintzak iragarri dituzte udarako

eta izena emateko epea zabalik daukate (Loramendi).

### Aisialdia, kirola eta euskara

Hiru elkarrekin gertutasun fisikoak ez ezik -egoitzak oso gertuan- loraldia dutela lagun jakinarazi

dute antolatzaileek, eta antzeko helburudun asmoak dituztela konturatuta abiarazi dute ekimen berria: "Aisialdiaren bidez, Aretxabaletan euskararen erabilera sustatzea, autogestioaren eta autoeraketaren bidez aisialdia eta kirol eskaintza garatzea, aretxabaletarren arteko harremanak sortzea eta sakontzea, zaletasun berrietara ateak zabaltzea eta elkarrekin eta mugimenduen arteko harremanak eta elkarlana garatzea dira helburuak".

Hasteko, hiru ekintza antolatu dituzte udari begira: kanoa jaitsiera Urdaibai inguruan, kanoa jaitsiera eta kanpaldia. Aretxabaletar guztiei dago zabalik eskaintza: banakoei, koadrilei, familiei... Izena emateko Loramendiren egoitzara jo behar da (16:00-20:00).

## Kurtzebarriko kideek eskolako eguna ospatuko dute bihar

M.A. | ARETXABALETA

Ekintza mordoa eginda ospatuko dute bihar, hilak 11, Kurtzebarri eskolako eguna, ondo pasatzea helburu dutela.

### Irteerak, jolasak eta dantza

Irteerekin hasiko dute jaieguna: 8 eta 12 urte arteko ikasleak eta haien gurasoak bizikletan joango dira, eta txikiak, 3 eta 8 urte artekoak, mendira oinez.

Gero, jolasak eta tailerrak izango dituzte plazan (11:30) -aurpegi margotzea, marrazki lehiaketa...- eta bolo txapelketak ondoren (12:30). Bukatuta-

koan, *San Juan dantza* saioa egingo dute ikasleek plazan (13:00) eta mokadutxo eskaini gero.

Kurtzebarri tarta lehiaketako sari banaketa egingo dute eguerdian (14:00) eta bazkaltzeko elkartuko dira Triki-Kupela sagardotegi mugikorrarekin.

Bazkalostean, txikiak gaztelu puzgarriak izango dituzte eta gaztetxoek hainbat jolasen zirkuitua eta hiruko partiduak.

Eta jaieguna borobildu eta bukatzeko, dantzaldia izango dute pilotalekuan Bide Batez taldearekin.

## Behaketa astronomikoa eta hirugarren ibilbide historikoa ezagutzeko irteera Loramendirekin

Ekitaldiz betetako ekaina iragarri du Loramendi elkarteak; biharko, esaterako, behaketa astronomikoa antolatu du Ilatargi astronomia taldearekin. Kiroldegi aurreko zelaian jarriko dituzte teleskopioak (22:00-00:30), eta zerua behatu lainotuta ez badago.

Domekan, hilak 12, hirugarren ibilbide historikoa ezagutzeko irteera egingo dute (08:30ean, 82. kilometroan): Arkarazo-Bolina-ga (Boliña)-Areantza (Arientza)-Goroeta (Korueta).

## OHARRAK

### DANTZA IKASTAROA

Loramendi-Beinke dantza ikasteko saioak egingo ditu Loramendik astelehenean (19:00-20:00), uztailaren 4ra arte. Gaur da izena emateko azken eguna.

### 'REPUBLICADOS' ANTZEZLANA

Teatro Interior taldeak *Republicados* lana eskainiko du gaur Arkupen (22:00).

### ODOL ATERATZEA

Uda sasoiko azken odol ateratzea egingo dute astelehenean, hilak 13, osasun etxean (16:30-20:00).

### PIRRITX ETA PORROTX

*Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna izango dute umeez eguaztenean, hilak 15, plazan (18:00).




EHIGE

## Saria eskuan Kurtzebarrikoak

Domekan, Euskal Eskola Publikoaren 20. jaialdian (Bilbo) jaso zuten saria Kurtzebarri institutuko guraso elkarteko kideek. Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak (EHIGE) lehenengoz antolatutako hezkuntza-jarduera onen lehiaketako lehenengo saria eskuratu dute.

## MATRIKULA ZABALIK



Euskara ikasteko bide zuzena

## Udako ikastaroak 2011

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa kalea 2, 4 • ARETXABALETA  
Intxaurtxueta 10 • ESKORIALZA  
Tel.: 943 79 21 68  
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net  
Matrikulazioa: ekainaren 24ra arte

### ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 70 77  
euskalategi@arrasate-mondragon.net  
Matrikulazioa: ekainaren 17ra arte

HABEren dirulaguntzaz

www.udaleuskaltegiak.net



EUSKARAREN  
IRAKASKUNTZARAKO  
ENTITATE OFIZIALA



Azkoaga Enea hotolean egin zuten eguaztenean aurkezpena. | MIRIAN BITERI

## Apotzaga elizateraino helduko da aurten Errekan Gora programa

Uztailaren 3tik 23ra bitarteko asteburu guztietan izango dira emanaldiak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Errekan Gora programaren hari-  
ra, uztaileko sei kontzertu eta  
umeendako antzerki bat prestatu  
dituzte. Betiko moduan, askota-  
riko estiloetako taldeek joko dute;  
bada, oraingoan, Euskal Herrikoak  
izango dira guztiak. Horretaz gai-

nera, aurten, lehen aldiz, eliza-  
teetara iritsiko da programa; hain  
justu ere, Apotzagara.

Eguazten eguerdian Azkoaga  
Enea hotolean egindako agerral-  
dian, Aitzorrotz kultura elkar-  
tearen presidente Juan Luis  
Zubizarretak nabarmendu zuen

"pausoz pauso" aurrera doala  
ekimena. Honakoa esan zuen:  
"Gero eta indar handiagoa hartzen  
ari da; laugarren edizio honetan,  
umildadearekin esan beharra  
dago gero eta hobeto ari garela  
programa egiten eta arrakastatsua  
bilakatzen ari dela".

### Bitarteko guztiak

Agerraldi berean, Dorleta Lezeta  
jarduneko alkateak Aitzorrotz  
kultura elkartearen lana txalotu  
zuen, eta, "oso ondo" egiten ari  
dela aipatu ostean, gaineratu  
zuen Udalak bitarteko "guztiak"  
jarriko dituela horren alde.

## Astelehenean izendatuko dute Beñat Herce alkate

Zapatuan kargua hartu behar duten lau lagun ezin dira batzarrera joan, eta atzeratu egin dute

M.B. | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, osatuko dituzte udal berriak. Bada, Eskoriatzan astelehenean, hilak 13, egingo dute horren gaineko osoko bilkura, 19:00etan. Orduan hartuko dute kargua Beñat Herce Eskoriatzako alkate berriak eta udalbatza osatuko duten gainerako zinegotziek.

Hercek berak azaldu du bestelako zeregin pertsonalak direla-eta korporazio berriko 11 zinegotzietatik lau ezin direla zapatuko osoko bilkuran izan, eta, hori dela-eta, batzarra astelehenera arte atzeratzea erabaki dutela.

Bada, udalbatza osatzeko lanean jarraitzen dute. Martitzen arratsaldean, batzarra egin zituzten Bildukoek hautatuak izan diren gainerako udal ordezkariekin, Udalaren antolamendua, ardurak eta asmoak azaltzeko, eta "guztiei elkarlana" eskaini zieten batzar horietan. Orokorrean, bilkura horien balo-

razio positiboa egin du Hercek. Honakoa aipatu du: "Lanerako gogoia agertzea pozgarria da guretako. Horretaz gainera, albiste ona da Elizateek Udal Gobernuan sartzeko agertu duten asmoa; hainbat azpiatzorderen lidergoa izango dute. Ilusioarekin ekingo diogu ibilbide berri horri".

### EAJ, oposiziotik

Esan bezala, alderdi guztiekin egin dituzte asteon batzarra. Horren harira, Hercek jakinarazi digu EB-Berdeak taldeko ordezkariekin programak alde-ratu eta gizarte eta ingurumen gaitan gertuago egon daitezkeela ondorioztatu zutela, besteak beste; PSE-EE alderdiko ordezkariekin ere hainbat gaitan elkarlanean egiteko aukera dagoela ikusi zuten. Azkenik, EAJkoekin ere batu ziren. Alderdi jeltzaleko kideek azaldu zuten oposiziotik lan egiteko asmoa dutela.

## Amaiara borobila emango diote Aste Zapatistari

M.B. | ESKORIATZA

Aste osoan hitzaldiak eta beste-lako ekintzak egin ostean, egun osoko jaialdia izango da bihar, zapatua, zapatismoaren harira. Eguerdian, maien tatuajeak egiten egongo da Juanma Tatu, plazan. Jarraian, herri bazkaria egingo dute, janari mexikarrekin.

Bazkalostean, Rosa Sanchezek *Desde Costa Rica con amor* kantaldia egingo du. Alanbike erakustaldia ere izango da, Extremadurako Victor Errementariaren eskutik. Gauean, 22:00etan,

kontzertuak eta disko-jartzailea izango dira plazan.

Gaurko ere bi ekimen gertatu dituzte horren harira. 19:30ean, *Titirimundi pedaletan: Nekong ibaian zehar bizikletan* hitzaldia egingo du Josu Velaskok eta 22:30ean, *Eunon, bi kate, biak ebaki beharrekoak* antzezlanak izango da unibertsitatean, Jurgi Etxeberraren eskutik.

Bestalde, domekako hitzorduak zaharren egoitzan izango dira; hain justu, Rosa Sanchezen musika emanaldia eta Egiptoko dantzen ikuskizuna.

## Herri bazkari ekologikoa dute Luis Ezeizakoek biharko jaialdian

M.B. | ESKORIATZA


Urtero moduan, ikasturteari amaiara emateko jaialdia egingo dute Luis Ezeizakoek. Aurtengo festa, dena dela, berezia izango da: herri eskolak 40 urte bete ditu ikasturte honetan, eta, urteurrena dela-eta, ospakizunetan murgilduta dago. 11:00etan hasiko dira bihar, zapatua, ekimenak,

ikastetxeko neska-mutikoen emanaldiarekin; plazan izango da hori. Ordu bete geroago, eguerdian, jolasak izango dira toki berean.

Eguerdian herri bazkaria izango dute eskolako jolastokian. Biolurkoek bazkari ekologikoa gertatuko dute 50 lagunendako. Bazkalostean, berriz, askotari-ko ekimenak izango dituzte

### NIRE USTEZ

DORLETA KORTAZAR



Negua joan da ta...

A spalditxuen itxi geben negua atzien, eta loratu da udabarrira geurien be. Ikusi besterik ez dau ze mugimendu dauen herrixen, maiatzien hasi eta udazkenera arte. Adibidetakoa, gaiñien daukagun asteburua: zapatista eguna, Luis Ezeizako astia, Gabez Takarraran, manifik han eta hemen...

Ekimen batzuk barrixak die, beste batzuk aspaldiko urtietan martxan dazanak. Baina danak dauke oinarrixen ilusiñua, aldarrikapena eta borondatezko lan asko. Joan dan astien Arizmendi Ikastolak antolatutako 15. ferixie izan leike esaten ari nazenaren adibide garbixa.

Udalbatza barrixa be, zapa-tuen barik, astelehenetik aurrera hasiko da martxan (honetan be eskoitzarrak desberdin...). Gehixenak barrixak die lan honetan, eta seguru guztion laguntza eskertuko dauela.

Herrixak badauka hainbat erronka garrantzitsu datozen urtietarako, eta parte hartze prozesuak martxan jartzeko bidiak ezartzia udaletxiari dagokion arren, herritarren ekarpena nahitaezkoa izen-go da.

Ea honetan be maila erakusten douen, norbanako moduen hainbeste ekimen aurrera atarateko gai dan herrixa horretan ikustia espero dot.

Eta berandu barik, haste-ko, astelehenien, 19:00etan, azken udalbatzai agur esan ta barrixai dagokion ongi etorrixa eiteko aukera paregabia daukagu.

**"Danak dauke oinarrixen ilusiñua, aldarrikapena eta lana"**

umeek. Besteak beste, apar festa, puzgarriak, jokoak eta musika izango dituzte. Eguraldi txarra eaginez gero ekitaldiak jakinarazi dute Luis Ezeizatik. Horrekin batera, nabarmendu dute ekintza guztiak irekiak direla, eta edozeinek parte hartu ahal izango duela.

Bestalde, urteurrena dela-eta ikastetxearen ibilbidea jasotzen duen *Luis Ezeiza, 40 urte* erakusketa bisita daiteke bihar arte herriko kultura etxean.



**Enara Agirre eta Eider Arzelus** | Psikologo eta psikoterapeuta; irakasle eta sexu-hezitzailea

## "Hasiara-hasieratik hasi behar da komunikazioa lantzen"

- ▶ Gurasoei zuzendutako hitzaldia eman zuten bi antzularrek atzo eskolan
- ▶ Seme-alabekin komunikazioa lantzeak duen garrantziaz jardun zuten

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Enara Agirre haur, nerabe eta helduen psikologo eta psikoterapeutak, eta Eider Arzelus irakasle eta sexu-hezitzaileak hitzaldia egin zuten atzo eskolan: *Nola erlazioatzen, komunikatzen gara gure seme-alabekin?* Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaz berba egin dugu biekin.

**Nolakoak dira gaur egun guraso eta seme-alaben arteko komunikazio erlazioak?**

**Enara Agirre:** Galtzen gaude konfiantza guran guraso moduan. Informazio asko dago zer egin behar dugun eta zer ez dugun egin behar azaltzen, eta galtzen gaude gure gaitasunean jakiteko gure seme-alabak zer behar duen. Liburu baten irakurtzen dugunean, zer egiten dugu informazio horrekin? Ze hausnarketa egiten dugu? Liburu batzuk oso ondo daude, baina laguntzen baldin badigute hausnarketa egiten. Hausnartu behar dugu gu zelakoak garen, gure seme-alabak nolakoak diren, gure arteko erlazioa nolako den eta liburuko horrek zertan lagun diezagukeen.

**Nerabezaroan gertatzen dira arazo asko. Hautzarotik hasi behar da komunikazioa ondo lantzen?**

**Eider Arzelus:** Hasiara-hasieratik; jaio aurreko kontua da. Nerabezaroan eztanda egiten du denak. Aurretik egiten goaz bide guztia eta egiten den moduaren arabera,



Agirre eta Arzelus. | USOA AGIRRE

Guk ematen dugunetik zer jasotzen dute gure seme-alabek? Nahi duguna baldin bada bi urteko umeari azaltzea zer gauza dagoen ondo eta zer gaizki, azaltzen diogun moduaren arabera, jasotzen duena da oso-oso xumea.

**Badaude gai batzuk bereziki arduratu behar dituztenak gurasoak?**

**E. Agirre:** Ez diegu ematen daukan besteko garrantzia hasierako urteei. Oraindik ere askok esaten dute lehenengo urteetan ez direla enteratzen eta ez zaie kasurik egiten. Urte horiek oso garrantzitsuak dira, gure pertsonalitatearen oinarri horiek lehenengo urteetan garatzen baitira. Hor egin behar dugu lan asko.

**Umeekin erlazioatzeko orduan adinak zer garrantzi du?**

**E. Arzelus:** Komunikazio osasuntsu bat edukiz gero izango dugu laguntasuna, konplizitatea, elkartasun eta maitasuneko giroa, errespetua, finkatutako balioak... Hori galtzea izango litzateke gertatu litekeen txikiena. Baina hori baino larriagoa izan daiteke, psikosi bat, adibidez.

**E. Agirre:** Komunikazio arazoak dituzten umeak ikusten dira, agresibitatea dutenak, noraezean dabilzanak, norbere buruan konfiantzarik ez dutenak. Zenbat eta goizago eman falta hori, orduan eta larriagoa da.

Elkarrizketa osoa: [guraso.com](http://guraso.com)

### "Pertsonalitatearen oinarriak umearen lehenengo urteetan garatzen dira"

oztoporen bat gelditu bada gaititu barik, nerabezaroan irtengo dira, ez badira lehenago irten. Hasiararik landu behar da, familiako kide guztien artean armonia eta konfiantza egon dadin.

**Umeekin erlazioatzeko orduan adinak zer garrantzi du?**

**E. Agirre:** Ulermen mailaren arabera ere badago komunikazioa.

### Agintaldiko azken osoko bilkura

Eguaztenean egin zuten agintaldiko azken osoko bilkura lau urteotan udalean izan diren zinegotziek eta alkateak. Zinegotzi berriei laguntzeko prestutasuna eskaini zieten bilkuran egindako agur-hitzaldietan.



USOA AGIRRE

### NIRE USTEZ

FERNANDO LETE



### Bakearen atarian

**E**san dezakegu "Oraingoan Bai" zuhurtasunez baina ziurtasunez bake prozesu iraunkor baten atarian gaudela.

SORTUK, legez kanpo dagoen ezker abertzaleak bultzaturiko talde politikoak, ETA eta indarkeria guztiei uko eginez, pauso erabakigarria eman du legalizaziorako, eta BILDUREN bidetik emaitza ezin hobekak jaso ditu apustu berria bultzatuz.

Bake prozesuari ateak zabaltzeko beharrezkoak dira epe motzean indarkeriaren amaiera eta SORTUREN legalizazioa. Nazioarteko laguntza ere aipagarria da egoera ulertzeko, BRIAN CURRINEN inguruko taldeak, Bruselako adierazpe-

naren bidez, sinesgarritasuna eman dio egoera berriari.

Bakea lortzea, euskal gizarteari, alderdi eta erakundeei dagokie, baina, nazioarteko partaidetza lagungarria eta osagarria izan daiteke. Alde batetik su-etenaren egiaztapen ardura eramaten edo antolatzen, eta bestetik, bake prozesuak dituen eta izango dituen oztopoak gaituzten lagunduz, eta kanpoko laguntza antolatuz.

Madrilera begiratzuz presioak eta oztopoak dira nagusi, noraezean eta urduritasunez beteak daude, oraingo atek itxiz, baina, zirrikituak azalduko dira eta ezingo dute, bizi dugun uholde ilusioagarria geldiarazi. Bestalde, abertzaleek orokorrean eta ezker abertzaleak zuzenki barneratua du biolentziaren zikloaren amaiera.

### "Ezingo dute uholde ilusioagarria geldiarazi"

### Zinegotzien kargu-hartze ekitaldia bihar, 12:00etan

Bihar, zapatua, 12:00etan hartuko dute zinegotzi kargua maiatzaren 22an aukeratutako zinegotzi berriek. Bilduk zazpi zinegotzi lortu zituen, EAJk hiru eta PSE-EEk, berriz, 1. Ezustekorik ezean, Bilduko Inma Beristain izendatuko dute alkate zapatuko bilkura berezian.

### Hiru hilabeteen hondakinen %90 berreskuratu da

Emandako datuen arabera martxotik hona hondakinen ia %91 birziklatu edo berreskuratu da, eta %9 pasatxo baino ez da geratu errefusa moduan. Berreskuratutako %91 hori horrela banatzen da: organikoa da gehiena, %53; papera %20; eta ontziak ia %18.

### OHARRAK

#### ERAKUSKETA

Eskolako 5. mailakoen erakusketa egongo da Orlaranen aste bukaeran, 18:30etik 20:30era bitartean. *Etorkizuna gure esku dago* da erakusketaren gaia.

#### BIZIKLETA CHALLENGEA

Iralara igoera jokatu du zapatuan. 12:00etan irtengo dira txirrindulariak Ibarre auzotik.

#### GIMNASIA ERRITMIKOA

Gimnasia erritmikokoaren erakustaldia egingo da eguaztenean, 15:30ean, pilotalekuan.

#### UDARAKO KIROL ESKAINTZA

Orain arteko aukerez gain, tenisa, patinajea, dantza latinoak eta multi jarduerak praktikatzeako aukera eskainiko du gimnasioak. Izena emateko epea hilaren 13an amaitzen da.

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

#### ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

# Bidezko merkataritzari bai, nazioartean zein Aramaion

Azoka berezia antolatu dute Setem eta Aramailurrek ekainaren 18rako

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Kontsumitzeko beste era bat bada goela erakustea. Hori da, bi hitzetan, ekainaren 18an Herriko Plaza hartuko duen azokaren helburua. Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunaren bueltan antolatu du Gasteizko Setem gobernuz kanpoko erakundeak jaialdia-maiatzeko bigarren zapatuan egiten da, baina ekimena herriko agendetara moldatu behar izaten dute.

Hori bai, bidezko merkataritza mundu mailako eta, beraz, urruneko kontzeptu moduan ulertzen dute askok. Baina Aramaion-bereziki- bestelako kontsumo eraren adibide garbiak daude: hor dago Aramaio Baserri Barri egitasmoa eta, horren barruan, Aramailur kontsumo taldea. Noski, azokan hori ez da oharkabean pasako; bi taldeek elkarlanean antolatu dute ekimena.

Setemekoez jo zuten kontsumo taldera: "Udaleko teknikari baten bitartez etorri ziren, beste kontsumo talde batzuekin ere egin izan dute-eta. Guk ondo ikusi genuen, gure filosofiarekin bat dator", azaldu du Mikel Ocejia Aramailur taldeko presidentek. Eta honakoa gaineratu du: "Gurea ere bidezko merkataritza da. Setemek nazioartean egiten du lan eta guk herri mailan. Gure ekoizleekin zuzenean egin gura dugu tratua, inongo bitartekari barik, saltzen dutenagatik irabazi justuak izan ditzan".

Bada, bertako taldearen baiezkora ezin izan dute hobeto hartu Setem-ekoek: "Aramailur ekimena izugarria da, proiektuan nola

sinesten duten ikustea; indar handia dauka, izan ere, taldearen antolamendurako gaitasuna miresgarria da. Nor bere testuinguruan, ikuspuntuan bat etorri gara, erabat". adierazi du erakundeko kide Lut Vansant-ek.

Azoka antolatzea, gainera, erraza izan da Aramailur taldeko kideendako: "Eurak medio pilo bat daukate eta guk egin dugun bakarra izan da gure medioekin euren azokan integratzea".

## Hemengoak eta kanpokoak

Eguerdira arteko egitaraua presatatu dute. Ekintza ludikoak eta informatiboak uztartuko dituzte. Hau da, adin guztiendako eskaintza polita, merkea eta parte-hartzailea antolatu dute.

Azoka 11:00ak aldera irekiko da, gosari berezi batekin. Setemekoek eskutik, kafea eta bestelako produktuak dastatu ahalko dira. 11:30ean umeendako jolasak hasiko dira eta 12:30etik aurrera, berriz, tragoa eta pintxoak jateko aukera egongo da. 14:00etan zozketa egingo da tragoa eta pintxoak hartzen dutenen artean: aramaioko produktuez osatuta-



Aramailurrekoak martitzenero elkartzen dira baserriarekin udaletxean | NAIA BAILEZ

ko otzara bat eramango du irabazleak.

Gainera, goiz osoan zehar kanpokoko eta bertako musika entzun ahalgo da eta Sastiñan erakusketa txiki bat jarriko dute. Kanpoan, hau da, plazan bertan, Aramaioko produktuak-barazkiak, behi-esnea, ardi-esnea eta gazta, besteak beste- eta Setem erakun-

deak ekarritakoak egongo dira salgai. Egunero ikusten ez den horietako plana, beraz.

## Taldea, urte hasieratik martxan

Urte hasieratik dabil martxan Aramailur. Barazkiekin hasi ziren, otzara bat astero. Baserriarekin harreman estutzen doan heinean, bestelako produktuak hasi dira saskian sartzen: arrautzak, ardi eta behi esnea eta, azken astean, lehenengoz, okela. Gazta ere eskaintzen hasi dira. Martitzenero udaletxe azpian elkartzen dira ekoizle zein kontsumitzaileak.

Taldea ez da oraindik erregistratu baina estatutuak egin berri dituzte. Ocejak jakinarazi duenez, ateak zabalik daude taldean sartzeko; honako helbide elektronikora idatzi behar da: [aramailur@gmail.com](mailto:aramailur@gmail.com).

## ESANAK

**"Ekoizleekin zuzenean egin gura dugu, irabazi justuak izan ditzaten"**

MIKEL OCEJIA | ARAMAILUR

**"Aramailur izugarria da: indarra eta antolatze gaitasun handia"**

LUT VANSANT | SETEM

## NIRE USTEZ

XABIER AGIRRE



Ez al gara arabarrak?

Arabako egunkari batean, *Asterixen euskal herririka (La aldea vasca de Astérix)* bezala deskribatzen zuen kazetariak Aramaio, maiatzaren 10eko alean. Artikulu horretan, herri "bitxia" dela dio; izan ere, herri arabarra izanik bizkaierazko euskara egiten ei da eta gipuzkoar sentitzen ei gara aktibitate ekonomiko nagusia hango lantokiak direlako (Debagoiena). Lagunartean ezta-

baidatu genuen eta han esandako batzuk dira honako hauek: "Gipuzkoarrago sentitzen naiz, arabar baino", "Lanera Debagoienera joaten gara gehienak, gipuzkoarragoak gara"; "Hurbilago sentitzen dut zarauztarra, oiondarra baino"; "Arabaren euskararengatik egiten ari diren ahalegina ikaragarria da; beraz, euskaldun bezala hurbilago sentitzen naiz"; "Zergak Araban ordaintzen ditugu"... Rafael Cas-

tellanoren erantzuna igandeko *Berria*-n madrildarra ala debarra sentitzen zen galderari: "Ni gustura sentitzen naiz toki guztietan. Hona etorri eta euskara ikasten hastea oso naturala izan zen".

Aramaiora etorri garenok, *etorkin* garenok, zer esan behar ote dugu? Nik, behintzat, Arabako Aramaion bizi naizela esaten dut. Iñaki Perurenak Bilboko kazetariari esandakoa: "Sentituko ez sentituko?... hala naiz!".

## Ramon Ajuria lehen bozketan izendatuko dute alkate

J.B. | ARAMAIO

Bihar izango da inbestidura edo udal eraketarako eguna. Korporazio eta alkate berria eratzeko plenoa da, hain zuzen. Gero, 30 eguneko epea izango du udalbatza berriak beste pleno bat deitzeko eta pleno horretan udal batzorde bakoitzeko buruak aukeratu dira. Udaletxeko osoko bilkura arotoan izango da, 12:00etan.

Adineko mahaia delakoak gidatuko du eraketa prozesua. Hau da, egun horretan Udalak bururik ez duenez, adina izango da prozesua gidatzeko irizpidea. Zinegotzi zaharrenak eta gazteenak hartuko dute ardura hori.

## Bilduren gehiengo osoa

Eguneko lehen puntuan zinegotziak aukeratzeko dira eta zin egin beharko dute, banan-banan. Bigarren puntuan, berriz, alkate berria aukeratu da. Isilpeko bozketa bidez-zinegotzi bakoitzak balio bera duen boto bat- aukeratu da alkatea. Lehen txanda horretan norbaitek gehiengo absolutua lortzen badu, hori izango da alkate. Eta Bilduk gehiengo osoa lortu zuenez, Ramon Ajuria alkate izendatzea izatea espero da. Ez da aurreikusten bigarren bozketa bat egin beharko denik. Ohikoena da alkate berriak hitz batzuk esatea, Aramaioko alkate moduan egingo dituen lehen adierazpenak, hain zuzen.

## Bea Asurmendi aramaioarrak joko du gaur Sastiñan

Joan den egubakoitzean Jam Pak taldearen jazz, soul eta bossanova saioaren ostean, gaur Bea Asurmendi aramaioarraren ahots gozoa zuzenean entzuteko aukera egongo da Sastiñan.

Ekainerako Udalak abiarazi zuen ekimena da, herriarrei zuzeneko musika eskaintzea helburu duena. 20:00etan hasiko da kontzertua.

## Zea Mays taldearen kontzertua izango da San Martin jaietan

Jai batzordeak amaitzean dauka San Martin jaietako egitarau osoa. Jaiak uztailearen 1etik 4ra izango dira baina aurreko zein osteko asteburuan ere egongo dira ekintzak. Aurrekoan, arrantza txapelketa eta ostekoan, bertso afaria eta pilota partidua. Jaietan, berriz, Zea Mays taldeak joko duela ziurtatu dute.

## ELGETA

# Gisatu goxoena nork egiten duen Koadrilen Egunean jakingo dugu

Gisatu lehiaketa, herri bazkaria eta Arrabotsen erromeria ekainaren 18an

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bederatzi koadrilak hartu zuten iaz parte Elgetako II. gisatu lehiaketan eta lehenengo saria Iñigo Azkarragak eta Ramon Ugaldek eramane zuten. Datorren aste bukaerako zapatuan, ekainaren 18an, jokoan egongo da berriz ere *titulu* hori; izan ere, egun horretan egingo da III. Koadrilen Eguna.

Udaletik jakinarazi dute 10:30ean hasiko dela lehiaketa Herriko Plazan. Udalak ipiniko ditu mahaiak eta aulkiak, gainerako guztia koadrilek ipini beharko dute eta kazuelak aurkezteko epea 14:00etan amaituko da. Hamar lagunendako beste gisatu prestatu beharko dute parte-hartzaileek.

## Sari banaketa 14:30ean

Epaimahaikideak nortzuk diren sekretua da, baina badakigu gisatuaren zaporea (0-10 puntu) eta itxura (0-5 puntu) baloratzea izango dela euren lana. Sari banaketa 14:30ean egingo dute. Irabazlearendako 90 euro eta garaikurrak daude; bigarren sailkatuek 50 euro eramango dituzte eta hirugarren sailkatuek 25 euro.

## Bazkaria eta erromeria

Koadrilek prestatutako gisatuarekin herri bazkaria egingo da plazan. Sari banaketa egin ostean izango da hori. Mahaiak eta aulkiak Udalak ipiniko ditu.

Iaz bezala, bazkalostean erromeria egingo dute Arrabots taldeko kideek. Askotariko dantzak egiteko eta ikasteko aukera egongo da 17:30ean hasiko den erromeria horretan. Hala, HERRIXA Dantzan ekimeneko saioa Herriko Plazan egingo da ekainean.

## Autobus zerbitzua Bergarara

Bestalde, Bergaran aste bukaera honetan hasiko dira Mendekosteak. Festazaleek autoa hartu beharrik izan ez dezaten, Elgetatik ere gaueko autobus zerbitzua eskainiko dute bariku eta zapatu gauean. Jaisteko zerbitzua 00:30ean hasiko da eta orduro emango dute 05:30ak bitartean. Salbuespen bat dago 03:30eko zerbitzuan. Igotzeko zerbitzua, berriz, 00:10ean hasiko da eta orduro emango dute 06:10ak bitartean.



Erromeria duela bi urteko Koadrilen Egunean. | JOSETXO ARANTZABAL

## Bihar, zapatua, eratuko dute udalbatza berria

L.Z. | ELGETA

Udalbatza berria osatu eta alkatea aukeratu beharko dute bihar, zapatua, Elgetako bederatzi udal ordezkari berriek. Udalbatza eratze osoa 12:00etarako deitu dute.

Bilera bat baino gehiago egin dituzte aste honetan lau urteotan osokoa ordezkari izango duten alderdietako arduradunek. Negoziazio horiek zer eman duten eta batzorde ezberdinak nola banatuko dituzte zapatuan argituko da. Aurrez, ez dugu ezer jakiterik izan.

## Erretiratuek Lizarran egingo dute egun pasa ekainaren 23an

L.Z. | ELGETA

Xalbadorpe erretiratu elkarteak irteera antolatu du; Lizarra aldeira joango dira San Juan bezperan, ekainak 23. Aiegi herrian egingo dute lehenengo geldialdia, izan ere Iratxe monasterioa, upategia eta trufaren museo bisitatuko dituzte. Bazkaria ere Iratxen egingo dute.

Interesatuak ekainaren 17a baino lehen eman behar dute izena Pedro Mari Uberarekin harremanetan jarrita. Bazkideek lehenengo eguna izango dutela jakinarazi dute. Prezioa da 27 euro elkarte bazkideendako eta 35 ez bazkideendako.

## Urteko kuotak, domekan

Domekan, hilak 12, kobratuko dituzte erretiratu elkarte kuotak. Arduradunak Ozkarbi elkarte izango dira 11:00etatik 13:00etara. Kuota 10 euro da.

## Podologoa kultura etxean

Ekaineko kontsulta egunean, hilak 16, egingo du podologoa. Ohikoa den moduan, ezinbestekoa da alde aurretik txanda hartzea. Nati Arrietari -943 76 80 77- deitu behar diote interesatuak. Eta esan beharra dago aurrerantzean kultura etxean emango dela podologia zerbitzua. Igogailua dauka eraikin horrek.

Lan kontuengatik Mexikon egon arren Otsoa, biharko hemen izango dela iragarri du, ezustekorik ez bada behintzat.

Harekin batera zinegotzi kargu hartuko dutenak dira: Mikel Gonzalez, Iñaki Agirreurreta, Asier Ugarte, Imanol Saez de Viteri, Jose Luis Zabala eta Montserrat Valerio.

Lanean hasteko gertu daudela jakinarazi dute zinegotzi izango direnek, eta eskainitako konfiantzari behar bezala erantzuteko asmoa dutela gaineratu.

## Erlezaintzari buruzko ikastaroa gaur 19:00etan Ozkarbi elkarte

L.Z. | ELGETA

Elgetako baserriarren kooperatibak antolatuta erlezaintzari buruzko oinarritzko ikastaroa egingo dute gaur, barikua, Ozkarbi elkarte.

Larrabiltxo baserriko eta baserriarren kooperatibako presidente Luis Mari Arantzetak gidatuko du saioa. Ikastaroak bi atal izango ditu: 19:00etan hasita azalpen teorikoak emango dituzte Ozkarbi elkarte. Erleak nola bizi diren, nola tratatu behar diren, behar izanez gero erregina nola apartatu behar den... Askotariko azalpenak emango ditu etxean 40 bat erlauntza dituen Luis Mari Arantzetak.

## Saio praktikoa Larrabiltxon

Baserriarren kooperatibatik adierazi dute laburra izango dela saio teorikoa eta jarraian saio praktikoa egiteko aukera izango dutela parte-hartzaileek.

Larrabiltxo baserrian ditu erlauntzak Luis Mari Arantzetak eta bertara eramango ditu ikastaroko parte-hartzaileak. Hala, saio teorikoan azaldukoak bertatik bertara ikusteko aukera izango dute interesatuak.

Ikastaroa irekia da eta nahi duen orok izango du bertan parte hartzeko aukera. Nahikoa da 19:00etan Ozkarbi elkartera joatea.

## Ikasturte amaierako irteerak gaur Herri Eskolan; txikiak Elorrion dira eta gainerakoak Donostian

Hutsik dago gaur Elgetako Herri Eskola. 2 eta 3 urteko geletako haurrak Elorrion dira; baserri bat ikustera joan dira. Gainerako eskola-umeek, berriz, autobusa hartu dute Donostian egun pasa egiteko. Besteak beste, Txuri Urdinen izango dira patinaje saioa egiten. Astelehenean eta martitzenean jai izango dute, Bergarako jaiak direlako.

## Eskola txikien festa domekan, hilak 12, egingo dute Abaltzisketan; elgetarrak ere izango dira bertan

Herri eta auzo txikiak bizirik lelopean egun osorako egitaraua prestatu dute domekarako Abaltzisketako eskola txikiko lagunek. Frontoian eskolako eskulanak ipiniko dituzte ikusgai, idiak egongo dira haurrak karroarekin ibiltzeko eta Laguntasuna errondailaren emanaldia ere iragarri dute. Elgetako eskolatik ere joango da jendea.

## Ferixa Nagusiko barikuan eta zapatuan erdigunea oinezkoendako izatea nahiko luke Udalak

Jaietan erdigunea ibilgailuei itxi eta zirkulazioa Berraondokotik bideratzea da asmoa. Foru Aldundiak eman behar du horretarako baimena, eta Udalak egin du eskaera. Bestalde, erretiratuei jakinarazten zaie salgai daudela jaietako bazkarirako txartelak. Ekainaren 25era bitartean eros daitezke, udaletxean, Ugari dandan eta harategian. Prezioa hamar euro da.

## Azken egunak ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko; ekainaren 15ean amaitzen da epea

Elgetarrok bi udal zerga ordaintzen ditugu urte sasoi honetan: ibilgailuen gaineko zerga eta kontribuzioa. Lehenengo ordaintzeko epea eguaztenean, ekainak 15, amaituko da. Kontribuzioaren ordainketa egiteko epea ere laster amaituko da: ekainaren 30a da azken eguna.

## LEINTZ GATZAGA

## Udalbatza osatu eta Eugenio Otsoa izendatuko dute alkate bihar

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Bihar, hilak 11, egingo duten udal eraketa bilkuran, udalbatza berria osatu eta zinegotzi karguak hartuko dituzte Gatzagako Hautesle Elkarteko kideek. Gainerako herri gehienetan ez bezala, 13:00etan izango da ekitaldia.

Datozen lau urteotarako udalbatza osatuko dute bihar; zazpi

zinegotzi dituen udalbatza, hain zuzen. Eta Gatzagako Hautesle Elkarteko kideak izango dira guztiak maiatzaren 22ko hauteskundeetan nagusi izan zelako 121 boto jasota -PPk bakarrik-. Eugenio Otsoa Ugalde izendatuko dute alkate eta jardunean dagoen Eusebio Villarren eskuetatik jasoko du alkatetzaren sinbolo den koroa.

## Dorleta pilota txapelketako finalerako postuak daude jokoan domekan

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Domekan, hilak 12, Dorleta pilota txapelketako lehiak izango dira pilotalekuan; oraingoan, finalerako postuak dituzte jokoan hainbat bikotek. Benjamenen, haurren eta beterranoen partiduak izango dira.

Bigarren mailako beterranoek hasiko dituzte eguneko norgehiagokak (09:00), lau par-

tidu jokatuko dituzte eta Gatzagako bi bikote izango dira: Heriz eta Bengoa, Arrasateko Azpilikueta eta Kortaren aurka; eta Barandiaran eta Aizpuru, Eskoriatzako Arrese eta Pagaldaireren aurka. Ondoren, lehenengo mailako beterranoek, haurrek eta benjaminen jokatuko dute, partidu bakarrik maila bakoitzean.

## EKAINEN SARIAK

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA



LIBURU SORTA UMEENTZAT



EUSKAL RIP-EN DVD-A



DVD-A



## ZINERAKO SARRERAK



Florida Guridi

Bazkide  
egiteko

Tel.: 943 25 05 05  
e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
[www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)  
Urteko kuota: 48€

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!

### MENDI LASTERKETA

Julen Ezeiza | Antolatzailea

# "Ea proban ilargi beteak laguntzen digun"

- Bihar egingo dute lehenengoz Gabez Takarraran lasterketa
- 23:00etan hasiko dute 20 kilometroko proba

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Atxorrotz ingurutik bueltan egon gara Julen Ezeizarekin (Eskoriatza, 1962). Biharko lasterketako ibilbidea erreparatzen ibili da, bota duen euriarekin mendiko bideak zelan dauden ikusten. Aurreikuspenen arabera, zapatuan eguraldiak hobera egingo du; badirudi korrikalariak ilargi betearen laguntza izango dutela lasterketa egiteko.

#### Zela bururatu zitzaizuen horrelako lasterketa bat antolatzea?

Abenduaren 31n lagun koadrila eder bat elkartzen gara urtero silbestrada egiteko. Ez dugu lasterketa egiten, batera egiten dugu korrika eta azken kilometroan nahi dutenek aurrera egiten dute. Kontua da ederto pasatzen dugula eta herrian atletismo hitzorduak faltan igartzen ditugula.

Eskoriatzak beste kirol arlo batzuetan eskaintza polita du, baina atletismoa eta mendia bateratu nahi genituen, eta horrela hasi ginen kirol elkartearen lasterketa honekin lanean.

#### Zelako ezaugarriak ditu probak?

Lasterketak 20 kilometro ditu, eta mila metroko desnibel positiboa du. Bistan dago ez dela denek egiteko moduko proba, baina korrikan egitera ohituta daudenendako proba polita da. Eskoriatzako bi aldeak sartu nahi genituen ibilbidean, mendira goazenean normalean Kurtzebarri ala Atxorrotz aldera joaten gara-eta, baina Asentzio aldean ere paraje politak daude, eta hor egingo dugu lasterketaren lehen zatia. Alde horretatik, ez gara mendi tontorrekin itsutu, ibilbidea gehiago da mendi magaletan barrena.

#### Zelako bideak dira?

Korrika egiteko pista onak dira, zabalak. Baina, tarte batzuetan, bidexkatan ere ibiliko dira korri-

kalariak. Dena dela, ibilbide ederra da, eta probaren erdian Eskoriatzatik pasatzen garenean, plazan girotxoa egongo da; hala, eguraldiak laguntzen badu, laino askorik ez badago, ilargiak izugarri lagunduko digu.

#### Gauetz da lasterketa; zergatik?

Gauetz korrika egitea gozada galanta delako. Ez du egunez korrika egitearekin zerikusirik, beste lasaitasun bat izaten da, baina aldi berean zentzu guztiak erne izaten ditugu... beste paisaia bat, eta, gainera, ilargi beteak laguntzen badigu, ia ez dugu linternen beharrik izango. Hori bai, jendea linternekin -frontala- etor dadila [Barre]. Pilarik ez duena



Julen Ezeiza, aste barruan, Gabez Takarraran me...



Hiru Handiak probako hasiera, iaz. | XU.

## Gauetz, eta argia norberak eramanda

Inguruan gauetz egiten diren mendi lasterketen gainean, Hiru Handiak da izen handien duena. Bi urtean behin egiten duten probak, baina, 100 kilometro ditu, eta lasterketaren hasiera egiten dute gauetz. Halakoetan komeni da proba egin aurretik entrenatu ere gauetz entrenatzea. Zapatuko lasterketarako antolatzaileek pilak banatuko dituzte korrikalarien artean, ilargi beteak nahi beste argi ematen ez badu, gertu egoteko.



Mendi lasterketako kartelarekin. | XABIER URTZELAI

egon dadila lasai, Cegasa etxeak pila mordoa eman dizkigu-eta irteeran banatzeko.

**Oraindik badago izena emateko astia.**

Bai, lasterketa hasi baino apur bat lehenago itxiko dugu izenemate epea; hortaz, azken orduan dabilenak ere ez du arazorik izango. Lehenengo lasterketa da, eta ez genuen mugarik jarri nahi.

**Jende asko espero duzue?**

Bada, Eskoriatzatik koadrilatxoia etorriko da, 15-20 lagun bai, eta zenbateko polita da. Debagoiengan ere korrika dabilen jende asko dago, eta euretako asko mendiko lasterketetan ibiltzen dira. Aloña-ko Igoeran egon zirenak, Zegama-Aizkorri maratoia egin zutenak... Espero dugu Oñatitik jendea etortzea, eta Ehun Miliak proba egin nahi dutenendako ere entrenamendu ona izan daiteke, ez distantzia aldetik, gurea motza da-eta harekin alderatuta, baina bai korrika gauez egitera ohitzeko.

**Aurreratu duzu plazan giro polita egongo dela. Baina ibilbideko bes-**

**"Gauez korrika egitea gozada galanta da, oso berezia"**

**"Lasterketa Mandobidetik ikusiko nuke, leku ona da"**

**te lekuren bat aukeratu beharko bazenu proba jarraitzeko...**

Hasteko, gure lasterketarekin batera zapatisten jaia ere egingo dute zapatu gauean Eskoriatzan, horregatik diot giro polita egongo dela. Lasterketa jarraitzera mendi aldera egin beharko banu, berriz, Mandobidea aukeratu nuke, handik korrikalariak zelan datozen ondo ikusiko da-eta, para-je ona da.

## ATLETISMOA

### Uztailaren 3an egingo dute Torreazoko krosa

X.U. | OÑATI

Zabalik dago Antxintxiketan atletismo taldeak uztailaren 3an egingo duen Torreazoko lasterketan izena emateko epea. Internetez ([www.kirol-probak.com](http://www.kirol-probak.com)) eman daiteke izena, edo Oñatiko Mendizabal dendan. Lasterketan parte hartzeko 8 euro ordaindu behar dira; 12, izenemate egunean bertan eginez gero.

Bestetik, Ritxar Fernandez oñatiarrak Arabako enpresen lasterketa irabazi zuen joan den astean, Alberto Ibañez gasteiztarrarekin batera. Oñatiarrak 16.12ko denbora egin zuen bost kilometroan.

## MENDIA

### Ekainaren 19an egingo dute Txikirri-Txikirri mendi zeharkaldia

Txikirri-Txikirri VIII. mendi ibilaldia hilaren 19an egingo dute, domekan. Irteera ordua 07:00etarako jarri dute. Mendi zeharkaldian parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, ibilaldia hasi baino ordu bat lehenago (06:00etatik 07:00etara, 5 euro). Eskoriatzan hasita, 40 kilometroko ibilaldia egingo dute Kurtzebarri, Degurixa, Leizargarate, Bentafria eta Jarindo eta Apotzaga inguruetatik pasatuta.

## ZIKLISMOA

### Emakumeak eta ziklismoa: hilaren 17an mahai-ingurua

Ekainaren 18an, zapatua, egingo dute Osintxun emakumezkoen lasterketa -Gipuzkoako txapelketa- eta hilaren 19an Euskadiko txapelketa jokatu-ko dute Zizurkilen. Bi hitzorduok aprobetxatuta, ekainaren 17an, egubakoitza, mahai-ingurua egingo dute Bergaran, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Eneritz Iturriagak, Ana Usabiagak, Arritxu Iribarrek eta Ainhoa Azurmendik egingo dute berba.

## GOITIBEHERAK

### Euskal Ligarako baliagarria den proba bihar Bergaran

Bergarako Pazko jaien barruan goitibehera lasterketa egingo dute bihar, zapatua, Gorla Racing taldearen laguntzarekin. Batetik, herri mailako goitibeherak hartuko dute esku, baina baita Euskal Ligan dabilzanek ere, Bergarako proba puntuagarria izango da-eta.

Hala, 16:00etan hasiko dute lasterketa, eta goitibeherak San Martzialen behera egingo dute.



Euskal selekziokoak, Mojategin jokatuako lagunartekoan. | GOIENA

## ERRUGBIA

### Arrasate Errugbi Taldekoak haserre daude AUKEArenekin

Klubak teknifikazio saio batzuk antolatzearen ordaindu egin behar duelako sortu da haserrea

X.U. | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldekoak haserre daude AUKEArenekin. Arrasateko klubak Euskal Herri mailan teknifikazio saio batzuk antolatuko ditu, baina Mojategi erabiltzearen ordaindu egin beharko dutela adierazi die AUKEAk. Erantzun horren harira, ARTko arduradunek "lotsagarritzat" hartu dute AUKEAren jokabidea. Hala, klub zuri-moreak AUKEAren ardura bakarra kudeaketa ekonomikoa dela salatu du, "kirola sustatzearen garrantzia alde batera utzita".

Teknifikazio saioak Arrasateko ekartzeko asmoa adierazterakoan, kirol entitateak instalazioak erabiltzen diren ordu bakoitzeko 64,60 euro eskatu dizkio Arrasate Errugbi Taldeari, eta ikastaroan parte hartuko duten pertsonen sarrera ordaintzea. ARTkoek onartu dute ez zutela halako erantzunik espero, eta adierazi dute Eroskiko aparkalekuan egin beharko dituztela saioak.

**AUKEAren erantzuna:**

"AUKEAk kudeatzen dituen instalazioetan kirola praktikatzeko ahalbidetzearen alde lan egiten du eta eskaera guztiak aurrera eramateko ahalegin guztiak egiten ditu. Finkatuta dauden baldintza eta prezio publikoetatik aparte beste baldintza batzuekin instalazioak erabili nahi badira, horrela eskatu behar da kasu guztietan, eta onartu ala ez, Zuzendaritza Batzordean egiten da". Eta, AUKEAren esanetan, maiatzaren 30ean egin zuten batzarrean ARTk ez zuen zehaztu ze behar izango zituen.

Alde horretatik, AUKEAko presidente Jolanda Perez de Arenazak gaineratu du ulertezina iruditzen zaiola eskaerarik egin gabe ARTk haserrea prentsan plazaratu izana: "Errugbiko lehendakaria AUKEAko Zuzendaritza Batzordeko kide izanda ezagutu beharko lukeelako zein den funtzionamendua, eta kobraketak herritar guztiei egiten zaizkiela egunero, eta ez hemen bakarrik, kiroldegi guztietan".



JAIONE CARPINTERO

## FUTBOLA

### Vicente del Bosque Arrasaten

Atzo, eguna, Espainiako selekzioaren hautatzailea Arrasaten izan zen. Agenda bete-betea badu ere, Arrasateko Gureak enpresan bisita egiteko denbora atera zuen. Era berean, JMA enpresatik ere pasatu zen. Gureak-eko langileak oso pozik azaldu ziren iaz munduko kopa irabazi zuen hautatzailearen bisitarekin.

## Gremioen gida



## Jatetxeen gida



# NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

## Osasun zerbitzuen gida



## Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## KULTURA

# Duintasuna eta edertasuna

- ▶ Arizmendi Ikastolak Photomiradas argazki lehiaketa antolatu du aurten lehenengo aldiz
- ▶ Erizaintzako laguntzaileen eta nagusien gaia landuko dute argazkien bitartez

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Argazki lehiaketetan edertasuna bilatzen da. Argazkiaren edertasuna. Arizmendik antolatu duen lehiaketan, edertasunaz gain, gai sozial bat mahai gainean jarri eta lanbide bati dagokion duintasuna berreskuratu gura da. Hori izango da Photomiradas lehiaketaren xedea. Erizaintzako laguntzaile lanbidearen garrantzia azpimarratzea.

Lehenengo aldia da Arizmendi Ikastolako lanbide heziketak Photomiradas argazki lehiaketa antolatzen duena. Gizarte Kutxaren laguntza izango dute. "Ideia irakasle eta ikasle multzotik irten zen eta gu jarri ginen Kutxakoe-kin harremanetan", azaldu du Txomin Heriz Arizmendiko irakasleak.

## Tituluaren beharra

Erizain laguntzaileak eta gure nagusiak gaia aukeratzaren helburua Arizmendik eskaintzen duen titulazioa bera ezagutzera ematea izan da, besteak beste: "Titulazioa ofizialki ez zen ezagutzen eta, gainera, krisialdian oso argi ikusi da edonork egin ahal zuela lan, titulazio barik", azaldu du Herizek.

Horrez gain, erizaintzako laguntzaile lanbidearen garrantzia azpimarratu gura izan dute; humanitate, enpatia, profesionaltasun eta duintasun kontzeptuen ikuspuntutik.

## 16 urtetik gorakoei zuzendua

Lehiaketa 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago, Euskal Herrian eta Espainian bizi direnei. Par-



Edurne Erauskin –Lanbide Heziketako zuzendaria– eta Arantza Hernandez eta Txomin Heriz –Arizmendi Ikastolako irakasleak. | EDURNE BALTZATEGI

taidetza galarazita dago epaimahaiko kideei eta Arizmendi Ikastolako langileei; eta adingabeek gurasoen edo tutorearen baimena beharko dute.

Argazkiak edozein kamera digitalekin atera daitezke eta teknika librea izango da. Argazkiak koloretan, zuri-beltzean edo biratuak izan daitezke, eta gura duenak editatzeko aukera izango du. Ukitu txikiak egin ahal izango dira, baina ezingo dira jatorrizko irudirik elementuak ezabatu edo gehitu; fotomuntaketarik ere ez da onartuko.

Egile bakoitzak bost argazki aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. Bestalde, bilduma onenaren saria eskuratu ahal izateko, hiru, lau edo bost argazki aurkeztu beharko dira.

## Publikoaren saria

Publikoak ere bere saria emateko aukera izango du lehiaketan. Hain zuzen, hirugarren saria, 200 eurokoa izango da publikoak emango duena. Publikoaren saria eskuratzeko, argazkiak Facebook sare sozialera igo beharko dituzte egileek, eta botoak ere facebook

bidez eman beharko dira, [www.facebook.com/photomiradas](http://www.facebook.com/photomiradas) atarian.

Epaimahaia dagoeneko osatu dute: "Argazkigintzan adituek eta jardunean dabilzan erizaintzako laguntzaileek parte hartuko dute epaimahaian", azaldu du Herizek.

## Lanak aurkezteko epea

Izen-ematea ekainaren 15a baino lehen egin beharko da [www.arizmendipro.eu](http://www.arizmendipro.eu) edo [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) atarian; eta lanak ekainaren 20a baino lehen bidali beharko dira. Epaimahaiaren erabakia ekainaren 28an jakingo da, eta astebete geroago sariak banatu-

ko dituzte. Aurkeztutako lanekin erakusketa egitea aurreikusitako dute. "Kutxarekin hitz egin dugu, eta, lehiaketaren maila handia bada, erakusketa ibiltaria egin daiteke, Kutxako bulegoetan jarriko dena ikusgai", dio Herizek. Epea zabalik dago, hortaz, lanak bidali eta parte hartzeko.

## ESANAK

**"Krisialdian ikusi da edonork egin duela lan erizain laguntzaile"**

**"Lanen maila handia bada, erakusketa ibiltaria egingo dugu"**

TXOMIN HERIZ | IRAKASLEA

## Argazkiak aurkezteko modua

Argazkiak modu honetara aurkeztu beharko dira derrigorrez: formatu digitalean JPG edo antzerako formatuan, eta paperean, oster, 30x40ko argazki paperean, *pass partous* kartulina beltz baten muntatuta eta 5 zentimetroko marko batekin aurkeztu beharko dira argazkiak. Paperezko lanak ondoko helbidera bidali beharko dira: Arizmendi Ikastola, Lanbide Heziketa. Erizaintzako Zaintza Osagarriak/ Argazki lehiaketa. Otolara kalea, 8. 20500, Arrasate.

Argazkiaren atzealdean egilearen gaitzizena ipini beharko da, eta gutun-azal batean egilearen datuak: izena, deiturak, NA, helbidea, telefonoa eta e-maila. Gutun-azalaren kanpoaldean gaitzizena agertu beharko da. Artxibo digitalak paperezko argazkiekin batera CD baten bidali beharko dira. Artxiboaren gehieneko pisua 6 MB izango da eta txikiena 1 MB batekoa.

Argazkiak 2011ko ekainaren 20a baino lehen bidali beharko dira aipatutako helbidera. Ondoren, epaimahaia erabakia hartuko du. Hori ekainaren 28an izango da.

## Sariak

Epaimahaik hartutako erabakia ezingo da aldatu. Hiru sari banatuko dituzte argazkirik onena saritzeko; eta, bilduma onenarendako beste sari bat egongo da.

- ▶ Lehenengo saria: 800 euro.
- ▶ Bigarren saria: 400 euro.
- ▶ Hirugarren saria: 200 euro.
- ▶ Bilduma onenaren saria: 800 euro.

# Bertsolari sariketako azken saioa gaur Aramaion

Uribarriko elkartean lehiatuko dira lau bikote finalerako txartela eskuratzeko, 20:30ean hasita

**ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO**  
Debagoieneko binakako bertsolari sariketako laugarren eta azken bikotea gaur erabakiko da Aramaioko Uribarri auzoan. 20:30ean izango da saioa; bertso afaria egingo dute.

Hirugarren kanporaketa horretan parte hartuko duten bertsolariak dira: Manex Agirre, Maria Izaga, Andere Arriolabengoa, Sabin Aranburu, Iker Agirre, Beñat Burgi, Iñaki Viñaspre eta Beñat Zalakain. Kanporaketa horretatik bikote bakarra sailkatuko da finalerako.

## Dagoeneko sailkatu direnak

Joan den egubakoitzean Uberan jokatu zuten bigarren saioa. Jokin Labayen eta Ane Zuazubiskar sailkatu ziren finalerako; bestalde, Oñatiko San Migel Txikitán jokatu zuten bigarren saioa, Urko

Egaña, Josu Igartua, Gorka Larrea eta Joseba Lasagabaster sailkatu ziren Arrasateko finalerako.

Finala datorren domekan izango da, hilaren 19an, Arrasateko gaztetxean.

## Gazteendako plaza berria

Aramaio, Arrasate, Bergara eta Oñatiko bertso eskolak parte hartzen dabilta txapelketan. Txapelketaren helburu nagusia bertsolari gazteendako plaza

berria izatea da. Hala ere, beste helburu garrantzitsu batzuk ere baditu txapelketak. Besteak beste, Debagoieneko bertso eskolen arteko harremanak sendotu eta bertsolariak euren artean ezagutzeko helburua dago. Eta baita bailaran bertsolariak sustatzeko asmoa ere.

Orain arteko saioak "txukunak eta umoretsuak" izan dira eta uste dute gaurkoa ere horrelako izango dela.

## Gpuntua: lehen fasea amaituta

Urretxu-Zumarragan jokatu ziren bi saioekin bukatu da Gpuntuaren lehen fasea. Hogeita hamabi bertsolari sailkatu dira irailean jokatu diren final-zortzirenetarako; tartean, bi debagoiendar. 20 saio jokatu dira, guztira, maiatzaren 8an hasi eta ekainaren 5era bitartean, 10 herritan. Antolakuntza taldeak lehen faseak "aho zapore gozoa" utzi duela nabarmendu du.



Uberan jokatu zuten bigarren saioa. | XI.

# Adierazpen askatasunaren aldeko eguna egingo dute bihar Oñatin

**A.E. | OÑATI**

Reala bigarren mailan zegoela Salamancan jokatu zuten partiduan, Helmantico futbol zelaian, *Euskal Presoak Euskal Herrira* zioen pankarta erakustearren isuna ipini zioten Oñatiko gazte bati. 4.000 euroko isuna, hain zuzen ere. Bada, isunari aurre egiten laguntzeko, adierazpen askatasunaren aldeko eguna ospatuko dute bihar, herritar talde batek antolatuta.

"Ahal den neurrian laguntzeko" asmoarekin antolatu dute biharko eguna. Beste arrazoiak dira, bate-tik, isuna ordaintzeko dirua ateratzea eta, bestetik, gertatutakoa kontatzea.

## Goizean, txikiteoa

Egun osoko egitaraua prestatu dute. Festa 13:00etan hasiko dute Anton tabernaren aurrean eta ondoren txikiteoa egingo dute herriko tabernetan. 14:30ean bazkaria egingo dute *berduri hall*

## EGITARAUA

### EKAINAK 11

**13:00** Poteoa Anton tabernan hasita.

**14:30** Bazkaria.

**19:00** Manifestazioa.

**21:30** Kontzertua Porco Bravo eta Sermond's taldeekin.

plazan –merkatuan–. Bazkarian parte hartu gura dutenek txartelak erosi ahal dituzte Boga eta Arrano tabernetan zazpi eurotan. Gainera, bazkal ondorengoa girotzeko, bertso saioa egingo dute hainbat bertsolari.

19:00etan txaranganifa –manifestazioa, txaranga girotuta– eta txikiteoa egingo dituzte kalerik kale, eta eguna bukatzeko musika

kontzertuak izango dituzte. 21:30ean Sermond's eta Porco Bravo taldeek eskainiko dituzte. Lehenak Elorriokoak dira eta bigarrenak Barakaldokoak.

## Disko berrien aurkezpena

Barakaldoko Porco Bravo taldeak punk-rock musika egiten du. 2007an sortutako taldea da eta Oñatiko kontzertuan aurten bertan estreinatutako lan berria eskainiko dute. Hain zuzen, apirilean grabatu zuten The Rockstudios estudioan lana.

Kontzertuan parte hartuko duen beste taldea Elorrioko Sermond's izango da. Zortzi urteko geldialdiaren ondoren, 2008an berriro ekin zioten Sermond's taldeko kideek musika egiteari. Lehenengo diskoa, *Azken bala*, Karlos Gomezekin grabatu zuten 2009ko udan. Bigarren diskoa argitaratu berri dute; Karlos Osinagarekin grabatu dute. Elorrioko taldeak punk-rocka egiten du.



Asfikzia talde oñatiarrak joko du bihar Arrasaten. | GOIENA

# Metal doinuek girotuko dute Arrasateko gaztetxea

**A.E. | ARRASATE**

Arrasateko gaztetxeko lagunak indartsu datoz aste bukaeran. Izan ere, biharko, zapatua, metal gaua antolatu dute. Kontzertua gaztetxean bertan izango da, 22:00etan hasita.

Arratsaldean manifestazio nazionala egingo dute AHTren kontra, *AHT gelditzera goaz! tenemos razones para parar un tren* lelopean.

## Asfikzia

Metal gaua girotzen hiru taldek jardungo dute oholta gainean: Asfikzia, Black River eta Sleepwalker.

Asfikzia Oñatiko talde gaztea da. Oholtza gainean esperientzia handirik ez duten arren, Asfikziako kideek erakutsi dute zuzenean dena ematen duten horietakoak direla. Heavy eta rock doinu klasikoak egiten dituzte oñatiarrek eta indar handia duen taldea dela era-

kusten dute. Andoni Sasigain, Eneko Igartua, Unai Lete eta Harriet Aiala dira taldeki-deak.

## Black River

Black Riverreko kideak ere Oñati aldetik datoz gaztetxera. Kepa Alberdi, Unai Urkia, Josu Manuel Pana, Mikel Saiz eta Alberto Millasek osatzen dute metal taldea. 2010ean grabatu zuten maketa oñatiarrek. Abesti horiez gain, abesti berriak ere eskainiko dituzte Arrasateko gaztetxean.

## Sleepwalker

Hirugarren taldea Legazpiko Sleepwalker izango da. Heavy eta metala egiten dute gazte horiek.

Biharko kontzertuaz gain, datorren egubakoitzerako, hilak 17, Estricalla eta Kop taldeen kontzertua antolatu dute Arrasateko gaztetxean.

# 'Dos con gafas' saiorako sarrerak salgai daude

Ekainaren 24an eskainiko dute antzezlanaren 'Flypi' eta Pepon Fuentek Oñatiko Santa Anan


**A.E. | OÑATI**

Oñatiko Corpus jaien barruan antolatu duten hainbat ekitaldirako sarrerak dagoeneko salgai daude. Interesatuak kultura etxera jo beharko dute sarrerak erostera. Ohi bezala, astean zehar arratsaldez erosi ahal izango dira 16:30etik 20:30era eta zapatuetan, 10:00etatik 13:30era.

## 'Flypi' pertsonaia ezaguna

Ekainaren 24an *Flypi* eta Pepon Fuente aktoreek *Dos con gafas* antzezlanaren taularatuko dute. Santa Anan antzokian 22:30ean izango da ikuskizuna. Sarrerak 10 euro kostako dira eta gazte txartelarekin, 8 euro.

Bakarriketan oinarritutako lana da *Dos con gafas* antzezlanaren.



Enrique Perez Flypi. | GOIENA

Bestalde, ekainaren 25ean, zapatua, Gari, Montxo eta Jose-lontxo pailazo ezagunek *Konfetti* ikuskizuna eskainiko dute Santa Ana aretoan, 17:00etan. Sarrerak dagoeneko salgai daude 3,5 euroren truke kultura etxean.



Jon Aiestui | Idazlea

## "Profesionala izateko modu bakarra dago: eleberri onak idaztea eta itzultzea"

EHUko XIX. Narrazio Labur Fantastikoen Lehiaketa irabazi du Jon Aiestui oñatiarrak

MIRIAN BITERI | OÑATI

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu duen XIX. Narrazio Labur Fantastikoen Lehiaketako irabazlea da Jon Aiestui (Oñati, 1971), *Kontaktuak* izeneko lanagatik. Bartzelona hiriburutik gertu bizi den oñatiarrarekin egon gara.

**Zorionak! Azkenean lortu duzu lehiaketa irabaztea...**

Eskerrik asko. Halaxe da, aurretik ere aurkeztu izan naizelako lehiaketa horretara, irabazi ez badut ere. Ilusio handia neukan; aspalditik neukan ideia. Gainera, orri kopurua mugatua zen, eta, hortaz, istorioak gehiagorako ematen bazuen ere, kontzentratu egin behar izan dut.

**Nolakoa da *Kontaktuak* izeneko lan irabazlea?**

Bada, Nasa espazio agentziak espazio-zundak bidali ditu eguzki-sistema haratago bizitza topatzeko asmoz. Eta, horixe oinarria hartuta, *Kontaktuak* lanean, eguzki-gune batean bizitakoa kontatzen dut; hain justu ere, lurretik mila-



Jon Aiestui. | JON AIASTUI

ka urtetara dagoen planeta bizidun batera erortzen den izaki baten istorioa kontatzen dut bertan.

**Epaimahaiak, euskarazko lanen kalitatearekin batera, idazleak profesionalak ez izatea goraiatu du. Zer diozu horretaz?**

Ohorea da. Nik profesionala izan nahi dut, baina horretara iritsi ahal izateko modu bakarra dago: eleberri onak idaztea eta itzultzea.

**Bide onetik zoazela ematen du, Narrazio Labur Fantastikoen Lehiaketaz gain, Donostia Hiria saria ere jaso duzu...**

Bai, halaxe da. Gainera, bitartean, gaixotasun bat izan dut eta nire euskara finkatu egin dut. Esfortzu handia egin dut.

**Zer dauka fikzioak horren erakarria izateko zuretzat?**

Oso modu polita da gizakia unibertsalki ikusteko. Horretarako, maisu moduan hartu dut Ray Bradbury idazlea eta haren *Kronika martitzarrak* liburua. Telebista programa ospetsuaren izena hortik dago aterata. Ikaragarria da liburu hori. Marte planetaz hitz egiten badu ere, azkenean, lurrari eta gizakiari buruz egiten du berba.

**Bi sari irabazi dituzu dagoeneko. Bestelako lanik gertu daukazu?**

Bai. Tamaina handiko lanak dauzkate dagoeneko eginda; hain justu ere, euskaraz idatzita dauden bi eleberri. Horretaz gainera, hiru film-gidoi ere baditut eginda; gaztelaniaz daude horiek idatzita. Argitaratzeko bidean ditut horiek guztiak.

Bestalde, Donostia Hirian saria izandako *Biolinaren jatorria* izeneko lana daukat argitaratuta. *Kontaktuak* ez dakit noiz irtengo den merkatura. Bost urtean behin argitaratzen dituzte lehiaketa horretako irabazleen lanak, orrialde gutxi dituzte-eta.

**Amaitu aurretik, zeini eskaintzen diozu saria?**

Aitari eta Rafa anaiari eskaini nahi diet saria.



Ezkerretik, Garazi (Karmeleren alaba) eta Pamielako kideak. | PAMIELA

## Karmele Igartuaren 'Itsaso kontra bat' liburua, kalean

Larrabetzun egin dute egunotan aurkezpena; hilaren 17an Aretxabaletan egingo dute

M.B. | ARETXABALETA

Pamiela argitaletxeak Karmele Igartuaren (Aretxabaleta, 1959) *Itsaso kontra bat* poema liburua aurkeztu zuen joan den astean Larrabetzun. Dena dela, aurkezpen ofiziala hangoa bada ere, hilaren 17an ekitaldi berezia egingo dute Aretxabaletan, Idazle Eskolak urterto egiten duen Ilunabar Literarioen barruan.

Pamielako Tere Irastortzak jakinarazi digu bi liburu irakurri dituztela han; hain justu, Igartuaren eta Irastortzaren bana. Itziar Gomezek *Itsaso kontra bat* poema liburua irakurriko du, Aitor Furundarena eta Iñaki Telleria musikarien laguntzarekin. Izaskun Etxebarriak, berriz, Igartuaren irudiak jarriko ditu, Gomezek haren poemak irakurtzen dituen bitartean. Esan bezala, ekainaren

17an izango da hori, Arkupeko Zaria aretoan, 19:00etan.

Argitalpen berrian, sen berberaz erakusten ditu aretxabaletarrak bizitzaren eta amodioaren indarra eta herio-minak sortutako egonezina. Eta bizitzaren eta herioaren orbainak gozatzeko ahaleginean, sen berberaz bilatzen du sosegua; hain justu ere, edertasunean oreka, liburuan babesa, edo finean, itsaso kontra bat.

Igartuak arnasari, puntuazioari, erritmoari eta irudiei jarri ohi dien arreta berberaz, ekarpen berri bat egin du hautatu dituen orri-bazterreko hitzetan. Harridura sortzeko hiztegi eta baliabideen ordez, sentimentalismoa eta konmozioa eragin dezaketen artefaktuen ordez, metafora bidez oinarrituko hiztegia zehaztera jo du.

## Gorputz espresio eta margoaren bidezko argazkilaritza landuko dute

Jaiki elkarteak sormen ikastaro trinkoa egingo du hilaren 18an Aretxabaletan

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Jaiki elkarteak sormen ikastaroa antolatu du hilaren 18rako, zapatua. Bost orduko ikastaro trinkoa, gorputz espresio eta margoaren bidez argazkilaritza eta bideogintza landuko dute. Laia Bedosek eta Carla Fernandezek eskainiko dute saioa, 15:30etik 20:30era bitartean, kuarter zaharrean.

Dagoeneko zabalik dago horretan izena emateko epea. Interesatuek ekainaren 14a baino lehen

eman beharko dute izena [jaikielkartera@yahoo.es](mailto:jaikielkartera@yahoo.es) helbide elektronikoa edo 943 53 43 96 edo 655 31 87 95 telefono zenbakian. Langileek 20 euro ordainduko dituzte eta langabeek eta ikasleek, ostera, 15 euro.

**Arreta, entzumena, emozioak**

Esan bezala, gorputz, pintura, argazkilaritza eta bideogintzaren bidez espresioa eta pertzepzioa batera lantzeko aukera emango duen gunea zabalitzean datza

ikastaro hori. Partaide batzuk sormen prozesuan murgilduta dauden bitartean, beste batzuek irudiak hartuko dituzte. Arreta, entzumena eta emozioak ezinbestekoak izango dira horretarako. Partaide bakoitzak bere gogo eta bihozkadaren arabera egingo du lan, baita berezko esperientziaren arabera ere.

Ikastarora margotzeko proposa den arropa eroso eta erateko gomendioa egin dute antolatzaileek.

## Xabier Leteren omenezko kontzertua egingo dute abuztuan Arantzazun

M.B. | ARRASATE

Xabier Leteren zenaren omenezko kontzertua egingo dute abuztuaren 11n Arantzazuko Santutegian. Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan dago sartuta esandako emanaldia.

Joan den urteko abenduaren 4an hil zen Xabier Leteren (1944,

Oiartzun) poeta, idazle eta musikaria, gaixotasun larri baten ondorioz. Leteren euskal kantagintza modernoaren erreferentea da. Ez Dok Amairu taldearen sortzaileetakoa izan zen, baina musikaria baino gehiago idazlea zen; hori dela eta, kantari askok haren hitzak erabili dituzte.



Igogailuaren mantentze-lanak oso garesti ordaintzeaz gogaituta?

**AURREKONTUA  
2 EGUNETAN**

Informa zaitez:

Tel.: 943 04 40 01

[debagoiena@ascensoreshemen.com](mailto:debagoiena@ascensoreshemen.com)

[www.ascensoreshemen.com](http://www.ascensoreshemen.com)

**Deitu!**



**943 04 40 01**

Zure aurrekontua

**115 €-tik  
aurrera.**



Miren Errasti | Xabalote gaztelekuko begiralea

# "Gazteek eurek dituzten ideiak entzuteko prest dagoen norbait behar dute aldamenean"

ASIER ALKORTA | BERGARA

Aspalditik dabil aisialdiaren alorrean lanean eta gustuko duela dio. Orain, herriko gaztelekuan lan egingo du, Xabaloten. Atzo gaztelekua inauguratu eta gero, ekainaren 16an, jaiak pasatu ondoren, hantxe egongo da, gazteen zain eta haiei entzuteko prest, eguenetik domekara: Miren Errasti (Bergara, 1989). Lan berria ilusioz hartu duela dio.

**Aisialdiaren alorrean lan egingo duzu. Aurretik ere alor horretan ezer egin duzu?**

Bai. Heziketa Berezia ikasi nuen eta orain gorren hizkuntza ikasten nabil, alor horretan lan egiteko. Aisialdiaren alorrean duela urte batzuk hasi nintzen lanean eta ordutik hona hortxe nabil. Jardunek antolatutako ekintzetan ere parte hartu izan dut.

**Beraz, ondo konpontzen zara gazteekin.**

Bai, eta ondo konpontzeaz gain gustura egoten naiz haiekin.

**Herriko gazteleku baten beharra zuela uste duzu?**

Bai. Ni gazteagoa nintzenean, 14 urterekin, gu izan ginen gazteleku bat eskatu genuenak. Baina Udalak euskaltegian gela bat moldatu eta pare bat begirale jarri zituen, ez besterik.

**Beraz, txoko horrek ez zeukan gazteleku funtziorik.**

Hori da. Horren aurrean, aspertu egin ginen eta lokal bat hartu genuen. Egoera horrela egonda, herriko gazteleku baten beharra bazuen, duda barik.

**Gaur egungo gazteek aisialdia zelan igarotzen dutela esango zenuke?**

Nik uste dut askotan gazteak kalean egoten direla, zer egin jakin gabe. Zinema eta merkataritza-guneetara ere joaten dira, baina, orokorrean, ez dute izaten nora joan.

**Xabalote gaztelekuak zer eskainiko die herriko gazteei?**

Eurak lasai egoteko leku bat eskainiko die gaztelekuak. Eta, hortik aurrera, haiek nahi dutena proposatzeko askatasuna izango dute. Gustuko ekintzak egiteko aukera izango dute.

**Begiraleok psikologoaren papera ere betetzen duzue?**

Nik ez nuke esango psikologo papera betetzen dugunik. Gaur egun, gazteek eurek dituzten ideiak entzuteko prest dagoen norbait behar dute aldamenean. Lagun modura jokatzeko pertsona bat behar dute; euren iritzia emateko

aukera eduki behar dute.

**Etorkizunean aisialdiaren alorrean lan egitea gustatuko litzaizuke?**

Bai. Nire asmoa hezkuntza alorrean sartzea da, baina aisialdiaren alorra ez dut baztertuko.

**Beti izan izan duzu argi?**

Institutu garaian fisika eta bestelako gaiak lantzen hasi nintzen, baina horrek nirekin ez zuela funtzionatzen ikusi nuen. Hezkuntza alorrek, ostera, betidanik tira egin izan dit.

**Zeintzuk dira zure zaletasunak?**

Bidaiatzea, duda barik. Hori oso garrantzitsua da. Bestela, ba, ezer berezirik ez. Mendian txakurrekin osteratxoak eman eta listo.

**Gazteekin pazientzia izan beharko duzu, ezta?**

Bai, pazientzia garrantzitsua da, baina limiteak ere ondo zehaztu behar dira. Izan ere, gazteek jakin egin behar dute noraino ailega daitezkeen begiralearekin. Limiteak ondo markatzea ezinbestekoa da.

**Inoiz egoerak gainez egin dizula sentitu duzu?**

Ez, orain arte izan dudan esperientziarekin ez.

**Gaztelekura joateko zer esango zenieke herriko gazteei?**

Gaztelekuan ekintza pila bat egingo direla esango nieke. Lokala berria da eta eraikinak ekintza asko egiteko aukera ematen digu. Orokorrean, gazteak dituzten ideiak bota eta proposamenak egiteko askeak izango dira.

**Beraz, gaztelekuaren programak ez du egitura itxia izango.**

Ez. Gu gazteak entzuteko prest egongo gara, eta, ondorioz, animatzeko esango nieke. Esku zabalik hartuko ditugu Xabalotera datozen gazte guztiak.

**Ze ordutegi izango duzue?**

Eguenetik domekara arte egongo da zabalik Xabalote. Eguenean eta domekan 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta egubakoitzean eta zapatuan 17:00etatik 21:30era.

## MARRA AZKARREZ

**Animali bat:** Txakurra.

**Musika talde gogokoena:** Sum 41.

**Bidaiatzeko leku bat:** Venezuela. Dagoeneko bertan egon naiz, baina berriz bueltatuko nintzateke.

**Kolore bat:** Beltza.

**Film bat:** Thor.

**Janari gustukoena:** Ez daukat bereziki gustatzen zaidan jakirik. Denetarik jaten dut.

**Herri bat:** Bergara.

**Ametz bat:** Milaka ditut betetzeke.

**Xabalotek gazteei ondo pasatzeko aukera emango diela dio Errastik.**

# PAZKOAK 2011



JOSETXO ARANTZABAL

## IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA  
PROIEKTUAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ALTZARIAK



# ONDO IBILI JAIXETAN!



## SYMS SERVIMASA

**Sukaldeko altzariak eta osagarriak**

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57  
20100 LEZO



**Finantzaketa kuota pertsonalizatuak**



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



**gelatzo s.l.**

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxe: 943 78 15 51

## AGURRA

**AGURNE BARRUSO**  
Bergarako alkatea



## Gora Mendekosteak!

**A**zkenean iritsi dira pazkoak. Aurten, kosta egin zaie baina hemen dira.

Ongi etorria jaietako jaietan hemen izango zareten bergararrei eta gurekin batera jaiak ospatzera kanpotik etorriko direnei.

Aurtengo jaiak bereziak izango dira Gobernu Taldearentzat, Gobernu kide hasiko ditugu pazkoak eta jaietan murgiltzen hasten garenean kargua utziko dugu. Bereziak izango dira, halaber, jaietan hasieran kargua hartzeko zain daudenentzat. Beraiei egokitu zaie jaiak aurrera eramatea eta bukaera ematea.

Zorrik onena opa dizuegu.

Laugarrenez saiatu gara egitaraua oparoa prestatzen eta uste dugu lortu dugula.

Aurtendik hasita herriko txiki-txikiak ere jaietako protagonista bihurtu nahi izan ditugu. Harrera egingo diegu larunbat goizean udaletxean aurtengo urtean zehar jaio diren bergararrei. Lepoko zapia jantzi eta jaio orduko herriko jaietan murgil daitezten bultzatuko dugu.

Berriz esango dugu eta ez gara nekatuko; programa prest dago, egitaraua oparoa da, baina ez da benetako jaiarik izango gu guztiok kalean ez bagaude, parte hartzen ez badugu. Jaiak herriarrok egiten ditugu eta ez egitarauak. Azken honek lagundu egiten du.

Gure kantuek, dantzek eta algarek egiten dituzte Pazkoak benetako jai.

Bergararrok erakutsi dugu badakigula jaietz gozatzen, badakigula jaietako programak ematen dizkigun aukerak baliatzen, eta jakin badakigula aurtengo horrela izango dela.

Lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke alkate nagoen lau urteetan, jaietan, etxerik gabeak bailliran egun osoan kalean daudenei nire omenaldi txikia egiteko. Bada herria, jaietan, etxea hutsik utzi eta egun eta gauak kalean ematen dituenik, dagoena dagoela parte hartzen. Horiexek dira jaietan bihotza eta horientzat nire besarkadarik handiena eta horrela segitzeko animua.

Bereziki gogoan ditut, aurten ere, kartzelan edo erbestean dauden bergararrok, parranda zaleak izan arren gurekin egon ezin direnak. Zuen etxeratzea lortuko dugu; eman dugu urratsa eta horretara goaz.

Aurten Musika banda ere galaz jantzi da herriko jaietarako. Gozatu bere musikaz herriko beste taldeen ekimenez gozatzen duzuen bezala.

Gozatu, parte hartu eta zuen ekimen propioz osatu egitaraua. Bat-batekotasuna bada jaietan beste ezaugarri bat

Agurtzeko ordua iritsi da; jantzi alkandorak, pañueloak eta zapatillak eta guztiok festara!!!!

Ondo pasa eta kontuan izan norbere buruaren jabe izanda ingurukoak errespetatzea dela parranda sanorako oinarria.

Biba zuek!!!

# Jaietako egitaraua

## EGUBAKOITZA

10

**14:30** IKASLE BAZKARIA, eta ondoren triki-poteoa.

**19:00** Federatuen arteko PILOTA PARTIDUAK, Udal Pilotalekuan.

**19:30** Jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketako irabazleari saria emateko EKITALDIA udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Jaietako kartelen erakusketa irekita egongo da ekainaren 19ra arte.

**20:00** BITORIANATXOren JAITSIERA San Martin plazan. Txupinazoa San Antonioko txirriindulari lasterketaren ingurukoekin, lasterketak aurten 75 urte bete dituelako.

**20:05** Skandalue elektrotxarangarekin KALEJIRA, San Martin plazatik txosnetara.

**20:15** TXOSNEN IREKIERA, Bideberri.

**22:30** KONTZERTUA: Zezenaren taldea, Bizardunak eta Band Sound System.

**23:00** DANTZALDIA Tximeleta taldearekin, San Martin plazan.

## ZAPATUA

11

**09:00** Bigantxak zezen-plazan, Akelarre txarangak animatuta. Sarrera: 2 euro.

**10:00** 31. haur eta gazteen plastika sariketa, Beate Bergarako Arte Elkartearen laguntzarekin, San Martin plazan.

**10:00** Diana: Bolutik Aritz Alustiza eta Xabi Irazabal Bergarako trikitilariak. Labegarrietatik

Elgoibarko dultzaineroak aterako dira eta Orixondotik Udal Txistulari Banda.

**11:00** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA, San Martin plazan. Sukaldariendako lapiko eta amantalak: Lacor-ek emandakoak. Herritarrendako mokadua etxe hauei esker: Konde Panaderokua eta Mizpildi okindegiak, Comercial Miner, Lopez-Ojeda (Atxega), Manso Hermanos SA, Txomin Zubeldia SA eta Giokelako harakinak: Jon Leturia, Luis Mari Rezola eta Urzelai anaiak.

**11:30** Iazko Mendekosteetatik hona jaio diren bergararrei ONGIETORRIA egiteko EKITALDIA, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**13:30** BAKAILAO LEHIAKETA sari banaketa, San Martin plazan.

**13:45** Haur eta gazteen plastika



Aurten ere Bitorianatxoren jaietsierak plaza jendez beteko du. | JOSETXO ARANTZABAL

lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

**14:30** BERTSO BAZKARIA, Jone Uria eta Amets Arzallus bertsolariekin.

**16:00** GOITIBEHERRA txapelketa, San Martzialgo bidean (Euskal Ligarako puntuagarria).

**16:00** 75. San Antonioko TXIRRINDULARI SARIA, kadete mailan, Euskadiko Txapelketa. Irteera eta helmuga: San Antonion. Honorio Agirregabiria X. memoriale.

**18:15** Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK, San Martin plazan.

**18:30** Erraldioen konpartsako bi kide berriei ONGIETORRIA, San Martin plazan. Ondoren, Bergarako erraldioen konpartsako kalejira egingo da herriko kaleetan zehar, Udal Txistulari Bandaren eta

Elgoibarko dultzaineroen laguntzarekin. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili, Ibarra, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herri Lagunak, Domingo Irala, Barrenkalea eta, azkenik, San Martin plaza.

**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA 16 urtetik beherakoentzat, eta ondoren, errektadoreen ikuskizuna, Seminarioko zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

**19:00** MAGALI TXAPELKETA: frontenis eta eskupilota partiduetako finalak. Antolatzailea: BKE pilota.

**19:00** ROCK MARATOIA Bergarako musika taldeekin: Desprezio, Rombos Negros eta Seriedad Zero, Munibe plazan. Katabatik, Hardflip, Dark Code eta Fly Shit, Kruz Gallastegin.



Bakailao txapelketak ez du hutsik egingo, beste behin ere. | JOSETXO ARANTZABAL

## J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
- Aho zirugia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra
- Ahoko eta aurpegiko estetika plasmarekin.

**Aseguruak: PADI** (Osakidetza), AEGON

**20 urte baino gehiago zuekin Bergaran, eskerrik asko dano!**

ondo pasau  
jaixetan!



**22:30** ERROMERIA Izargi taldearekin, San Martin plazan.

**22:30** KONTZERTUA: Los Galerna, Slamtilt (Alemania) eta Arkada Social.

## DOMEKA

# 12

**08:00** ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan Deidar txarangak alaituta. Sarrera: 2 euro.

**10:00-14:00** Euskadiko banakako XAKE azkarreko txapelketa, Agorrosinen. Antolatzailea: Bergarako Xake KE.

**10:30-14:00** JOKOAK: voley water eta ur puxikak, San Martin plazan.

**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoloian.

► *Entre azahares* (Pasodoblea, A. Gz. Chirlaque).

► *The spirit of St. Louis* (Obertura, D. Shimizu).

► *Ezpatá-Dantza de Amaia* (J. Guridi).

► *El tambor de granaderos* (R. Chapi).

► *Miss Saigon* (Musikala, C.M. Schönberg).

► *Begarako ereserkia* (A. Gz. Chirlaque).

**16:00** Bergara Hiria taldekako XAKE txapelketa, Agorrosinen. Antolatzailea: Bergarako Xake KE.

**17:00** APAR FESTA, Munibe Plazan

**17:30** 34. Euskadiko DANTZA askatuko TXAPELKETA, 16 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan. Antolatzailea: Abarka dantza taldea. Udal Txistulari Bandak eta trikitilariak lagunduko dute.

**18:00** BAL TSA JAITSIERA, autobus geltokitik Bideberrira.



Musika eskaintza zabala egongo da aurtengo jaietan. | JOSETXO ARANTZABAL

**18:30** Euskal Herriko errektadoreen IKUSKIZUNA, zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

**20:00** KONTZERTUA: Garate, Anari eta Sorkun.

**20:30** Iñaki Mataren *Barreras* KALE ANTZERKIA, San Martin plazan.

**23:00** DANTZALDIA Trakets erromeria taldearekin, San Martinen.

## ASTELEHENA

### KOADRILEN EGUNA ETA SAN ANTONIO EGUNA

# 13

**11:30** Tabernen arteko HERRI KIROLen txapelketa, zezen-plazan. Xapre eta Zarra trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

**12:30** DANTZALDIA Fabulosa orkestrarekin, Espoloian.

**14:30** Herri BAZKARIA, San Martinen, Incansables txarangarekin. Txartelak salgai daude: kultura etxean, Deporren, Ariznoan eta frontoiko tabernan.

Euria egiten badu Labegaarietako kiroldegian egingo da bazkaria. Autobus zerbitzua egongo da Oxirondo azoka ondotik irtenda.

**18:30** Errekotadore ESKOLA IBILTARIA zezentxoekin, zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

**18:30** Bergara Hiria PILOTA partiduetako finalak, Udal Pilotalekuan.

**20:00** ERROMERIA Joxpa taldearekin, txosnetan.

**20:00-21:30** ERROMERIA Imuntzo eta Belokirekin, San Martinen.

**22:30** KONTZERTUA: EH Sukarra eta Doce & Tangana.

**23:00** DANTZALDIA Imuntzo eta Belokirekin, San Martin plazan

**23:00** Camp DANTZALDIA Fabulosa taldearekin, Espoloian.

## MARTITZENA

### UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

# 14

**09:00** BIGANTXAK, zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

**11:00-14:00** Haurrendako JOLAS PARKEA, Ipintza II-ko jolastokian.

**12:00** Idi proben ERAKUSTALDIA, San Martin plazan. Jose Ramon Salegi *Belarreta* Pako Badiola *Bentaoste*-ren aurka.

**Arratsaldean** PILOTA partidu profesionalak.

► Retegi II.a/Ladiz Garartza-Ildoate/Zezilio.

► Irujo/Zubieta-Gonzalez/Laskurain.

**12:30-14:00** Arantxa eta Pantxoren EMANALDIA, Domingo Mz. de Irala kalean.

**17:00-20:00** Haurrendako JOLAS PARKEA, Ipintza II-ko jolastokian.

**17:30** MOLTO LASTERKETA, Fraiskozuri plazatik jolas parkeraino. Oharra: parte-hartzaile bakoitzak bere moltoa eraman beharko du.

**18:30** ERREKOTADORE ESKOLA zezentxoekin, zezen-plazan.

**19:00-21:00** KARAOKEA Txatxilipurdirekin, San Martinen.

**22:30-00:00** DJ FESTA Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

**00:00** BITORIANATXOren igoera, Incansables txarangarekin, San Martin plazan.

**00:15-01:30** DJ FESTA, plazan.



Irujok Zubieta edukiko du bikotekide eta Gonzalezen eta Laskurainen aurka lehiatuko dira. | GOIENA

# BS BOLU SUKALDEAK

Gremioen koordinazioa  
Aurrekontua konpromiso barik  
Horma armairuak

## DESKONTU HANDIAK ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK



Erakusketa bakoitzean  
dugun altzari guztien  
balioa guztira:

# 500 €

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxe: 943 76 27 02 • [bolusukaldeak@euskalnet.net](mailto:bolusukaldeak@euskalnet.net) • [www.euskalnet.net/bolusukaldeak](http://www.euskalnet.net/bolusukaldeak)



ibargarai 14 • BERGARA  
Tel.: 943 08 29 65

## Ondo pasau jaixetan!





*Gai zorientsuak guztioi!*

# Mirari

## JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93  
*Udaberria - Uda    Neurriak 38tik 60ra*

**ONDO  
PASAU  
JAIXAK!**


**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**

Proiektuak · Koltxoiak · Horma-Armairuak · Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak





**Sorkunde Agirregabiria** | Aurtengo txupinazoa botako du

# "Gure aitari egindako omenaldi modura hartu dut txupinazioa"

- ▶ San Antonio ziklismo probak 75 urte beteko ditu
- ▶ Honorio Agirregabiriaren lana omendu nahi izan dute

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Sorkunde Agirregabiria lanpetuta harrapatu dugu. Toki-ona tabernan dihardu lanean eta aurtengo jaien inguruko zerbaite entzuten duenean oso urduri jartzen da. Ez da harritzekoa, hark, Bitorianatxorekin batera, jaiet hasiera emango baitie. Oraindik sinetsi ezinik dabilen arren, harro sentitzen da egin dioten gonbitagatik.

**Noiz jakin zenuen txupinazioa botako zenuela?**

Ba... Maiatzaren hasieran edo... Ezingo nuke data zehatzik eman. Txirrindulari lasterketakoak etorri ziren, eta, proposamena bota ostean, detaileak kontatzera etorriko zirela agindu zidaten, baina ez dira etorri. Eta halako baten, zuek deitu duzue.

**Txupinazioa botako zenuela entzunda, zer sentitu zenuen?**

Hasiera baten, ezezkoa esateko tentaldia izan nuen, baina lasterketa eta gure aita aipatzean poz-

tasun handia sentitu nuen. Aitari egiten dioten omenaldi gisa ulertzen dut hau eta ziur nago harentzako ohore handia izango zela. Hark herriarentzat gauza asko egin zituen eta txupinazioa bezalako errekonozimenduek asko poztuko lukete.

**Ez naiz inoiz Bergarako txupinazioan egon, baina diskurtso edo hitzik esan behar duzu?**

Jo, a ze galdera! Ba ez dakit. Egia esan, egun horietan, tabernan lan asko izaten dugu eta ez naiz inoiz txupinazioan egon, baina ez didate diskurtso konturik aipatu; hortaz...

**"Herriko festetan garrantzitsuena herria eta herritarrak dira"**

**Txupinazioa jaurtitzen duzunez, aitzakia ona izango duzu festetan gehiago egoteko?**

Ez da gauza erraza izango. Lanak ez dit denbora luzerik uzten, baina saiatu naiz. Aurtengoa, zuk esan bezala, zita berezia denez, ahalegin berezia egingo dut.

**Zita berezia eta urteurren borobila, ezta?**

Ba bai; duela 75 urte hasi ziren San Antonioko txirrindulari lasterketa antolatzen, eta tartean aita zegoen. Txupinazio honetan haren lana omenduko dugu.

**Orokorrean herriko festek krisialdia igaro ostean, berriz berpiztu dira.**

Garai baten, jendea gehiago inplikatzeko, baina gaur egun gazteak hasi dira herriko festetan inplikatzeko. Herritarrak beharrezkoak gara herriko festak behar bezala ospatzeko. Lehen esan dudan moduan, lanean egon arren, ahal dudan heinean parte hartuko dut.



Sorkunde Agirregabiria, bere tabernan. | MONIKA BELASTEGI

## 'Saltseroa' zen Honorio

Ezagutu zutenek *saltsero* hitza behin eta berriz erabili dute. Gizon alai eta San Antonio inguruko kontuetan asko inplikatzeko horietakoa.

Familiak ere iritzi bera dauka, eskuzabaltasuna parte-hartze ekintzen bidez adierazten zuen.




Honorio Agirregabiria.

## Sastreria Mujika

**Presta zaitez ezkontzetarako!  
Jantziak neurrira egiten ditugu**

Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA

ondo pasau  
jaixetan



BERGARA

**Jai zorientsuak guztioi!**

**Ibargarai 34**

Tel.: 943 76 13 23  
BERGARA





# Zatoz!

...gozatu gurean!



**Usoa • Bule • Etxagi • Euxebio II • Ariznoa  
Zunbeltz • Sirimiri • Iraho • Azpeitxi • Agirrebeña  
Kai • Irish Pub Galways • Kayak • Toki Ona**



# Jaioberriek ere zeresan handia dute aurtengo Mendekoste jaietan

Lehen aldiz egingo dute festei ongietorria emateko ekitaldia; bihar izango da hori

MIRIAN BITERI | BERGARA

Berrikuntzekin datoz aurtengo Mendekoste jaiak. Horien artean, Mendekosteei ongietorria emateko ekitaldia dago. Joan den urteko jaietatik gaur arte jaiak diren ume bergararrei zuzendutako ekimena da hori. Bihar, zapatua, batuko dira umeok eta ume horien gurasoak, 11:30ean, udaletzeko osoko bilkuren aretoan.

Enara Minguez jarduneko zinegotziak jakinarazi digu jaietako batzordeak jasotako proposamena izan dela. Beste hainbat herritan egiten dela-eta, ideia Bergarara ekartzea proposatzen zen. Eta, bideragarria dela ikusita, esandako ekitaldia egitea erabaki dute.

## Formatu txikiko zapia

Honakoa azaldu digu Minguezek: "Jaiotzen direnetik jaietan integratzea da asmoa, eta, horretarako, ekitaldi xumea egingo dugu. Jardun euskara elkarteak ateratzen duen Bergarako jaietako zapia umeei jartzean datza hori". Horren harira, gaineratu du formatu txikiko zapiak izango direla, eta ehuna ere ezberdina izango dela, helduena baino leunagoa.

Jaioberri guztiak batzeko, Kultura zinegotziak azaldu digu



Enara Minguez zinegotzia Irati Aperribairi zapia jartzen, Maite Muxikak, haren amak, besoetan duela. | MIRIAN BITERI

Udalaren errolda kontsultatu, eta gurasoei gonbidapena bidali dietela, gutun bidez.

Ekitaldia irekia izango da, eta edozein joan ahal izango da: "Nahi duten gurasoak etorriko dira, umeekin; ez dakiguna da zenbat ume etorriko diren, ezta

**Asmoa da datozen urteotan egiten jarraitzea**

haien aitaita-amamak etorriko diren ere. Hasiara baten, ez dago inori itxita, baina jende larregi badator, zerbait pentsatu beharko dugu. Bergaran 120 umeren bueltan jaiotzen dira urtean".

Esan bezala, aurtengo egingo da lehen aldiz Mendekosteei

ongietorria emateko ekitaldia. Eta harrera ona badu, datozen urteotan ere egiten jarraitzeko asmoa dagoela azaldu du Minguezek. Dena dela, gogorarazi du bihar Udal berria osatuko dela, eta hura osatzen dutenek izango dutela azken hitza.

## 122 umetxo udal erroldan

Bergarako zinegotzi Enara Minguezek azaldu digu joan den urteko jaietatik aurtengo jaien hasierara jaietako umeek parte hartuko dutela. Horren harira, gaineratu du 122 jaioberrien gurasoei bidali dietela ekitaldian parte hartzeko gonbita; hain justu ere, aurtengo apirilaren 12ra arte udal erroldan izena emanda zutenen jaioberrien kopurua da hori. Kopuru hori, dena dela, zertxobait igoko dela aurrekusi dute, eta hortik aurrera jaietakoak ere gonbidatuta daudela nabarmendu nahi izan du.



# Raizabal

gozotegia

**1908tik zuekin  
eskerrik asko guztioi  
eta ondo pasau jaixak!**

Artakale 9 Tel.: 943 76 11 83 / Bidekurutzeta 20-22 Tel.: 943 76 12 19

## MUSIKA IKASIZ, GOZATU! ZATOZ MUSIKA ESKOLARA!





## ONDO PASA JAIXETAN!!!

MATRIKULA ZABALIK

# TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean  
ipintzera arte dena gure esku

**Fabrikako preziotan**



Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik  
larunbatera  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara  
zabalik



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**



## Saunier Duval

GUIPUZCOA  
**Sematec**

LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU  
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21  
20570 Bergara

**Tel.: 943 76 06 61**

[www.sematekguip.com](http://www.sematekguip.com)  
[bergara@sematekguip.com](mailto:bergara@sematekguip.com)

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**



# Ohiko herri kirolen ordeez, idi probak

Martitzenean, hilak 14, San Martin plazan izango dira idiak, eguerdian

MIRIAN BITERI | BERGARA

Idi probak gustuko dituztenek hutsik egin ezin duten hitzordua dute martitzenean, ekainak 14, eguerdian, San Martin plazan. Joxe Ramon Salegi *Belarreta* eta Pako Badiola *Bentaoste* bergararren idiak lehiatuko dira ekitaldi horretan.

Iñigo Almortza bergararra ibiliko da aurkezle lanak egiten. Herri kirolean modalitate asko daudela eta horien artean idi probak daudela aipatu du. Horrekin batera, honakoa esan du: "Aizkolariak eta harri-jasotzailerak aldatzearen erabaki dugu idi probak egitea. Urte asko dira ez direla egiten, eta lehen urterot egiten ziren, feria egunean, Santa Marina azpian".

Bergaran idizaleak daudela aprobetxatuz, herriko biren arteko lehia egitea pentsatu dute. *Bentaoste* Elosukoa da eta Salegik, jaiotzez urretxuarra bada ere, urte asko daromatza *Belarreta* baserrian bizizaten.

1.500 kiloko harria

Almortzak azaldu du idi bikote bakoitzak 1.500 bat kiloko harria mugitu beharko duela; 600 kilo inguru izango dituzten animaliak dira. Haren esanetan, ordu erdi inguru izango dute ahalik eta gehien egiteko.

Ekimen ikusgarria izango dela ere iragarri du, animaliak "dotore" jantzita izango direlako Bergarako plazan. Honakoa esan du Almortzak: "Jendeari horrelako ekimenak gustatzen zaizkio, animaliak ikaragarriak dira-eta". Horrekin batera, narbarmendu du parte-hartzaileak bergararrak izatea ere oso erakargarria dela.

Almortzak gogorarazi du Bergarako baduela berezko 2.000 kilotik gora pisatzen duen idi harria Santa Marinan, baina ezin izango dutela erabili, "baldarra" delako: "Asfalto gainean egingo da proba; harri hori erabiliko bage-nu, horrek asfalto guztia apurtuko luke. Hortaz, Zumarragatik ekarriko da harria".



Idi probak berreskuratuko dira osterera ere. | IÑIGO ALMORTZA

PAKO BADIOLA 'BENTAOSTE' | PARTE-HARTZAILEA

"Txikitatik barruan dudan zerbait da idiena; orain dela lau urte jarri nituen"

Orain dela lau urte hasi zen Elosuko *Bentaoste* baserriko Pako Badiola idiekin probak egiten. Martitzenean Jose Ramon Salegi *Belarreta*-rekin lehiatuko da elosuarra. Saio horren gainean jardun dugu Badiolarekin. **Nolakoak izango dira martitzeneko proba eroango dituzun idiak?**

Gazteak dira. Bi alditan baino ez dira irten jaietan; plazaratu gabekoak dira. Sei urte pasatxo dituzte, eta 600 kilo inguruko pisua.

**Nolako proba espero duzu?**

Guk ahal duguna egingo dugu, eta irabaztea espero dugu. Ikusi egin beharko da lortzen dugun edo ez. 20



GOIENA

minutuko saioa eskainiko dugu.

**Aurretik ere Jose Ramon Salegi *Belarreta*-rekin lehiatu zara?**


Bai, hala da.

**Zelan ikusten duzu esandako herri kirola berreskuratzea Mendekoste jaietan?**

Ondo. Gero eta proba gutxiago egiten dira. Normala da hori, baserrietan gero eta gutxiago erabiltzen dira-eta animalia horiek. Lan gutxi egiten da orain, lehengoarekin alderatuta.

**Nondik datorkizu zaletasuna?**

Txikitatik barruan dudan zerbait da hori. Ni *Bentaoste* baserrikoa naiz, eta 25 urteotan ez da idirik izan han. Abere asko nuen, eta gustatzen zitzaizkidan; amorrutxi hori nuen barruan. Hori dela eta, idiak jartzea erabaki nuen; hori da gustatzen zaidana. Sei bat idi ditugu; gazteenak preparamen gabilta orain. Toki askotatik deitzen digute jaietara joateko.



**ARATZ**

Zurradero 6, behea

Tel.: 943 76 70 67 Poltsikokoa: 607 48 71 19

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei!

**ibili**

1942a ezkerro

San Juan auzoa  
BERGARA


Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39

Web orria: www.ibili.net

**Zorionak bergararroi!**

Aro berriko  
sukalderako tresneria





**Ibargarai Kalea 43 - BERGARA**  
**Tel.: 943 76 22 48**

**ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostegunera:  
09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30  
Ostiralak: 09:30 - 18:30  
Larunbatak: 08:30 - 12:30

**Ondo pasa Pazkoetan!**



**Jean  
Louis  
David**

[www.jeanlouisdavid.com](http://www.jeanlouisdavid.com)



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

**Ondo ibili  
Pazkoetan!**

Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13



# Molto motorren lasterketak herriko kaleak zeharkatuko ditu

Martitzenean, Fraiskozuri plazatik Ipintzarainoko ibilbidea izango du lasterketak

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Akaso, batek baino gehiagok *lasterketa* hitza ikustearekin batera bere semea Elosuko maldetan behera ibiliko dela usteko du, baina ez da lasterketa bat izango. Denok ulertzeko, Molto-ak haurtxoek horrenbeste erabiltzen dituzte motor bako motor koloretu horiek dira. Azken urteetan izan duten arrakasta dela eta, Mendekosteetan ere euren esparrutxoak izango dute.

## Martitzen motorduna

Festen martitzenerako, 17:30 inguruan, Jerezko motor bilkura izango balitz bezala, Fraiskozuri plazan mini-Pedrosa eta mini-Lorenzo ugari elkartzeko deialdia egin dute antolakuntza-koek. Behin guztiak batu ostean, bertatik irten eta San Joxepe erretiratuen egoitza ingurua zeharkatu ondoren Ipintzaraino iritsiko dira motorzaleak, gurasoak lagun dituztela. Bertan, guztiak garaile diren neurrian, jolasparke izugarri bat izango dute, doan, ibilbidean erre ez duten energia eta adrenalina erretzeko.

Ibilbidea ez da errepidean egingo, eta Maider Osa Kultura teknikariaren hitzetan: "Txikiak festetan parte hartzea nahi dugu". Moltoak erabilia, umeek jaietan



Ume taldea Ibargarain, molto motoekin jolas egiten. | MONIKA BELASTEGI

parte hartzeko aukera polita izango dute. Gainera, Fraiskozuritik eta Ipintzarainoko ibilbidean, gurasoek gainera, ikusleak ere izango dituzte: "Ez dugu lasterketa bat egin nahi, zerbait ludikoa baizik", esan zigun Maider Osak.

**Lasterketa baino zerbait ludikoa antolatu dute**

Hortaz, 2 kilometro orduko abiadura bortitzean Bergara ziztu bizian zeharkatu nahi duten gaztetxo *temerario* guztiak etxean duten Moltoa tailerretik pasa, apain-apain jarri eta jai-giroan ibilbide polit hori egitera presta daitezela.

## Modan dagoen ekintza

Molto ibilaldiak gero eta arruntagoak dira. Motor txiki hauek aitzaki bezala erabilia, kontzentrazioak eta lasterketak izan ditugu Arrasate eta Eskoriatzan.

Bergara izango da hurrengo herria eta horrela jarraituz gero, laster, Molto lasterketek egutegi propioa izango dute.

## Triziklotik Moltora

Duela gutxi arte trizikloa zen espaloaren errege, baina ia konturatu gabe motor bako plastikozko ehunka motor txikiak tokia kendu diote.

Badirudi pedalak ez direla horren eraginkorrik, eta gaur egun, hankekin bultzatzen eta bultzatzen dira umeak gurasoen laguntza apur batekin.



## Pazkoa jai zoriontsuak

**08:30etik - 20:30era zabalik**

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92



Iturgintza - Berogintza

# Laskurain

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra

Ondo ibili jaietan!



**Ile apaindegia • Estetika  
Solarium homologatua**

Bolu kalea 51 BERGARA  
Tel.: 943 76 50 32  
[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)

*ONDO PASAU JAIXAKI!*



**Ondo pasatu  
Pazkoetan!**

bergarako



aralar

# Joanes Plazaola eta Mariñe Diaz, bergarar bakarrak txapelaren bila

Lazkaoko saridunekin eta beste 14 bikoterekin lehiatuko dira dantza solte txapelketan

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Herriko bikote bat lehiatuko da datorren zapatuan, hilak 12, Euskal Herriko 16 urtetik beherako dantza solte bikote onena izateko. Abarka dantza taldeak eta Bergarako Udalak antolatuta, zapatuan jokatu da Euskal Herriko 34. dantza solte txapelketa bikote gazteendako, eta hantxe lehiatuko dira Joanes Plazaola (14 urte) eta Mariñe Diaz (12 urte) gaztetxoak. Eurak izango dira Bergarako eta Debagoieneko ordezkari bakarrak.

Orain arte egindako lanaz gain, iaz txapelketa horretan hartutako esperientzia lagun izango dute gaztetxoak txapelaren bila joateko.

Berezitasun bat dute: iaz lehiatu ziren... baina beste bikotekide batzuekin. Iazko bikotekideak ez dira aurkeztu, eta Joanesek eta Mariñek bat egitea erabaki zuten.

**Gaztetxoak, baina iaioak**

Aurten, 18 bikotek parte hartuko dute. Oso gazteak izan arren,

dagoeneko primeran moldatzen dira euretariko asko oholtza gainean; hala, Lazkaoko txapelketa lehenengo hiru bikoteak ibiliko dira Bergaran ere: Asier Ibarzabal eta Garazi Gurrutxaga azpeitiarrak, txapeldunak; Axier Iriarte eta Ane Urruzola villabonarrak, txapeldunordeak; eta Amets Amubieta eta Maialen Aldalur azpeitiarrak, 3. saridunak.

Gainerako lehiakideak hauek izango dira: Joritz Galarraga eta Laura Olaizola (Azpeitia), Xanti Leonet eta Izar Etxeberria (Oiarzun), Jon Gaztelumendi eta Garazi Lasa (Hernani), Imanol Gonzalez eta Garaitz Velez (Lazkao), Mikel Subinas eta Miren

Ibarzabal (Azpeitia), Joseba Maiz eta Ainhoa Maiz (Azpeitia), Jon Ander Iriondo eta Libe Lizaso (Azpeitia), Julen Badiola eta Ihintza Iturri (Azpeitia), Gorka Kerejeta eta Ania Irigoien (Azpeitia), Unai Odriozola eta Maider Arrieta (Azpeitia), Julen Rodriguez eta Alaitz Urkizu (Anoeta eta Alegia), Beñat Mendizabal eta Saioa Etxabe (Villabona eta Zizurkil), Beñat Monforte eta Naiara Larrañaga (Villabona eta Zizurkil) eta Eneko Iparragirre eta Udane Eskudero (Oiarzun).

**Ikuskizuna, gertu**

Begarako dantza solte txapelketa hasi zenetik (1975. urtean), inoiz ez dira bi urte baino gehiago pasatu Bergarako bikote batek edo, gutxienez, Bergarako kide bat zuten bikote batek txapela irabazi gabe. Orain azkeneko aldiz 2008an geratu zen txapela Bergaran. Aritz Arrillagak eta Amaia Bolinagak irabazi zuten orduan, bigarren urtez jarraian.


Ikuskizuna 17:30ean hasiko da, eta bikoteek fandangoa (Udal



Mariñe eta Joanes bergararrak, dantzarako gertu. | ESTEPAN PLAZAOLA

Txistularien laguntzaz) eta arin-arina (trikitularien laguntzaz) dantzatuko dituzte. Zeinek ondoen egin duen Euskal Dantzari Biltzarrik izendatutako lau epailek

erabaki beharko dute. Bost sari banatuko dituzte, eta hiru sari ondoen jantzitako bikoteari, 12 urtetik beherako onenari, eta bikote gazteenari.



**iBARRALDE**  
Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak eta juridikoak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu  
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA  
Tel.: 943 76 52 88 - Faxe: 943 76 25 64

Ondo pasa jaiak!

**AZKARATE**  
AROSZTEGIA

Telleria 19, B02-B03 BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 88 40 20



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parket flotatzaileak
- Sukaldeak



Arotz lanetan behar duzun guztia



**FISIOTERAPIA eta ERREHABILITAZIOA**

Fisioterapia orokorra

Drainatze linfatikoa

Kinesio-tape, bendaje neuromuskularra

Tecarterapia

G.A.H. (Gimnasia Abdominal Hipopresiboa)

R.P.G. - S.G.A. (Reeducation Posturale Globale - Stretching Global Actif)

Kirol-fisioterapia

Fisioterapia Perineala (Gernu inkontinentzia...)

Fisioterapia Obstetrikoa:

Haurdunaldian emakumearen minak

Erditze aurreko prestakuntza eta osteko errekupeazioa

Etxez- etxeko fisioterapia

**PODOLOGIA** (etxez-etxekoa ere bai)**ASEGURUAK**

Mapfre, Lagun Aro , Brokers, Azkaran, Aresa-Mutua Madrileña, Ipresa, auto-aseguruak...

**Felsinee**

Ibargarai Etorbidea 17, behea

20570 Bergara

Tel.: 943 53 44 53

WWW.FELSINEE.NET



**RK^UZ**  
MUEBLES  
ARETXABALETA

**ETXE MOBEL**  
ALTZARIAR  
ARRASATE



**RK^UZ**  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABALETA **FAGOR**  
banatzaile ofiziala

**RK^UZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABALETA **expert**  
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

**GRUPO RK^UZ**  
ARETXABALETA 1950-2011 ARRASATE

**60 urte baino gehiago**zorionak  
bergarar guztioi!



Goitibehera bat San Martzialen behera, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL



Herriarrak, bakailao mokadutxoaren zain. | JOSETXO ARANTZABAL



Errekortadoreek ikuskizun ederra emango dute. | JOSETXO ARANTZABAL

# Arrakasta ziurtatuta duten hiru ekitaldi, zaturako

Bakailao lehiaketa, goitibeherak eta errekortadoreak izango dira

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA  
Hamar elkartek jokatuko dute bakailao lehiaketa. Lapikoak eta amantalak Lacorrek emandakoak dira, eta mokadutxoa hauei esker izango da: Konde panaderokua

eta Mizpildi okindegiak, Comercial Miner, Lopez-Ojeda (Atxaga), Manso Hermanos SA, Txomin Zubeldia SA eta Giokelako Jon Leturia, Luis Mari Rezola eta Urtzelai harakinak.

**Euskal Ligan dabilzanak**  
Goitibehera lehiaketa, aurtan, Euskal Ligarako puntuagarria izango da; hortaz, herritik kanpoko partaideak etorriko dira eta ikuskizun ederra emango

dute. Herriko partaideek ez dute parte hartzeko aurre-baldintzarik. Udalari laguntzen, Erlantz Olabarria, Irene Zenitagoia, Iñigo Almortza ibili dira, eta eurei esker Gorla Racing-eko

kideak probaren antolaketaz arduratuko dira.

**Errekortadore gaztetxoak**  
Zezenzaleek antolatuta, errekortadore txapelketa bi jokatuko dira: 16 urtetik azpikoena eta helduena. Umeen artean, Bergarako zein Gipuzkoa osoko eta Errioxako zortzi mutiko ibiliko dira hiru txahal zirikatzen. Iñigo Almortza antolatzaileak dioenez, "eskaera piloa" jasotzen dute Euskal Herri eta Espainia osotik, bakarrik Euskal Herrian egin daitezkeelako adingabekoen txapelketa horiek.

Helduetan, Iker Agirre, Unai Arana eta Blas Cruz ohiko partaideez gain, beste 15 ere ibiliko dira.

autopullmans  
**Araba**

ANGIOZAR  
BERGARA

Tel.: 943 76 55 70 / 686 47 68 52

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**



**LAGUN GARAJEA**



Tailer profesionala

Mekanika orokorra

**Ondo pasau jaixak!**


Santalaitz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20



## Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

**Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz**

**EUSKARAZKO HEDEBIDE EZ PUBLIKOAK**





Baltsa jaitsierak ez du aurten ere hutsik egingo; ekainaren 12an egingo da, zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

# Bazkariak eta kontzertuak izango dira aurtengo izarrak

- ▶ Herri Mugimenduak egitarau berezia prestatu du Pazkoetarako
- ▶ Ekitaldi arrakastatsuenetako bat ez da faltako: baltsa jaitsiera

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA  
Herri bazkariak, bertsoak, kontzertuak eta urteroko ekintzak. Herri Mugimenduak ez du hutsik egin aurten ere eta Pazkoetarako egitarau berezia prestatu du, urtero moduan.

Xaxau birusa "borrokarako eta festarako indar eta gogoarekin" datorrela iragarri zute mugimenduko kideek, eta ez da gutxiagorako ere. Dagoeneko prest dago dena. Txosnagunea Bideberrin egongo da eta agertokia ere hantxe

**Hiru txosnetatik bat, ogitartekotarako**

egongo da, euskal musika talde indartsuak hartzeko prest.

**Edalontzi berrerabilgarriak**  
Denetara, hiru txosna egongo dira, bi edalontzi eta bat ogitartekoentzako. Edalontzi berrerabil-

garriak ere ez dira faltako. Herri Mugimenduak aurten ere horien alde egiteko apustua egin du, azkeneko bi urteetan egin duen moduan. "Herriarrak txosnagunetik kanpo ere edalontzi horiek erabiltzera gonbidatu nahi ditugu".

## TXOSNAGUNEKO EGITARAUA

### EKAINAK 10

**14:30** Ikasleen bazkaria San Martin plazan. Gero, triki-poteoa.

**20:00** Txosnak irekiko dituzte.

**22:30** Kontzertua Bideberrin: Zezenaren taldea, Bizardunak eta Band Sound System.

### EKAINAK 11

**14:30** Bertso bazkaria Bideberrin, Amets Arzallus eta Jone Uriarekin.

**22:30** Kontzertua Bideberrin: Los Galerna, Slamtilt eta Arkada Sozial.

**05:00** Kulero eta galtzontzilo leihaketa.

### EKAINAK 12

**18:00** Baltsa jaitsiera.

**20:00** Kontzertua Bideberrin: Garate, Anari eta Sorkun.

### EKAINAK 13

**20:00** Joxpa erromeria taldearen kontzertua Bideberrin.

**23:00** Kontzertua Bideberrin: EH Sukarra eta Dolce Tangana.

**GOKI ERREFORMAK, S.L.**

**Teilatuak, Fatxadak eta barruko obrak**

*Ondo ibili jaixetan!*

Irizar Ibilbidea 1 behea  
BERGARA  
Te.: 943 76 53 42  
Faxa: 943 76 52 16

2011-12 ikasturteko aurrematrikula zabalik



**Euskara ikasteko bide zuzena**

**Udako ikastaroak 2011**

**MATRIKULA ZABALIK**

Ekainaren 15etik 24ra  
16 urtetik gorakoentzat

*Ondo pasau jaixetan!*

Barrenkale 33 (Irizar jauregia) • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net



HABEren dirulaguntzaz

www.udaleuskaltegiak.net

EUSKARAREN  
IRAKASKUNTZARAKO  
ENTITATE OFIZIALA

**Iñaki Mata** | Aktorea eta txotxongilo-egilea

# "Protagonista jendea da, eta berak ez daki"

- ▶ 'Barreras' ikuskizuna egingo du ekainaren 12an
- ▶ Gurpildun jesarlekuan agertzen da aktorea

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Iñaki Mata aktoreak (Antzuola, 1964) bakarkako *Barreras* ikuskizuna ekarriko du herrira. Hilaren 12an, domekan, San Martin plazan, 20:30ean, hitzordua dute ikuskizun probokatzaile eta hun-kigarri zein dibertigarri hori ikusi nahi dutenek.

**Bigarren aldia duzu Bergaran *Barreras*-ekin, ezta?**

Bai. Lehenengoa orain lau urteko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian izan zen. Jende berriari ikusteko aukera eman nahi nion, eta Udalarri berriz antolatzea proposatu nion.

**Zelan erreakzionatu zuten bergarrek orduan?**

Oso ondo; nik espero baino hobeto. Ikuskizun honekin, beti dago nik aurretik espero ez nuen erreakzioren bat, eta orduan ere hala izan zen. Ni oso pozik geratu nintzen.

**Ze espero duzu oraingoan?**

Saiatzen naiz hutsik ateratzen, aurreikuspen barik, oraindik ikusi ez dudana edo ez dakidanaren bila; ez dut nahi dagoeneko badakidana errepikatu. Erreak-

zioek borobiltzen dute ikuskizuna, eta, erreakzioa modu batekoa edo bestekoa izan, protagonista ez da ez aktorea, ez panpina; protagonista publikoa da, eta berak ez daki.

**Zeintzuk dira gehien harritu edo hunkitu zaituzten erreakzioak?**

Bi ditut bereziki gogoan. Bat Budapest-en gertatu zitzaidan. Ikusi nuen bi txakurrekin eskean zegoen lagun bat, eta niri ere eskean jartzea bururatu zitzaidan. Budapest-en oso ezaguna den

**"Publikoak gertuan ikusten du aulkia, eta konplizitatea sortzen da"**

**"Momentu dramatikoak, politikak... bizi izan ditut mundu osoan"**

antzerki jaialdi bat zegoen, eta jendea guregana inguratzen hasi zen. Handik gutxira, jende aberatsa eta pobrea, denak batera zeuden inguruan. Gero ijito batzuk etorri ziren eta gitarra jotzen hasi ziren. Bat-batean, hiru talde, hiru klase sozial desberdinetako jendea denok batera dantzatzen eta ondo pasatzen zeuden. Momentu zoragarriak izan ziren. Emazteari begiratu nion eta negarrez, hunkituta zegoela ikusi nuen.

Beste pasadizoa Txilen, Valparaisoan izan zen. Gurpildun jesarlekuan zegoen lagun bat ikusi nuen. Bere ondora joan nintzen eta eskua eman genion batak besteari. Berak ez zidan eskua jaregin nahi; esaten zidan nik bai, nik ulertzen niola. Negarrez hasi zen... Oso momentu dramatikoak eta politikak izan ziren. Aulkiak balio izan dit zapalduta daudenekin konektatzeko, gurpildun aulkian daudenak ere, zentzu batean, zapalduta daudelako.

**Zure iritzi, barrera asko ditugu oraindik, arkitektura aldetik zein bestelakorik?**



Morillen, Salamancan, ikusle inguratuta. | IÑAKI MATA

Nire helburua ez da erreibindikaziorik egitea. Nire lana jendearin konektatzea da. Horretan datza *Barreras* ikuskizuna: konexioen bitartez errealitatea azaltzea. Gurpildun jesarlekuak, normalean, gugandik urrun ikusten ditugu, baina, ikuskizunean, jendeak oso gertuan ikusten du eta konplizitatea sortzen da. Denerariko egoerak sortzen dira: hala, Montevideon, dendari batek barkamena eskatu zidan arrapalarik ez zuelako. Beste pertsona batek metrora jaisten lagundu zidan Budapest-en, konturatu barik ni

eramaten panpina bat zegoela, eta konturatu zenean negarrez hasi zen, haserre, gobernuaren aurka, ea zela gerta litekeen horrelako zerbait... Jendearen barruan zerbait mugitzen da.

**Oso postura deserosoan egiten duzu ikuskizun osoa. Nekeza izango da, ezta?**

Bai, oso postura txarra da. Saiatzen naiz joaten naizen leku guztietan fisioterapeuta bat eskatzen, hori barik oso kaltegarria izango litza-tekeelako. Gero, fisioterapeuta hori antzerki jaialdiko beste par-taideek ere erabiltzen dute.



Begarako Udala

Ondo pasau jaixak!

San Martin plaza

www.bergara.net • bergara@bergara.net  
Tel.: 943 77 91 00 – Faxa: 943 77 91 63



MicroBank

"La Caixa"ren Gizarte Bankua



"la Caixa"

egingo dugu berba?

Fraiskozuri plaza 7

Tel.: 943 71 09 10

Faxa: 943 76 93 77

www.lacaixa.es

www.obrasocial.lacaixa.es



# Koadrilak, elkarren aurka zezen-plazan

Bide labur baina arrakastatsua dute tabernen arteko herri kirolek, eta aurten ere harrera bera espero dute

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Ze egun, Koadrilen Eguna baino aproposagoa koadrilak euren artean lehia ipintzeko? Bada, halaxe izango da, eta astelehenean, hilak 13, herriko gazte eta helduak nor baino nor gehiago ibiliko dira, herritarren gozamenarako. Zezen plazan izango da hitzordua, 11:30ean.

Aurten ere, herriko talde animatuenetarikoa batek, zezenzale elkarteak hartu dute erabakia gain ekitaldia antolatzea; eta azpimarratzen dute, berez tabernen arteko lehiaketa dela esaten den arren, "guztiei zabalik" dagoela parte-hartzea: "Tabernak deitu ditugu, askotan koadrilak tabernekin identifikatzen direlako, baina ez da gutxi batzuenak bakarrik; herritar guztienak da", esaten du Iñigo Almor-tza antolatzaileak.

Talde bakoitzak bere kami-

seta izango du, eta ikusleek oso erraz bereiztu ahal izango dituzte ekipoak.

## Zezenzaleak, bai ala bai

Tabernen edo koadrilen arteko herri kirolak ekintza nahiko berria dira Mendekosteetan; baina, ibilbide labur horretan, gorabeherak ere izan ditu. Almor-tzak gogoratzen duenez, "orain hiru urte egin zuten lehenengo aldiz, kalean.

Baina ez zen uste adina ondo joan, eta hurrengo urtean berriz ez egitea erabaki zuten. Pena handia izan zen". Horregatik, iaz, zezenzaleak berriz antolatu nahi izan zuten: "Ipini genuen baldintza bakarra izan zen zezen-plazan egitea, eta zezenzaleekin antolatzea joko batzuk. Hori da gure mundua, eta horko zerbait ere sartu nahi genuen herri kirolean".

Pentsatu, eta egin. Iñigo Almor-



Zezenekin, zirrara eta arrisku puntua. | JOSETXO ARANTZABAL

tzak onartzen digu "beldur handia" zutela antolatzaileek, nahi adina arrakasta ez ote zuen izango, berriz ere arazoak egongo ote ziren... Baina "arrakasta handia" izan zela gogoratzen du, nahiz eta bero izugarria egin zuen.

Lekuz aldatzea ere ideia ona izan zela erakutsi zuen esperientziak: "Zezen-plaza leku erosoagoa da proba horiek egiteko, lurra hareaz estalita dagoelako".

Bestalde, publikoarendako ere herriko kaleak baino leku hobea da: "Plaza inguruan jesarrita, publiko osoak ikus dezake ondo ikuskizuna". Beraz, lasai-lasai, harmailetan jesarrita jarrai ditzakete koadrilen tira-birak. Iñigo Almor-tzak gonbidapen bat egiten du: "Norberak bere gustuko edaria ere ekar dezake: kalimotxoa, garagardoa..."

## Denetarik probak

Iaz eraman zuten praktikara lehenengo aldiz herri jokoak euren erara, zezenzale eta guzti, egiteko burutazioa, eta hori ere oso ondo hartu zuten parte-hartzaileek zein ikusleek.

Zezenzaleekin egindako probaz gain, antolatzaile horrek esan digu "ohiko probak, denetarikoa" izango direla.

## Sari potoloa

Aurten izena emateko deialdiak arrakasta handia izan du hasieratik, eta "iazko parte-hartzaile guztiek" berehala konfirmatu zuten aurtengoan ere ibiliko direla.

Eta saria ez da sinbolikoa bakarrik izango: 300 euro daude jokoan. Zorte on, beraz, eta onak irabaz dezala!



Eguzkipean jokatu zituzten iaz herri kirolak. | JOSETXO ARANTZABAL

**Zezen-jokoak eta betiko herri kirolak egingo dituzte taldeek**




## ATXEGA ARDOAK BERGARA


*Ondo pasau pazkoetan!*

Amillaga 25 - Industrialdea - BERGARA  
Biltegia: 943 76 27 76 / 943 76 38 52

Komenio, 2 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 76 00 01 • Fax: 943 76 22 41  
E-mail: [imprespal@euskalnet.net](mailto:imprespal@euskalnet.net)



**IMPRESPAL**  
INPRIMATEGIA



- ⊕ Offset
- ⊕ Impresio Digitala
- ⊕ Koloretako fotokopiak

# Herri bazkaria, denondako osasungarria

Zeliakoek jateko moduko menua prestatu du Udalak, lehenengoz

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Aurten, Udalak ahalegin berezia egingo du herri bazkaria inoiz baino osasungarriagoa izan dadin. Hala, asmoa da zeliakoek ere jateko moduko izan dadila menua. Kultura teknikari Maider Osak esaten duenez, "prestatzen den menua guztiondako berdina izango da, eta zeliakoendako ere egokia izango da". Gastronomía Cantábrica enpresa arduratuko da herri bazkaria zerbitzatzear, eta Udalak eskaera horixe egin dio.

Azken urteotan, herri bazkaria joan diren zeliakoendako menu desberdina egon izan da, baina aurten beste ahalegin bat egin eta jatekoak euren modukoak ere izan daitezten nahi izan du Udalak.

Hori aurrera eramateko, egunotan bazkarirako txartelak erosi dituzten zeliakoei Udal Kultura Zerbitzuak eskatu die euren abisatzeko. Kultura teknikari Maider Osak esaten duenez, "urterotan joan izan dira zeliakia duten

herritar batzuk bazkarira, eta aurten ere izena eman dute batzuek".

## Kontzientzia

Inork pentsa dezake zeliakoek nahikoa dutela euren moduko ogi berezia jatearekin, baina ez da horrela. Zeliakia da gluten izeneko proteinari intolerantzia kronikoa, eta gariak, zekaleak eta garagarak dute, baina horrek ez du esan nahi zerealez egindako jatekoek bakarrik dutela glutena. FACEk, Zeliakoen Elkartearen Espainiako Federazioak, esaten du supermerkatuetan saltzen diren janari enbalduratuak %80ek dutela edo izan dezaketela glutena. Janari industrial asko ez daude glutena duten lehengaiak eginda, baina arrastoak izan ditzakete, industria-ekoizpena dela eta.

Azken urteotan, elikadura enpresak eta jatetxeak zeliakoen beharretan kontzientziazten joan dira, eta gaur egun ez da arraroa zeliakoendako menuak topatzea leku askotan.



laz eguraldi ederra egin zuen herri bazkari egunean. | GOIENA

## Gustuko menua

Menua hau izango da, dena txartelaren prezioan sartuta: patatak errioxar erara; bigarren plater gisa, erredondoa txanpinoiekin; postrea, hostopil-tarta; eta ogia. Edateko, ardoa, ura, gaseosa eta sagardoa eskainiko dituzte; eta, bukatzeko, kafea eta kopa. Azken urteotan zerbitzatu den menua da,

eta, itxuraz, herritarrek gustuko izan dutena.

## Autobusa Labegarietara

Esandako hobekuntzaz gain, arrakasta izan duen formula jarraituko dute aurten ere: San Martin plazan izango da herri bazkaria –euria egiten badu, Labegarietako kiroldegan–,

eta Incansables txarangak animazioa ipiniko du. Bestalde, autobus zerbitzua egongo da, Oxirondo azokatik irtenda, baina bakarrik bazkaria Labegarietan egiten bada.

Bazkalosteko lozorroa uxatzeko, koadrilen arteko jolasak eta DJ Angierekin karaokea izango dira.

DATUA

**%80**

PRODUKTU

Janari enbalduratuaren %80k dute edo izan dezakete glutena.

## Hasieratik, txartel gehiago salgai

Urtetik urtera jende gehiago joan da herri bazkarira. Horregatik, iaz, lehenengo aldiz, 700 txartel jarri ziren salgai hasieratik, eta ez 500 bakarrik, ordura arte bezala. Aurten ere hala egin dute. Ez hori bakarrik: azken orduan, beste 76 txartel ipini dituzte salgai. Lehen, txartel gutxiegi egoten ziren bazkaltiar guztiendako, eta leku arazoak egoten ziren. Hori konpontzen zen nor bere jesarlekua, platera eta mahai-tresnak eramanda.



**AGIRRE**  
HORTZ KLINIKA

Ondo pasau Pazkuetan!

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23 Orduetgia: 08:00-21:00 (Eguerdian ere zabalik).

**AEGON**  
aseguroak

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA  
**KONDE**  
PANADEROKUA



**Pazko jai zorientsuak bergarar guztioi!**

Burdiñate 11 Tel.: 943 76 02 57  
Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87  
**BERGARA**



# ROCKA NAGUSI AURTEN

Erromeriek eta bestelako taldeek ere ez dute hutsik egingo

## EGUBAKOITZA

# 10

### Zezenaren taldea, Bizardunak eta Band Sound Sistem

Txosnetan | 22:30ean

Zezenaren taldeak rock eta punk-doinuak nahastuko dituen neurrian, Bizardunak talde ospetsuak folk estiloa rockarekin uztartuko du. Bederatzi lagunek osatzen dute taldea eta kontzertuak eman dituzten toki guztietan jai giroa piztu izan dute beti.

Ironiaz betetako abestiekin, politika oso presente edukitzen du taldeak abesti guztietan.

Folk estiloan sartzen badira ere, folk erradikal moduan definitzen du taldeak bere estiloa. The Dubliners eta The Pogues musika talde irlandarren estiloan oinarrituta egin dute Iruñekoek euren lana. Taldeak, beste behin ere, indarrez joko du bertan, ikus-entzuleak asetzeko.

Band Sound Systemek reggae eta hip-hop doinuak bertaratuko ditu, aurreko taldeek ez bezala. Muskariz betetako agertokiarekin, txosnetako giroa pil-pilean jarriko du taldeak. Denetarik abestiak eskainiko dituzte, eta, edonola ere, bertaratzen direnek dantza egiteko aukera edukiko dute.

Emanaldi bakarrean hiru taldek estilo ezberdinak musika eskainiko dute, ikus-entzuleen gozamenarako.



Bizardunak taldeak egubakoitzeko giroa piztuko du txosnetan. | GOIENA

## ZAPATUA

# 11

### Rock Maratoia

Munibe plazan eta Etxagi aurrean | 19:00etan

Desprezio, Rombos negros eta XX Zero taldeak Munibe plazan arituko dira, eta Etxagi aurrean Katabatik, Hardf ip eta Darkcode taldeak arituko dira rock doinuak taularatzen.

Katabatik eta Darkcode talde bergararrek metal soinuak eskainiko dituzte. Darkcodek, Trivium, Gojira eta Lamb Of God talde ezagunen bertsiok ere eskainiko ditu.

Desprezio talde arrasatearrak punka rockarekin uztartuko du eta Rombos Negrosek nagusiki rocka joko du.

Hardflip-ek rock, punk eta hardcore estiloak jorratu eta azken lana taularatuko du: *Ke kereis?*

### Los Galerna, Slamtilt eta Arkada Social

Txosnetan | 22:30ean

Rock-surf estiloa eta disko berriko lanak eskainiko ditu Los

Galernak. 60ko hamarkadako musika estiloan oinarritzen direla diote taldeko kideek. Taldea 2008an sortu bazen ere, kideak aurretik beste talde batzuetan ibili dira, eta, ondorioz ibilbide luzea dute atzean. Abestiak hartu eta euren erara egokituz, talde berri hori sortu zuten.

Slamtilt talde alemanak, aldiz, hardcore eta punk estiloak jorratuko ditu. Arkada Socialek ere lerro berean jarraituko du eta ibilbideari errepaso emanaz punka eta rocka joko ditu.

## DOMEKA

# 12

### Garate, Anari eta Sorkun

Txosnetan | 20:00etan

Mikel Garatek hamar urteko ibilbidean pilotutako lanak taularatuko ditu. Harmonika eta gitarra lagun dituela, bergararrak ez dio hutsik egingo publiko fideleari. Folk, rock eta country estiloak izango dira nagusi emanaldian.

Garatek lagun eta musikari handiekin egindako bere azken lana, *Katuxumeak*, taularatuko du, eta Sorkunek orain arte argitaratutako sei diskoetako lanak eskainiko ditu.

Berezitasun moduan, Sorkunek orain arte ezagunak zituen abestiak modu akustikoan eskainiko ditu, tarteka. Izan ere, abeslaria azken denboraldian kontzeptu berri bat jorratzen ari da. Bide horretan, orain arteko lan arrakastatsuek beste musika estilo batzuekin uztartu ditu Sorkunek, ahotsari tarte handiagoa eskainita.



Sorkun domekan egongo da. | GOIENA



## IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN

Ondo pasau jaixak!

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32



Oskar  
Dekorazioak

Ondo ibili jaixetan!

Tel./FAXA: 943 53 21 43 • Mug.: 607 15 26 62  
Matxiategi, 22 behe • 20570 BERGARA

- ✓ Tabikeak eta sabaiak
- ✓ Armairuak eta apalak
- ✓ Sabai desmuntagarriak
- ✓ Eskaiola lanak
- ✓ Intsonorizazioak

## Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62







Arkada Social. | GOIENA



Anari. | GOIENA



Desprezio taldeko kidea. | GOIENA

Anarik ere ez die hutsik egingo ikus-entzuleei. Agertokien gainean bide luzea du eta orain arte ekoiztutako abesti asko eskainiko ditu. Izan ere, Anari 1997an sartu zen musikaren munduan eta ordutik hona, abesti asko eta asko egin izan ditu. Rocka eta folka nahasten ditu eta, besteak beste, *Irla izan* eta *Zebra* disko ezagunetako abesti arrakastatsuak ere eskainiko ditu. Lan batzuk ezagunak bada ere, jaioberri diren abestiak ere interpretatu eta aurkeztuko ditu abeslari azkoitiarrak.

## ASTELEHENA

13

## EH Sukarra eta Dolce &amp; Tangana

Txosnetan | 22:30ean

1990. urtean lehen kontzertua eskaini eta gero, urteetan ehunka plaza bete izan ditu EH Sukarra talde eibartarrak. Azken lana zuzeneko bada ere, emaldian ibilbide osoko abestiak

errepasatuko dituzte. Beraz, abesti ezagunak ez dira faltako.

*Ura sutan*, *Galtzailearen egunak*, *Garaien laberintoan* eta *Sua urtzean* bezalako lanetan sartutako abestiak eskainiko dituzte. Denaren gainera, taldeak ez die zaleei hutsik egingo.

Heavy metal ospeari hutsik egin gabe, taldea indarberrituta agertuko da eta girorik ez dela faltako iragarri dute.

Dolce & Tangana taldeak, berriz, reggae, ska eta rock estiloak uztartuko ditu. Koktelak erakargarria dirudi eta taldea ikusleei hutsik ez egiten saiatuko da.

Tolosa, Villabona eta Ibarra-ko kideek osatzen dute taldea. Eta azken lana apirilean hasi ziren grabatzen. Ondorioz, emaldian, abesti zaharrez gain berriak ere eskainiko dituzte.

Bi taldeek erritmo gogorra eskainiko dute, eta, txosnetako giroa pizte aldera, ikusleak mugiaraztea izango da haien helburua.

Gogortasun horrekin, eta txosna ingurua dar-darka dagoela, bi taldeek aurtengo jaietako musika programa erritmo potentearekin itxiko dute.



EH Sukarrak astelehenean musika egitaraua itxiko du. | GOIENA

## Musika dantzagarria, jaietan ezin falta

Rocka nagusi bada ere, ez dago jairik musika dantzagarrikerik gabe. Egunero egongo da eskaintza San Martin plazan. Egubakoitzean, 23:00etan, Tximeleta taldeak eskainiko du kontzertua. Zapatuan Izargik girotuko du plaza, 20:00etan eta 23:30ean. Eta Traketsek domekan, 23:00etan. Astelehenean Fabulosa orkestra egongo da Espaloian, 12:30ean eta 23:00etan. Egun berean, Imuntzo eta Beloki plazan egongo dira, 20:00etan. Eta Joxpa taldea txosnetan, 20:00etan.



Imuntzo eta Beloki. | GOIENA



Joxpa talde ondarrutarrak erromeria giroa jarriko du. | GOIENA

# Iratxo mertzeria

Telesforo Aranzadi 3B  
Tel.: 943 76 00 79  
BERGARA

Ondo pasau Pazkoetan!



## Murillo Garajea

Auto konponketak orokorrean

Pentekoste jai zoriontsuak  
bergarar guztioi!

Leizeaga, 4 - BERGARA  
Tel.: 943 761384

# PAZ KOAK 2011

**GOENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA**

EKAINAK 17, 22:15

EKAINAK 18, 10:00 / 16:45 / 21:00

EKAINAREN 19AN 14:00ETAN / 22:30EAN







### Leire eta Oscar

Oscar Nuñez eta Leire Errasti ekainaren 11n Eskoriatzako HUHEZI falkultatean ezkonduko dira. Ondoren bazkaria egingo dute Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean. Mexikora egingo dute ezkon-bidaia. Zorionak eta urte askotarako, bikote! Familia eta lagunen partetik.



### Imanol eta Ana

Imanol Cabanillas eta Ana Zubizarreta ekainaren 11n ezkonduko dira. Zorionak, bikote! Espero genuen eguna heldu da! Muxu handi bat familia, lagun eta Aitorren partetik! Oso ondo pasatu eguna eta ezkon bidaian!



### Janire eta Lander

Janire eta Lander ekainaren 11n ezkonduko dira. Zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu eguna eta eztei bidaia.



### Ixone eta Argoitz

Ixone eskoitzarra eta Argoitz Leitzarra, Leitzako udaletxian ezkontzen die bixar, zapatua. Gero ezkon-bazkaria Urrietako Oianume jatetxean izango dogu. Oraingoan bai, benetan ezkontzen die! Familixian partetik, ondo-ondo pasatu eguna eta zorionak, bikote!



### Jasone eta Iker

Jasone Zabala bergararra eta Iker Isasmendi aretxabaletarra bihar, ekainak 11, Bergarako Mariaren Lagundia elizan ezkonduko dira. Bazkaria Lasa jatetxea ospatuko dute, eta eztei bidaian Norvegiara joango dira. Zorionak familia eta lagun partetik. Portzierto, azkenean Baskonia-ko eta Errealeko jokalariek ezin izango dute ezkontzara etorri... je, je! Baina lasai, gu han izango gara eta!



### Oihana eta Egoitz

Oihana Plaza eta Egoitz Unamuno. Gaur nire gurasuak ezkontzen die eta bere betiko lagunak jai on bat ingo daue ospatzeko. Zorionak, Oihana eta Whiskasei.



### Iban eta Aroa

Arrasateko Iban Rodriguez eta Aroa Vinagre ekainaren 11n Zumaian ezkonduko dira. Bazkaria Marina-Berri jatetxean izango da eta eztei bidaian itsas-bidaia egingo dute Mediterraneo aldera. Familiako guztien partetik, "Zorionak eta oso zorionsu izan zaitezela!"



### Andoitz eta Ainara

Ainara Etxenautia eta Andoitz Iztueta ekainaren 11n Zerainen ezkonduko die eta ondoren Lierinin bapo bazkaldu eta ederto pasatuko dou. Atxabaltako kuadrilian eta familixian partetik ondo-ondo pasatu eta zorionak!



### Ainara eta Jon

Jon Ugarte eta Ainara Arizabaleta bergararrak joan zen astean, ekainaren 4an, ezkondu ziren, Supide baserrian ospatu genuen ezkontza. Eztei bidaian, Reunion eta Mauriciora iletara joango dira. Lagunen partetik zorionak.

#### ESKER ONA

### Angel Maria Otxandiano Arana



Arrasaten hil zen 2011ko ekainaren 6an, 64 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko haren emazte eta seme-alaben izenean.

Arrasaten, 2011ko ekainaren 10ean.

#### ESKER ONA

### Angela Urzelai Kortabarria



Antonio Gantxegiren alarguna  
Bergaran hil zen 2011ko ekainaren 5ean, 79 urte zituela.

Lerro hauen bidez Angelaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2011ko ekainaren 10ean.

#### ESKER ONA

### Teodora Aretxaga Solaun



Pedro Mancisidorren alarguna  
Bergaran hil zen 2011ko ekainaren 4an, 88 urte zituela.

Lerro hauen bidez Teodoraren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2011ko ekainaren 10ean.

#### ESKER ONA

### Vitori Abarrategi Gorosabel



Raimundo Uribarrenen alarguna  
Arrasaten hil zen 2011ko maiatzaren 26an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2011ko ekainaren 10ean.

#### ESKER ONA

### Imanol Bilbao Aranzabal



Lutxi Manzisidorren alarguna  
Bergaran hil zen 2011ko ekainaren 6an, 90 urte zituela.

Lerro hauen bidez Imanolen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2011ko ekainaren 10ean.

#### ESKER ONA

### Mertxe Saiz Moreno



Iruñean hil zen 2011ko ekainaren 3an, 55 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.  
—  
Horrenbeste maite izan dituzun mendi tontorretatik guri begira egongo zarelaokan, beti egongo zara gure bihotzetan. Muxu handi bat etxeokoen partetik.

Arrasaten, 2011ko ekainaren 10ean.

## HILDAKOAK

**Vitori Abarrategi Gorosabel.** Arrasaten, maiatzaren 26an. 83 urte.  
**Nicolas Alcelus Fernandez de Arroiabe.** Bergaran, ekainaren 2an. 82 urte.  
**Esperanza Bilbao Aranzabal.** Bergaran, ekainaren 2an. 84 urte.  
**Vicente Rivas Perez.** Arrasaten, ekainaren 3an. 78 urte.  
**Mertxe Saiz Moreno.** Iruñean, ekainaren 3an. 55 urte.  
**Teodora Aretxaga Solaun.** Bergaran, ekainaren 4an. 88 urte.  
**Angela Urzelai Kortabarria.** Bergaran, ekainaren 5ean. 79 urte.  
**Rosario Guridi Gonzalez.** Arrasaten, ekainaren 5ean. 90 urte.  
**Angel Maria Otxandiano Arana.** Arrasaten, ekainaren 6an. 64 urte.  
**Imanol Bilbao Aranzabal.** Bergaran, ekainaren 6an. 90 urte.  
**Rufina Zubierremerteria Irazabal.** Bergaran, ekainaren 6an. 94 urte.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO  
 DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.  
 EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.  
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.  
 Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

## URTEURRENA

## Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

*Hain erroza izan delako zu maitatzea eta hain zaila zu gabe bizitzea, muxu handi bat, familiakoien partetik.*

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko familiakoien izenean.

## URTEURRENA

## Esperanza Elorza Bergaretxe



Aramaion hil zen 2010eko ekainaren 9an, 69 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Aramaioko Gantzaga auzoko San Millan elizan ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoien izenean.

## URTEURRENA

## Ramona Zubizarreta Lete

Bizente Mujikaren alarguna



Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 21ean.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

*Urtebete igaro da gure andotik joan zinenetik, baina zure oroitzapena ez da sekula joango. Maite zaitugu.*

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoien izenean.

## URTEURRENA

## Jose Luis Etxebarriarteun Mugica



Gasteizen hil zen 2010eko maiatzaren 29an.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoien izenean.

## URTEURRENA

## Eduardo Etxabe Fernandez de Arroyabe




Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrak sendikoien izenean.

## URTEURRENA

## Donato Igarza Iñarra



2010eko ekainaren 6an hil zen, 85 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

Bere anai-arrebek haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko den lehen urteurreneko mezara.

Aldeztatik, mila esker.

## OROIGARRIA

## Vicente Rivas Perez

Mirvat-eko bazkide sortzailea



Arrasaten hil zen 2011ko ekainaren 3an, 78 urte zituela.

Zurekin ikasitakoa ez dugu ahaztuko.



Mirvateko langileak.  
 Eskoriatzan, 2011ko ekainaren 10ean.

## URTEURRENA

## Eusebio Larrañaga Unamuno

Benita Aseginolazaren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoien izenean.

## URTEURRENA

## Benita Leturiaga Ariznabarreta

Lino Olabarriaren alarguna



Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 26an.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoien izenean.

## OROIGARRIA

## Mertxe Saiz Moreno



Iruñean hil zen 2011ko ekainaren 3an, 55 urte zituela.

*Zure bizipozaz kutsatu gintuzun. Betirako gure oroimenean izango zara. Muxu bat.*

Fagor Elektronikako zure lankideek.  
 Arrasaten, 2011ko ekainaren 10ean.

Babeslea:



Beilatokia  
 Etengabeko zerbitzua  
 Lore koroak  
 Eskelak  
 Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
 e-posta: euskalduna@harrespil.net



**BERGARA** Bizardunak

Talde nafar jaizaleenak atzera ere dauka hitzordua Bergarako jarraitzaileekin herriko jaien egitarauaren barruan. Abesti berriak joko dituzte eta eurekin batera jaialdian parte hartuko dute Zezenaren taldeak eta Bad Sound System disko-jartzaileak. Txosnetan izango dira hiru emanaldiak.

Gaur, egubakoitza, txosnetan, 22:30ean.

**ARRASATE** Txorbela

Arrasateko otxoteak Suediako Ragnarök abesbatzarekin batera abestuko du. Otxotearen tradizioa berpizteko sortu zuten orain hiru urte eta ordutik hona, hara eta hona ibili da taldea, geroago eta oihartzun handiagoarekin.

Gaur, San Frantzisko Xabier elizan, 20:00etan.

**MUSIKA****ARETXABALETA** Gitarra eta konbo emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleek gitarra eta konbo emanaldia egingo dute.

Ekainaren 14an, martitzenean, Arkupeko Zاراia aretoan, 18:30ean.

**ARETXABALETA** 'Kantagin jazz' kontzertua

Iñaki Salvador piano-joleak eta Ainara Ortega abeslariak *Kantagin jazz* kontzertua eskainiko dute.

Ekainaren 12an, domekan, Arkupeko Zاراia aretoan, 19:00etan.

**ARRASATE** 'Metal gaua' gaztetxean

Arrasateko gaztetxearen lagunak indartsu datoz aste bukaeran. Izan ere, biharko, zapatua, metal gaua antolatuko dute. Kontzertua gaztetxean bertan izango da, 22:00etan. *Metal gaua* giroten hiru taldek jardungo dute oholtza gainean: Asfikzia, Black River eta Sleepwalker.

Ekainaren 11n, zapatuan, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI** Adierazpen askatasun eguna

Salamancan Oñatiko gazte bati 4.000 euroko isuna jarri zioten Realaren partiduan batean euskal presoaren aldeko bandera bat erakusteko. Isun horri aurre egin nahian, bazkari bat eta kontzertu bat antolatzea bururatu zaie Oñatiko hainbat gazteri, ahal den neurrian laguntzeko. Egitaraua: 13:00etan poteoa Antton tabernan hasita, 14:30ean bazkaria eta bertsoak. Txartelak Arrano eta Boga tabernetan salgai 7 eurotan. 19:00etan manifestazioa txarangak girotuta eta poteoa. 21:30ean kontzertua Porco Bravo eta Sermond's taldeekin.

Ekainaren 11n, zapatuan, herriko hainbat lekutan, 13:00etatik aurrera.

**ARAMAIO** Bea Asurmendiren saioa

Bea Asurmendi bakarlarari aramaiorak zuzeneko saioa eskainiko du gitarra doinu lasaiak eta ahots gozoa gidari.

Gaur, egubakoitza, Sastifian, 20:00etan.

**ARETXABALETA** Ain\_1en kontzertua

Atxabaltako Gazte Ekimenaren *Egukotxetako barra-n*, asteen

**NON-ZER**

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEO EGUERDIA BAINO LEHEN.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Arrasateko Ain\_1 taldearen kontzertua egongo da.

Gaur, eguena, udaletxe zaharraren parean, 19:30ean.

**ANTZERKIA****ARETXABALETA** Pirritx eta Porrotx, plazan

Pirritx eta Porrotx pailazoek *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna eskainiko diete umei.

Ekainaren 15ean, eguaztenean, Herriko Plazan, 18:00etan.

**ARETXABALETA** 'Republicados' antzezlan

Teatro Interior taldeak *Republicados* antzezlan eskainiko du Zاراia aretoan. Sarrera, 4 euro.

Gaur, egubakoitza, Arkupeko Zاراia aretoan, 22:00etan.

**JAIK****ESKORIATZA** Jaialdi zapatista

Egitaraua: 12:00etan maien tatua-jeak, 14:30ean herri bazkaria -janari mexikarra-. Bazkaldu

ostean, Rosa Sanchezek *Desde Costa Rica con amor* kantaldia egingo du. 18:00etan alanbiki erakustaldia. 22:00etan kontzertuak plazan eta DJ berezia.

Ekainaren 11n, zapatuan, plazan, 12:00etan.

**OSPAKIZUNAK****ARETXABALETA** Kurtzebarri Eskolako Jaia

Kurtzebarri eskola osatzen duten lagun guztiek ekingo duen presatatu dituzte egun zoragarri baterako: mendi ibilaldia oinez eta bizikletaz, tailer ezberdinak, luntxa, bazkaria, Bide Batez taldearekin dantzaldia, gaztelu puzgarria, jolas zirkuitua,...

Ekainaren 11n, zapatuan, frontoian, kantxan eta Herriko Plazan, 10:30ean.

**ARETXABALETA** Hiruatx elkartearen ospakizuna

Hiruatx elkartek 20. urteurrena ospatuko du. Ekitaldiak (dantzak, bertsoak, ikus-entzunezkoak...) herriko kaleetan egingo dituzte, eta Arkupen eskainiko dute 20 urteotako ibilbidea jaso duen ikus-entzunezkoa eta azken proiektuaren berri eman: *20 urte lanean. Gaur, Brasilen.*

Gaur, Brasilen.

Gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI** Erretiratuei omenaldia

Erretiratuaren Astea bukatzeko bazkaria egingo dute domekan kiroldegian, 14:30ean. Bazkaldu aurretik, Juan Plazaola (93 urte) eta Isabel Zubia (90 urte) omenduko dituzte. Hurrenez hurrez, ohorezko txapela eta zapi jaso-ko dituzte opari gisa. Aurretik, 12:00etan meza egingo dute parro-ri.

Ekainaren 12an, domeka, Zubikoa kiroldegian 10:30ean.

**BERTSOLARITZA****ARAMAIO** Binakako bertsolari txapelketa

Debagoieneko Binakako bertsolari sariketako laugarren eta azken bikotea gaur erabakiko da Aramaioko Uribarri auzoan. 20:30ean izango da saioa eta bertso afaria egingo dute. Manex Agirre, Maria Izaga, Andere Arriolabengoa, Sabin Aranburu,

Iker Agirre, Beñat Burgi, Iñaki Viñaspre eta Beñat Zalakainek jardungo dute bertsotan.

Gaur, egubakoitza, Uribarri auzoan, 20:30ean.

**UMEAK****ESKORIATZA** Luis Ezeizako jaialdia

Egitaraua: 11:00etan ikasleen emanaldia, 12:00etan jolasak plazan, 14:00etan bazkari ekologikoa eskolako arkupeetan, 15:30ean umeendako jaialdia. Horretaz gainera, *Luis Ezeiza eskola, 40 urte argazkitan* erakusketa bisita daiteke kultura etxean.

Ekainaren 11, zapatua, plazan eta eskolako jolastokian 11:00etan.

**ERAKUSKETAK****ANTZUOLA** Erakusketa: 'Eskolako 5. mailako erakusketa'

Gaia: etorkizuna gure esku dago. Orduetgia: 18:30-20:30

Ekainaren 11, zapatua, Orlanen 18:30ean.

**IRTEERA****ARETXABALETA** Hirugarren ibilbide historikoaren aurkezpena

Loramendi Elkartek gertu dauka hirugarren ibilbide historikoa: Arkarazo-Areantza-Goroeta. Hori erakusteko irteera egingo dute.

Ekainaren 12a, domeka, herriko plazan 08:30ean.

**HITZALDIK****ARETXABALETA** Elektromagnetismoaren gaineko berbaldia

Asier Arregi adituak (Geobiotek) *Elektromagnetismoa eta osasuna* berbaldia eskainiko du Aste Berdearen barruan.

Ekainaren 16a, eguena, Arkupeko Zاراia aretoan 19:00etan.

**ESKORIATZA** Garai honetako sendabelarrak, tradizioa eta zientzia.

Eskoriatzako Amuska Emakume Elkartek eta Bizikasik antolatuta, *Garai honetako sendabelarrak, tradizioa eta zientzia*. Hiz-

**OÑATI** Porco Bravo

Egitarau zabala prestatu dute adierazpen askatasunaren aldeko egunerako Oñatin. Rock jaialdia ere egongo da Porco Bravo eta Sermond's taldeekin. Egunean zehar poteoa, bazkaria eta bertsoak egongo dira. Batutako dira herriko zenbait gazteri iaz martxoan ezarritako isuna ordaintzeko erabiliko da.

Bihar, zapatua, frontoian, 21:30ean.





# goiena

2011-06-10

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

## Etxaluze: aldizkari bateko izarra

- 'Proyecto Contract' aldizkariak bigarren argitaratzen du Hormaetxeren eta Etxebarriaren lan bat
- Eraikina eginaz batera, onerako edo txarrerako zeresana emango zuela argi zuten bi arkitektoek

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Etxaluze eraikina beste behin ere mintzagai bilakatu da. Izan ere, *Proyecto Contract* aldizkariak ekaineko zenbakian agertzeko aukeratu du. Eraikinaren gurasoak, nolabait esateko, pozik agertu dira Estatu mailako aldizkariak hartutako erabakiarekin. "Guretako albiste pozgarria da", esan du Asier Hormaetxe arkitektoak.

Hormaetxek buruz buru lan egin du Aritz Etxebarriarekin. Biak Biark arkitektura enpresako kideak dira eta haien merituak eraikina izaten ari den ospea. Biak dira Etxaluzeren gurasoak.

Eraikina egiteko burutazioa nondik etorri zitzaizen galdetuta, bezeroaren eskaerara mugatu zirela diote. "Udalak eraikinak izan behar zuen funtzioaren gaineko pautak batzuk eman zizkigun eta guk horren arabera diseinatu genuen Etxaluze. Eta, azkenean, horixe izan da emaitza", dio Hormaetxek.

Kanpotik zein barrutik, eraikina bitxia da eta bi arkitektoek ondo dakite hori. "Barrutik hiru soliruratu ditugu Etxaluzek, baina hirurak konektatuta daude. Horretaz gainera, kanpoko argia



Ezkerrean Aritz Etxebarria eta eskuman Asier Hormaetxe. | ASIER ALKORTA

aprobetxatzeko, sabaian kristala ipini genion".

Egindako lanaz "gustura" egoteaz gain, eraikinak edukitako oihartzunaz ere oso pozik daude. "Egin genuenean bagenekien eraikinak zeresana emango zuela, onerako edo txarrerako".

### Oihartzunaren arrazoiak

*Proyecto Contract*-ek eraikina ekaineko zenbakian argitaratze-

ko aukeraketaren arrazoiak ere badakizkitez Hormaetxek eta Etxebarriak. "Formaz gain, Etxaluze ingurunean nola integratu dugun gustatu zaie, baita eraikinaren barruko hiru solairuak nola banatu ditugun ere".

Kanpotik eraikinaren barrura sartzen den argitasuna nola aprobetxatu duten ere kontuan hartzeko faktore bat izan da aldizkariarentzat. "Horrek ere



Etxaluze eraikina. | ASIER ALKORTA

harritu egin ditu", dio Hormaetxek.

Etxaluzek estilo berezia badu ere, arkitektoek ozen diote estilo finkorik ez dutela. "Bezeroak eskatzen duenaren arabera gauza bat edo beste egiten dugu. Ez daukagu estilo propiorik".

### Bigarren aldizkarian

Ez da lehen aldian *Proyecto Contract* aldizkariak Biark-ekoek egindako lana argitaratzen duena. Izan ere, aurreko zenbaki baten bi arkitektoek Bilbon egindako jate-txe baten erreportajea egin zieten. Eta, gainera, Espainiako 100 jate-txe onenen artean sartu zuen aldizkariak Hormaetxeren eta Etxebarriaren lana.

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Zerua eta infernua

E sadazu egia: zerurik ba al dago?", galdetu dit amonaxoak. Ez dakit zer erantzun. Kontatu baitit etxetik elizara eta elizatik etxera igaro duela bizitza osoa. Paparra, ukalondoak eta belunak beti ondo estalita. Apaizei musu ematen ziela esku gainean. Ez zuela mutilekin dantza egiten, Mariaren alaben kongregaziokoa zelako. Uste zuela mutil batek musu eman ez gero, haurdun geratuko zela. Bizikletan ibiltzea ere bekatuakoa bidea zela. Infernuko sutan erretzeko beldurrez bizi zirela.

Eta zer eta ez du ba entzun infernua ez dela existitzen? Apaiz bati entzun zion hori esaten, mezetan. "Infernurik ez badago, orduan zerurik ere ez!", azkar asko ateratzen zuen ondorioa. "Eta zer gertatu da bekatuekin? Lehen dena bekatua zen, eta orain dena libre". Nahastuta dago amona gaixoa. "Eta purgatorioa?". Egia nahi du, hainbeste gezurren ondoren.

Ez dakidala esan diot. Ez dakit zerurik baden ala ez. Baina bai lurrean beti egon direla infernu itxurako tokiak eta egoerak. Herrialde pobretuak, gerrak. Eta lehen lepo zeuden elizak hutsik daudela orain. Eta ez dakitela zer asmatu kristauak erakartzeko: Donostian Loiola auzoan egin duten elizan supermerkatua jarri dute azpialdean. Mezetara doazenei 2x1 deskontu bonuak ematea bakarrik falta zaie.

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia

# IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

ONATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

**OPARIA**  
Indukzio-plaka  
uztailaren  
15a arte
